ASTELEHENEKOA

goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA

2011-03-07
ASTELEHENA
312. ZENBAKIA
7. URTEA
1,10 EURO
GOIENA.NET
TOKIKOM

Guriak ateak itxiko ditu apirilean

65 urteren ondoren itxiko dute taberna | 18

Espe Elizondo, barran. | ANTON AZPIAZU

Umeen liburutegia kultura etxeko beheko solairura eramango dute | 11

Txoriaren eguraldi iragarpenak musikarekin jantzita | 30

Goikobaluren 20 urteko ibilbidearekin CD eta DVDa kaleratuko dute | 29

Zonbi hasi eta zonbi bukatu, Aratusteetan

Aspaldiko Aratusterik jendetsu eta kalitatezkoenak ospatu dituzte Debagoieneko herrietan | 13

Zonbi mozorroa izan zen errepikatuenetako bat Aretxabaletan eta bestelako herrietan. | JOSETXO ARANTZABAL

Hunkipen handia, Isaias Carrascoren atzoko omenaldian

Gaur, astelehena, hiru urte dira hura hil zutela | 4



Carrascoren senideak. | UBANE MADERA

DEBAGOIENA 4 | IRITZIA 8 | HERRIAK 11 | KIROLA 22 | KULTURA 29 | ZURE IRAGARKIAK 34 | TELEBISTA 37 | ZORION AGURRAK 38 | JAIOTAKOAK 39 | DENBORA-PASAK 39

goienakluba
Abantailaz betetako kluba!

Erremeixuak DVD-aren eskaintza berezia

► Zoaz 21 orrialdera

"Zoragarria da laguntzeko gertu hainbeste jende edukitzea"

- Elikagaien Bankuak Bergaran izango du biltegi bat
- Dagoeneko 35 herritar aurkeztu dira laguntzeko
- Janaria batu eta behar dutenei helarazten diete

Boluntario bat Gipuzkoako Elikagaien Bankuan lanean, Oiartzunen. | GIPUZKOAKO ELIKAGAIEN BANKUA

LEIRE KORTABARRIA | BERGARA

Gipuzkoako Elikagaien Bankuko arduradunak txundituta daude Debagoienean euren ekimenak piztu duen elkartasunarekin: jakin zenetik erakunde horrek ordezkaritza bat zabaldu behar zuela bailaran, Bergaran, dagoeneko 35 bat lagunek eman dute izena erakundeari boluntario gisa laguntzeko. Ez hori bakarrik: Debagoieneko "salmenta-leku ertain eta handi ia guztiek" bat egin dute eurekin. Baina, batik bat, boluntarioak dira Gipuzkoako Elikagaien Bankuko arduradunak pozten dituztenak. Eta norbere burua lanerako eskaintzeko aukera badago oraindik: datorren eguenean, hilak 10, batzar informatiboa egingo dute Bergarako Miguel Altuna institutuan (19:30), eta interesa duenari hara joateko dei egiten diote.

Gipuzkoako Elikagaien Bankuak erabaki du Bergaran ipintzea bere bigarren bilketa eta banaketa zentroa. Gipuzkoako 30 bat herriri zerbitzua emango die: Debagoieneko, Debabarreneko, Urola Garaia eta Urola Kostako eta Goierriko herriei, hain zuzen ere.

Ahalik eta boluntario gehien

Helburua izango da Elikagaien Bankuak duen berbera: premia duen jendeari jatekoak helaraztea. Jateko horiek izaten dira Bankuak hartu ezean alperrik galduko edo zabortegira botako zitezkeen produktuak; hau da, oraindik jateko moduan daudenak, baina bota egiten direnak. Janari horiek saltzaile ertain eta handiei –supermerkatuei eta hipermerkatuei– eskatzen dizkiete, eta haien bila joaten dira Bankukoak, furgonetarekin.

Furgonetak bilketa eta banaketa zentrora eramaten du jasotako produktu guztia. Han boluntario talde bat dago, eta haiek deskargatu egiten dute produktua, eta gero, sailkatu eta antolatu. Elikagaien Bankuak erakundeei ematen die janaria, ez norbanakoei edo familiei; horiek atenditzen dituzten erakundeak joaten dira biltegira produktuaren bila. Horregatik, boluntarioek loteka edo palet-etan antolatzen dute janaria, erakunde bakoitzari behar duena emateko.

Kate horrek behar bezala funtzionatu dezan, ezinbestekoa da Bankua osatzen duten boluntarioen lana. Horregatik, dagoeneko izena eman duten 35 debagoiendarrei esker ona azaltzen die Gipuzkoako Elikagaien Bankuko ordezkari Javier Saezek: "Bergaran agertu den boluntario kopuruak harritu egin gaitu; ez genuen espero hainbeste lagunek izena ematea. Zoragarria da hainbeste jende laguntzeko gertu egotea".

Arduradunek azpimarratzen dute "ahalik eta boluntario gehien" izatearen garrantzia: "Bost bat laguneko taldeak antolatu nahi ditugu. Horrela, norberak astean goiz baten bakarrik lan egin beharko luke, aste osoan lan egitea gehiegi da-eta. Bestalde, Bankuak urteko egun guztietan eman behar duenez zerbitzua, ziurtatu egingo genuke beti zabalik egotea, jendeak oporrak hartu edo lan egiteko aukerarik ez izan arren".

Ondo dagoen janaria

Oraindik ere, Oiartzunen dauka Gipuzkoako Elikagaien Bankuak janaria batzeko eta banatzeko gune bakarra, baina hutsunea zegoela igarri zuten. Saezen esanetan: "Debagoieneko eta inguruko erakundeak oso gutxi etortzen ziren Oiartzunera, eurendako urruti zegoelako, seguru asko". Ez dakite zentro berriak ze erantzun izango duen, baina dagoeneko Debagoieneko eta zerbitzatuko diren gainerako eskualdeetako banatzaile handienek bat egin dute Elikagaien Bankuarekin: "Hipermerkatu bakarra dago Debagoienean, baina gurekin lan egiteko gertu dago; horrez gain, supermerkatu gehienak ere", esaten du Javier Saezek.

Sarritan, saltokiek edo banatzaileek eurek deitzen dute Elikagaien Bankura, dendatik kendu behar duten janaria daukatela abisatzen. Javier Saezek argitzen du janari hori "beti" ondo dagoela eta iraungitze (kaduzitate) dataren barruan: "Banatzaile edo salmenta-kate bakoitzak bere politikak izaten ditu erabakitzeko produktu batzuk noiz kendu apaletatik", esaten du. Hala, batzuek kendu egiten dituzte produktuak iraungitze-data bete baino lehenago: jogurtak eta hestebeteak, 10 egun lehenago; eta barazkiak eta frutak, normalean, aste bete lehenago, Elikagaien Bankuaren datuek diotenez.

Gipuzkoako Elikagaien Bankuak iazko kanpainaren datuak eman dizkigu: hilero 16.000 pertsona baino gehiagorengana heltzea lortu zuen, eta 163 erakundek jaso zuten eurek batutako janaria.

Laster kontsumitzekoak

2009a ezkero, beste sistema baten bidez ere jasotzen dute janaria. *Azken Minutuko Merkatua* deitzen diote, eta Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Mondragon Unibertsitateak 2007an egindako bideragarritasun ikerketa baten ondorioz ezarri zuten. Horren bidez, egunero batzen dituzte elikagaiak, eta, izenak dioen moduan, oso epe motzean kontsumitu behar diren produktuak batzen dituzte. Bankuko arduradunen esanetan, "lehenengo aldiz lortu zen fruta edo barazkiak bezalako janari freskoak batzea, eta baita iraungitze-epe motzagoa zuten beste

Datozen asteotan jantziko dute Bergarako biltegia. | LEIRE KORTABARRIA

Berrehun metro koadro, 30 herriri zerbitzua emateko

Bergarako Elikagai Bankuak dagoeneko badauka egoitza, eta berau gertatzea bakarrik falta da. San Juan poligonoan dagoen Tecnosystem enpresaren orube baten dago, eta 200 metro koadro hartzen ditu. Oraindik jantzi barik dago, baina horretan jo eta sua lanean dabiltza. Euren nahia da martxoaren 25erako dena gertu izatea, izan ere, gurako lukete egun horretan inauguratzea zentro berria. Horretarako, Markel Olano ahaldun nagusia etorriko da, eta eragingo dien herrietako alkateak ere gonbidatuta daude.

Bailarako lantaldearen nahia da martxoaren 21erako produktu batzuk ere han izatea. "Eta, aurrerago begira, izozkailuak ere ipini nahi ditugu: horrela arraina, okela eta izoztuak ere gorde ahal izango ditugu", esaten dute.

Oiartzungo biltegia.

Janari motaren arabera antolatuta.

Horrelako furgoneta bat izango dute Bergaran. | ARGAZKIAK: GIPUZKOAKO ELIKAGAIEN BANKUA

DATUA

1.000

LAGUN GEHIAGO

Gipuzkoako Elikagaien Bankuak jende gehiagori helarazi zion janaria iaz –16.000 lagun–, 2009an baino –15.000.

DATUA

600

TONA

Europako Batasunak aprobetxatzeko janari asko bidaltzen dizkie elikagaien bankuei: Gipuzkoakoari, iaz, 598,208 tona.

batzuk, esnekiak eta opilak, esaterako". Horiek agudoago alperrik galtzen direnez, egun batetik bestera banatzen dira. Gipuzkoako merkataritza-gune handienetatik pasatuko ziren Elikagaien Bankuko bi furgonetak, egunero: Eroski (Garbera, Urbil eta Arcco), Alcampo (Txingudi), Carrefour (Oiartzun) eta Uvesco (Irun).

Kalkulatzen da *Azken Minutuko Merkatua*-ren bidez, hilero, jasotzen direla 2.650 kilo fruta, 7.000 kilo barazki, 7.000 ogi-unitate, 3.200 jogurt, 560 hestebete-unitate eta aurretik prestatutako 260 janari-unitate.

Sistema horrekin hasteko, Foru Aldundiaren Iraunkortasun Sailaren babesa izan zuen Gipuzkoako Elikagaien Bankuak. Sail horrek azpimarratu zuen beste helburu bat ere bazegoela horren atzetik: behartsuei laguntzeaz gain, galarazi egingo zen janari asko zabor bihurtzea; eta, bereziki, herrian traba egiten duen zabor mota –usaina, intsektuak…– eta osasun publikoari zein ingurumenari kalte handia egiten diona.

Elikagaien Bankuaren eta Azken Minutua-ren helburuak bata bestearekiko osagarriak dira: lehenak iraungitze-epe luzea duten janarien kantitate handiak kudeatzen laguntzen du; bigarrenak laster kontsumitzeko diren eta agudo alperrik galtzen diren janariak kudeatzen ditu.

Janaria lortzeko beste bide batzuk dira Europako Batasunak ematen duena eta beste edozein lekuko elikagai bankuekin trukatutakoa: kontaktuan egoten dira euren artean, eta elkarren beharren eta soberakinen arabera, trukeak egiten dituzte.

Kopurutan, hauek dira Gipuzkoako Elikagaien Bankuak 2010ean jaso zituen kantitateak: industrietatik, 157.135,50 kilo; Europako Batasunetik, 598.208,40; beste elikagai banku batzuetatik, 31.760; kanpainetatik, 21.918,80; eta Azken Minutuko Merkatutik, 309.428,30.

Gero eta behar handiagoa

Lan horren guztiaren bukaeran daude behartsuak, Bankuaren oinarria. 2009tik 2010era, handitu egin da Gipuzkoako Elikagaien Bankuak hilero atenditzen dituen herritarren kopurua: hilero 1.000 gehiago, gutxi gorabehera. Javier Saez arduradunak esaten duenez, "gero eta behar handiagoa dago. Orain etortzen da lehen behar hori zuenik ematen ez zuen jendea. Azkenean, hor ere igartzen da krisia".

Baina igartzen dute ere "janari asko eta asko bota" egiten dela, oraindik ondo egon arren. Hortik dator Elikagaien Bankuaren leloa: *Ematen ez dena galdu egiten da.*

Bergarako larrialdietakoek greba hasi dute, oraingo asteko egubakoitzera arte

- Anbulatorioak zapatuan itxi izanak eta pediatra zerbitzua kendu izanak kalitatea okertu dutela diote
- Larrialdietako zerbitzuan ez du eraginik izango grebak, larrialdiak gutxieneko zerbitzu direlako

Larrialdietako langileak kartelak ipintzen, zapatuan. | U.M.

UBANE MADERA | BERGARA

Osakidetza gaixo dago; nola zainduko du bada gure osasuna?. Larrialdiak ez itxi. Urtebete borrokan. Alarma, Osakidetzari ez zaizkio ez erabiltzaileak eta ezta langileak inporta ere.

Era horretako protesta kartelek betetzen dute Bergarako anbulatorioa zapatuaz geroztik. Larrialdi zerbitzuetako langileen protestaren adierazle dira, eta datozen hiru asteotan, asteka txandakatuz, protesta-greba horrekin jardungo dute, larrialdi zerbitzuen egoera salatzeko.

"Gu ez gara pediatrak"

Osakidetzako zuzendaritzarekin dituzten desadostasunak salatzeko hasi dute greba 12 langileek: "Joan den ekainean anbulatorio batzuk itxi egin zituzten asteburuetan, Oñati, Arrasate, Aretxabaleta eta Eskoriatzakoak, besteak beste. Ondorioz, herri horietako gaixoak ospitalera joaten dira, eta beste batzuk hona datoz. Horrez gainera, lehen eguneko medikuek ematen zuten asteburu goizeko zerbitzua, eta orain guk, larrialdietakook eman behar izaten dugu zerbitzu hori; eta gainera, asteburuko pediatria zerbitzua ere eman behar izaten dugu, eta gu ez gara pediatrak", jakinarazi du Josune Oregik, larrialdietako medikuetako batek.

ESANAK

"Gure lan baldintzek okerrera egin dute"

"Osakidetzako goi-karguen soldatak %12 igo dira"

JOSUNE OREGI | LARRIALDIETAKO MEDIKUA

Lan-baldintzak okertu

Zerbitzuaren kalitatea okertu dela salatzeaz gainera, langileen baldintzak ere okertu egin direla salatu gura dute larrialdietako langileek: "PACetan gabiltzan langileon lan-baldintzek okerrera egin dute nabarmen Osakidetzak hartutako neurri hauekin (lanpostu gutxiago, ordutegi jasanezinak, soldaten murrizketak…) Osakidetzako goi-karguen soldatak, alderantziz, %12ra igo dira!"

Zerbitzuan eraginik ez

Edozelan ere, greba horrek ez du eraginik izango anbulatorioaren zerbitzuan: "Gaixoei berdin-berdin egingo diegu arreta. Gu garenez zerbitzu minimoak, berdinberdin egin behar dugu lan, ezin dugu anbulatorioa itxi. Egingo duguna da anbulatorioan bertan informazioa ipini eta gaixoei informazioa eman".

Kexu orriak idazteko eskaera

Zapatuan bertan hasi ziren eskuorriak banatzen erabiltzaileen artean. Eta informazioa emateaz batera, gaixoen laguntza ere eskatu gura dute protesta-egileek: "Jakinarazi Osakidetzari kexu zaudela. Bete horretarako prestatu ditugun kexu -orriak".

Bergarako kasuan launa medikuk, erizainek eta zaindarik egiten dute lan larrialdietan.

Omenaldi hunkigarri eta jendetsua egin zioten Isaias Carrascori, atzo

UBANE MADERA | ARRASATE

Lore eskaintzarekin hasi eta txalo eta malko artean bukatu zen atzo, domeka, Arrasateko San Andres auzoan Isaias Carrasco zinegotzi sozialistari egin zioten omenaldia.

PSE-EEko aurpegi ezagun asko izan zen Navas de Tolosa kalean, Isaias Carrasco hil zuten lekuan, bere etxe aurrean. Batzuk aipatzearren, Rodolfo Ares Barne Sailburua, Jesus Egiguren sozialisten presidentea, Jose Antonio Pastor Legebiltzarreko PSE-EEko bozeramailea, Rafaela Romero Gipuzkoako Batzar Nagusien presidentea eta Blanca Roncal, Legebiltzarreko presidente-ordea. Eta jakina, Carrascoren alarguna eta haren seme -alabek ere parte hartu zuten ekitaldian.

Atentatu guztiak gaitzetsi

Sandra Carrasco alabak, esaterako, azpimarratu gura izan zuen ETAren amaiera gura duela, baina "ez zerbaiten truke, baizik eta segurtasun indarrek eta epaileek behartu egin dituztelako". Eta azpimarratu zuen, baita ere, ez direla gaitzetsi behar bakarrik hemendik aurrerako atentatuak, orain artekoak ere gaitzetsi egin behar dituela ezker abertzaleak, euren sinesgarritasuna gura badu.

Sandra Carrasco alaba, Rafaela Romero eta amamaren artean. | UBANE MADERA

AHTren Bergara-Bergara zatia esleitu du Jaurlaritzak

IMANOL GALLEGO | BERGARA

Eusko Jaurlaritzak dagoeneko esleitu ditu Bergarako *Euskal Y*-aren zatia egiteko lanak. Bergara-Bergara zatiaren lanak dira. 3.159 metro luzeko tartea da. Ia 3 urte (34 hilabete) dituzte lanok egiteko.

Kukubaso-Ipiñarri ingurutik (Bergara-Antzuola zatiko lanak egiten diharduten puntua) Loidi baserriraino doan zatia da eraikiko dutena. Debarroa gurutzatu eta Angiozarko bailaran barrena doana. Trazatua oso bihurria denez, zubibide eta tunel artifizial ugari egin beharko dituzte.

900 metroko zubia

Eibar-Gasteiz autobidearekin gertatu zen moduan, Ola inguruan Deba ibaia eta GI-632 errepidea zeharkatuko dituen 900 metroko zubibide bat egingo dute. AHTren zubiak 90 metroko altuera izango du eta autobideko beste zubibidetik gertu eraikiko dute.

Zubibide berri hori metalikoa izango da, eta, sustatzaileek diotenez, *Euskal Y*-aren Gipuzkoako zatiko zubibide garrantzitsu, berezi eta egiteko konplikatuena izango da.

Ongi-etorri alaia, atez ateko zerbitzuari

Gaur, astelehena, hasiko dira zaborra atez ate batzeko zerbitzuarekin Antzuolan, baina dagoeneko egin diote ongi-etorria. Egubakoitzean, Txan magoak girotutako ekitaldia izan zen Torresoroan aitzakia horrekin. Aretoa lepo bete zen, neska-mutiko zein gurasoz. Azken horien artean, gehienek ondo ikusten dute atez atekoa, "onerako" izango delakoan. Hala ere, "ikusi egin beharko" dela ere adierazi zuten askok.

UBANE MADERA

Hil amaieran erabakiko dute autobus azkarra jarri edo ez

Arantza Tapia diputatuak aurkeztutako proiektua aztertzen dabiltza udalak

A.TXINTXURRETA-M.BITERI | ARRASATE

Gipuzkoako Foru Aldundiak eskualderako 10 edo 12 minutuan behin zerbitzua emango duen herriz herriko autobus azkarra planteatzen duela esan zuen joan den astean *Goiena magazinea*-n Arantza Tapiak, Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako diputatuak. Ibarreko alkateekin adostasunera helduz gero, Bus Rapid Transit edo autobus azkarraren proiektua errealitate bihur daiteke urtebete barru.

Otsail amaieran batu zen diputatua alkateekin proiektua azaltzeko; eta hil amaieran batzartuko dira ostera ere, martxan jarri edo ez erabakitzeko. Horrekin aurrera egitea adosten baldin badute, agintaldia amaitu aurretik epeak eta kostuak zehaztuta uzteko asmoa du.

Bi zati ditu proiektuak: bata herri artekoa; eta bestea, herri barruetakoa. Tapiak onartu zuen eurei dagokien zatian, hau da, herri artekoan, zaila dela errepideak bikoiztea, eta, hortaz, irtenbideak aztertzen dabiltzala esan zuen; tartean, hainbat zatitan errepide erdian bide bat jartzea edo esandako autobusak lehentasuna izatea bidegurutzeetan eta biribilguneetan. Bestalde, herri barrurako zatietan, tokian tokiko udalek dutela horren ardura jakinarazi du.

Taxi busak beste herriendako

Eskoriatzatik Bergarara eta Oñatira heltzea dago aurreikusita. Horren harira, Tapiak aipatu zuen aztertzen ari direla beste herriendako aukerak: "Antzuola, Elgeta eta Leintz Gatzagarako beste irtenbide batzuk planteatuko ditugu. Taxi-busaren antzeko zerbait".

Bada, alkateek proiektuaren lehen balorazioa egin dute. Bergarako alkate Agurne Barrusoren hitzetan, zaila da bus azkarrari lekua egitea herri barruan: "Kontuan hartuta Bergarako zirkulazioaren arteria nagusia Ibargarai dela, eta horko bide bat autobus azkarrarendako erabili behar bada, eta, gainera, aparkalekuak kendu egin behar badira... Lehen begiratuan erraza, behintzat, ez dut ikusten".

Oñatiko alkate Lourdes Idoiaga "pozik" dago Diputaziotik proposamen zehatza jaso dutelako: "Gure ametsa tranbia jartzea baldin bada ere, badakigu proiektu horrek denbora luzea eramango duela eta denbora tarte horretan lo ez gelditzeko eta bitartean beste baliabide batzuk jartzeko, positiboa iruditzen zait Bus Rapid Transitaren proiektua".

Aretxabaletako alkate Inaxio Garrok ere proiektu horren gainean egin du berba. Gaia oraindik nahiko "berde" ikusten du: "Proiektuaren garapena ere nahiko poliki doa; azken hilabeteetan ia ez dugu informaziorik jaso. Proiektuari behin-behineko itxura hartzen diot, tranbiaren aurretiko proba moduan, eta horretarako pentsatuta geneukan trazatua erabiltzeko asmoa dugu".

ESANAK

"Taxi-busa jar daiteke Antzuola, Elgeta eta Leintz Gatzagan"
ARANTZA TAPIA | DIPUTATUA

"Lehenengo begiratuan erraza ez dut ikusten"
AGURNE BARRUSO | BERGARAKO ALKATEA

"Positiboa da Bus Rapid Transitaren proiektua"
LOURDES IDOIAGA | OÑATIKO ALKATEA

"Tranbiarako trazatua erabiltzeko asmoa dugu"
INAXIO GARRO | ARETXABALETAKO ALKATEA

Titanio mekanikoaren gaineko jardunaldia antolatu du MUk

Mondragon Unibertsitateko Goi Mailako Eskola Politeknikoak titanioaren mekanizazioari buruzko I. jardunaldia egingo du apirilaren 14an Arrasateko Garaia Berrikuntza Gunean. Jardunaldi horren helburua da enpresen arteko harremanak sendotzea eta, bide batez, titanioaren mekanizazioaren eremuan dauden berrikuntzen gainean eguneratuta egotea.

Horren harira, honako gaiak jorratuko dira egun horretan: kontsumoaren joerak, mekanizazioko estrategiak, titanioaren makinagarritasuna eta mekanizazioaren egonkortasuna.

Frankismoko biktimen aldeko omenaldia egin dute Batzar Nagusiek

Joan den eguenean, frankismoak eta Espainiako gerrak eragindako biktimak gogorazteko ekitaldia egin zuten Gipuzkoako Batzar Nagusien egoitzan. Omenaldian, garai hartan Gipuzkoako udalean zeuden karguak izan zituzten bereziki gogoan. Besteak beste, Batzar Nagusiek egindako bideoa ikusteko aukera izan zuten Gipuzkoako 20 udalerritik iritsitako ordezkariek; tartean, Oñatikoek. Ekitaldi berean, Aranzadik egindako eta Batzar Nagusiek editatutako *Gipuzkoa. De Ayuntamientos republicanos a franquistas. 1936-1937* izeneko liburua aurkeztu zuten.

Plazaolaren aldeko manifestazio jendetsua

Astelehen eguerdian atxilotutako bergararrari elkartasuna helarazi zioten ostera ere eguenean

M.B. | BERGARA

Aitziber Plazaola gaztearen aldeko manifestazioa egin zuten eguen ilunkeran Bergaran. *Utzi euskal gazteria bakean, euroagindurik ez!* lelopean, antolatzaileen esanetan 400 lagun inguru irten ziren 19:30ean plazatik. Ibargaraiko palmondora iritsi zirenean, baina, Ertzaintzak manifestazioa egin ahal izateko baimena eskatu zien antolatzaileei; hamar egun lehenago eskatuta ez zegoenez, jakinarazi zieten ezin zutela aurrera jarraitu. Giza katea egin zuten orduan Irala kaleraino, espaloi gainetik. Manifestazioak iraun zuen bitartean, herriko hainbat taberna eta denda itxita egon ziren eta manifestazioarekin bat egin zuten.

Eguenean, Ertzaintzako agenteak baimena eskatzen. | MONIKA BELASTEGI

Martitzenean euroagindua

Izpuran astebetez itxialdia egin ostean, polizia frantsesak joan den astelehen eguerdian atxilotu zuen Plazaola, eta Seysseseko espetxean giltzapetzeko agindua eman zuen Paueko Instrukzio Ganberako epaileak. Segi gazte erakundeko kide izatea leporatzen dio Espainiako Auzitegi Nazionalak. Urria ezkero dago ihes eginda bergararra, beste zazpi gazterekin batera. Martitzenean aztertuko dute atxilotutako gazteen aurkako euroagindua.

"Goi mailako ingeniaritzak oso gutxi igarri du krisia"

MUk egindako jardunaldi batzuetan, Ingeniaritza ikasketen enplegu aukerak aztertu zituzten

Jardunaldietako une bat. | LEIRE KORTABARRIA

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Ingeniaritzak gainbehera aldi bat bizi izan du azken bi urteotan, baina horri "buelta ematen" hasia da. Horrez gain, krisialdia gutxi igarri dute Goi Zikloko ingeniaritzak egin izan dituztenek, eta haien enplegu maila krisi ekonomikoaren aurrekoaren parekoa da. Horixe esan zuen Jon Altuna adituak martitzenean, Mondragon Unibertsitateak antolatutako jardunaldi batzuen harira. Altuna Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoko koordinatzaile akademikoa da, eta jardunaldiotan parte hartu zuten 45 enpresa inguruko ordezkariekin egin zuen berba. Helburua zen Hezkuntzaren Europako Esparru berrian ingeniariek ze enplegu aukera dituzten, eta ingeniaritzaren eginkizuna aztertzea.

Ikasketa-plan berriei, Goi Eskola Politeknikoaren titulazioei eta ikasle batzuek enpresetan egiten dituzten gradu-ikasketen nahiz masterren karrera-amaierako proiektuei buruz gogoeta egin zuten, baita ikasleek ikasketak eta lana aldizkatzeko duten aukerari buruz ere.

Lehengo enplegu maila

Jon Altunaren esanetan, ingeniariek enplegu aukera onak dituzte, batez ere Goi ingeniaritza egin dutenak, eta "eskaera handia dago" Informatika, Elektronika eta Telekomunikazio ingeniariak kontratatzeko, "azken urteotan bokazio falta" egon delako titulazio horietan.

Krisiaren eraginez, "egoera berria" gertatu dela esan zuen Altunak: "Enpresak ingeniariak kaleratzen hasi ziren; batez ere, lehenengo etapako teknikariak, hau da, produkzioarekin lotuak. Komeni da Goi mailako ingeniaritza egitea; izan ere, Goi Ingeniaritzak krisi aurretiko enplegu maila izaten jarraitu du", esan zuen hizlariak. Gaineratu zuenez, Lanbide Heziketako zikloak "oso erakargarriak" izaten ziren gazteondako, baina orain, "enpresek nahiago dituzte kualifikazio handiko langileak".

Bere iritziz, ingeniaritzaren motelaldia behin betiko gainditzea "oso lotuta egongo da Ikerkuntza eta Garapenarekin".

Giza-kapital beharra

Jardunaldietan parte hartu zuten enpresa ordezkariek "giza-kapital aldetik larritasuna" adierazi zuten: "Aurrera atera nahi dituzten proiektu asko dituzte enpresek, eta horietarako ondo prestatutako jendea behar dute. Alde horretatik, MUn presioa igartzen dugu", esan zuen Altunak, eta datu bat eman zuen: " Ikasketa bukaerara pasatzen den ikasle bakoitzeko bi proiektu eskaera izaten ditu MUk".

JON ALTUNA
HIZLARIA

"Gaur egungo ingeniaria ez da lehengoa bezalakoa. Lehen, ingeniariak euren bulegoan edo laborategian egoten ziren, eta denetariko konponbidea izan behar zutela uste zen. Aldiz, gaur egungo ingeniariak lan prozesutik askoz gertuago daude. Horretan zeresan handia dute zeharkako konpetentziek, eta gure ikasleek erabat barneratuta dituzte".

JUAN MANUEL PAGALDAI
IKERLANEKO ORDEZKARIA

"Gure enpresako ingeniariei, lehenik eta behin, lanerako gogoa eskatzen diegu; egunero askotariko gauzak egin eta ikasteko jarrera, hori da garrantzitsuena. Gero: prestakuntza teknikoa, hizkuntzak eta oinarri teorikoa eta zientifikoa ere oso garrantzitsuak dira, jakina. Baina, denen artean, jarrera da gure eskaera nagusia".

Debagoieneko udalen zorra Gipuzkoa osokoaren adina handitu zen iaz

Aretxabaletako eta Gatzagako udalek ez zituzten zor gehiago hartu 2009tik 2010era

L.K. | BERGARA

Debagoieneko udalen zorpetze maila %3,89 handitu da 2009tik 2010era, Gipuzkoako batez bestekoa (%3,8) bezala. Denetara, Debagoieneko udalek 41.019.341 euroko zorrak hartu zituzten iaz, eta, batez beste, 752,75 euro izan zituzten zorretan biztanle bakoitzeko.

Herri bakoitza, mundu bat

Debagoieneko udal batzuk gehiago zorpetu dira 2009tik, eta beste batzuek zor batzuk kendu dituzte. Hala ere, zifra horiek ez dira nahikoa izaten udalen finantza egoera azaltzeko; kontu-hartzaileek ohartarazten duten moduan, denetariko egoerak egon daitezke, eta soilik udal baten zorpetze datuak ikustetik ezin daiteke jakin udal hori ekonomikoki ondo edo eskas dabilen. Esaterako, 2009ko Foru Fondoak saldo negatiboa izan du, eta hori zatika ordaintzeko aukera eman zien Aldundiak udalei; bada, udal batzuek hori mailegu moduan kontabilizatu dute.

Bestalde, esan bezala, herri bakoitzaren egoera desberdina da. Esaterako, Aretxabaletan kiroldegi berria egiteko mailegu handiak eskatu behar izan dituzte.

UDALEN ZORPETZE MAILA, HERRIZ HERRI

HERRIA	2010	ZORRA BIZTANLEKO	2009-2010 ALDEA (%)
Antzuola	3.235.456	1.508	-2,2
Aretxabaleta	8.265.644	1.244	0
Arrasate	8.500.167	387	30
Bergara	11.503.819	780	-12,2
Elgeta	1.019.422	971	-9,3
Eskoriatza	2.258.007	555	-9,9
Leintz Gatzaga	0	0	0
Oñati	6.236.826	577	34,6
Debagoiena	41.029.341	752,75	3,89
Donostia	204.824.560	1.112	6,1
Gipuzkoa	483.995.369	690	3,8

ITURRIA: GIPUZKOAKO OGASUNA

4.000 langabe kontratatzeko, 42 milioiko dirulaguntza onartu du Lanbide enplegu zerbitzuak

L.K. | BERGARA

Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuak 42 milioi euroko laguntza -lerro bat onartu du, langabeak kontratatzea sustatzeko. Neurri hori EAEko ia 4.000 herritarrentzat izango da lagungarria. Horren berri eman zuen eguen goizean Gemma Zabaleta Lanbideko presidenteak.

Laguntzak kotizaziopeko enplegu-prestaziorik jasotzen ez duten langabeei eta diru-sarrerak bermatzeko errenta (DBE) jasotzen dutenei zuzenduta daude, baita gazteei ere. Izan ere, bi kolektibo horiei "izugarri" eragin die krisialdiak, Lanbidek dioenez, eta, beraz, lehentasunezkotzat hartu ditu erakundeak. Laguntzen % 20 gutxienez DBEaren jasotzaileendako izango da, eta %35 gutxienez 18 urtetik 30 urtera bitarteko gazteendako.

Interes orokorreko lanak

Laguntza horiek toki-erakundeek eta haiekin lotura duten edo haien mendekoak diren erakundeek eska ditzakete, baita irabazi asmorik gabeko erakundeek, laneratze-enpresek eta enpresa arruntek ere. Interes orokorreko eta gizarte-onurako jardueretarako emango da dirulaguntza, hala nola teknologia berriekin, ingurumenarekin eta energia berriztagarriekin lotura duten jardueretarako, hezkuntzaren eta osasunaren kultura sustatzeko jardueretarako, hurbiltasun-zerbitzuetarako (beren kabuz moldatu ezin diren pertsonei laguntzea, e.a.), eta komunitaterako zerbitzuetarako (terapia okupazionaleko zerbitzuak, e.a.), besteak beste.

Abenduaren 31ra arte

Erakundeek nahi duten aldirako kontratatu ahal izango dituzte langileak, betiere kontuan izanik dirulaguntzek lanaldi osoko sei hilabeteko aldia hartuko dutela eraginpean. Dirulaguntza emango zaie 2011ko otsailaren 1etik abenduaren 31ra bitartean egiten diren kontratuei.

Pedro Arrazola Unibertsitateko laborategian titanio pieza bat eskuetan duela. | A.E.

Pedro J. Arrazola | Jardunaldietako arduraduna

"Aeronautika sektore estrategikoa da, balio erantsi handia duelako"

▸ MUk titanioaren mekanizazioari buruzko jardunaldiak antolatu ditu apirilerako

▸ Pedro J. Arrazola eta Ainhara Garaik dihardute lehenengo jardunaldiak antolatzen

ARANTZAZU EZKIBEL | ARRASATE

Mondragon Unibertsitateko Goi Mailako Eskola Politeknikoak Titanioaren Mekanizazioari buruzko I. Jardunaldia egingo du, datorren apirilaren 14an. Sektoreko enpresei zuzendutako jardunaldia izango da.

Titanioaren joera ikusita erabaki duzue jardunaldiok egitea.

Azken urteetan ikusi dena da egiten dabiltzan hegazkin berriek gero eta titanio gehiago erabiltzen dutela osagaien fabrikazioan. Boeing 787 *Dreamliner* eta A-380 hegazkinak dira erreferentzia. Titanioaren kontsumoa %6tik %14ra igo da.

Zerk eragin du joera hori?

Batez ere, material konposatuekin bateragarritasun hobea duelako eman da joera hori kontsumoan. Orain arte aluminioa zen gehien erabiltzen zen materiala, eta orain titanioa eta material konposatua erabiltzen da asko. Titanioaren gorako joera argia da, eta badirudi etorkizunean ere joera bera izango dela.

Joera horrek horrela jarraitzen badu, titanioa mekanizatzeko beharra ere handitu egingo da. Pieza asko mekanizatu beharko dira, eta bilatzen dena da baliabide berdinekin pieza kopuru handiagoa egitea.

Nori zuzendutako jardunaldia izango da?

Enpresa industrialei zuzendutako jardunaldia izango da. Beharrak zeintzuk diren aztertu ditugu eta ezagutzaren transferentzia egiteko momentua dela erabaki dugu. Jardunaldi hauen bitartez guk egiten duguna jakitera emango dugu, baina era berean mekanizatu arloan erreferente direnak ere ekarriko ditugu.

Dagoeneko 32 lagunek eman dute izena jardunaldian parte hartzeko.

Titanioa aeronautikaren munduan aztertuko duzue. Ze lotura dauka MUk aeronautikarekin?

"Azken urteetan titanioaren kontsumoa %6tik %14ra igo da"

"Lortu gura dena da titanioarekin fabrikatzea lurreratze-trena"

Argi esango dut, Mondragon taldean ez dago aeronautikara bakarrik bideratuta dagoen sailik. Unibertsitatean, baina, sektore estrategiko bat aeronautika da. Zergatik? beste sektore batzuk baino, automozioa adibidez, balio erantsi handiagoa duelako.

Debagoienean, titanioaren mekanizazioan diharduten enpresa asko daude?

Jardunaldiak aeronautikara bideratuta dauden arren, esan behar da badaudela hainbat enpresa titanioaren mekanizatuan dihardutenak, baina ez aeronautikan. Adibidez, Ulma Forjak hizlari bat izango du jardunaldiotan.

Hegazkinetako osagaiak fabrikatzen dira titanioarekin. Zer, adibidez?

Adibidez, orain gura da titanioarekin fabrikatzea lurreratze-trena. Bestalde, motorraren barruan ere titaniozko piezak daude.

Esan daiteke titanioa dela etorkizuneko materiala?

Askotxo esatea litzateke hori. Hurrengo bost urteetarako joera titanioa eta material konposatuak izango dira.

Adibidez, Airbuseko ordezkariak etorriko dira jardunaldietara. Zeintzuk etorriko dira?

Airbuseko David Gaudillere etorriko da eta *Airbusen titanio mekanizatua, gaur egungo beharrak eta etorkizuneko joerak* hitzaldia eskainiko du. Ainhara Garai eta Mikel Armendia, EPS -MUko ordezkariek ere eskainiko dute hitzaldia.

Etorkizunean ere antolatuko dituzue horrelako jardunaldiak?

Ez da zerbait berria, noizean behin egiten ditugu horrelakoak. Asmoa izango litzateke bi urte barru berriro ere gai honen inguruan jardutea.

ZABALIK

MANU ARREGI
'http://goiena.net/iritzia/'

'Human Planet'

Modan egon zen, garai batean, La 2eko dokumentalak ikusten genituela esatea. Eta modan jarri zen, handik gutxira, gauza bera baina ironiaz esatea. Onartu dezagun: La 2eko dokumentalak jota aspergarriak dira. Edo ziren, hobe esanda. Dezente aldatu delako La 2eko programazioa –bale, ez guztiz, Jordi Hurtadoren klonak hor jarraitzen du eta–. Gero eta sarriago ikusi ahal dira kate horretan dokumental onak. Hitz egin zuten, zutabe honetan, *Obsolescencia programada*-ri buruz eta, ordutik jona, *Flysch, el susurro de las rocas* eta beste zenbait dokumental on emititu dituzte.

Joera orokorra dirudi. Beti ekoiztu ditu BBCk dokumental onak, baina azkenaldi honetan egindakoak benetan bikainak dira. Bi dokumentali buruz nabil, konkretuki: Wonders of the *Solar System* eta *Human Planet*. Brian Cox fisikariak aurkezten du lehena eta, bost ataletan, eguzki sistemari buruz gaur egun dakiguna aurkezten digu, era entretenigarrian eta irudi ederrak erabiliz.

"Istorio solteen bitartez, beste errealitate batzuk erakusten dira"

Baina benetan aparta dena *Human Planet* da. Inoiz egin den dokumentalik onena, nire ustez, eta gizakiari buruz hitz egiten du. Gure mundu "modernoan" bizi gara gu, baina badira gure planetan beste errealitate batzuk, *Human Planet*-ek zortzi ataletan erakusten dizkigunak. Badago jendea, adibidez, zirkulu polar artikoan bizi dena eta urte erdi ilunpean egiten duena. Edota basamorturen batean bizi dena eta ur bila 80 kilometro egin behar dituena. Horiek dira dokumentalaren protagonistak, eta, zenbat istorio solteren bitartez, beste errealitate horiek erakusten dizkigu. Ez pena emateko, haien bizimodua erakusteko baizik. Aurretik ikusi gabeko istorio bitxi eta harrigarrien bitartez.

Ez gaitu *Human Planet*-ek aldatuko eta gure betiko bizitza kontsumistarekin jarraituko dugu. Baina ondo dator noizean behin horrelako errealitate kolpe bat jasotzea.

USTEAK USTE

MIRARI ALTUBE | 'aretxabaleta@goiena.com'

Politikariak ezagutzeko lekua

Politikak gero eta interes txikiagoa du euskaldunon artean, inkesten arabera; eta, gainera, politikarien gainean dugun iritzia ez da batere ona. Neu ere horien artean nago.

Udal hauteskundeak aurrez aurre ditugu eta makina bat kontu entzun beharko ditugu hemendik eta maiatzera, gogaitu artean entzun ere. Politikaren jokoa da. Baina hilabeteotan esango dutenetik harantzago, herrian egiten duten lana da garrantzitsua. Horren ustean nago, behintzat, eta hori ezagutzeko gune aproposa daukagu herritarrok: osoko bilkurak. Zelako udal ordezkariak ditugun ezagutu eta zer egiten duten lau urtean jakiteko topaleku benetan interesgarriak dira.

KALE INKESTA

Gehienezko abiadura 110era jaitsita energia aurreztuko dugu?

MARTA SAAVEDRA
ARRASATE

"Neurri hau energia aurrezteko dela esan dute, baina isun gehiago jartzeko egin dutela uste dut. Neurri honekin ez dugu asko aurreztuko."

UNAI LANA
ARRASATE

"Herritarrei dirua ateratzeko neurria dela uste dut. Inertziaz bada ere, autopistan 120ra joaten jarraituko dugula uste dut."

IMANOL MORENO
ARRASATE

"Ez dut uste 10 kilometro orduko abiadura jaitsita asko aurreratuko dugunik. 110era edo 120ra joanda kotxeek berdin kontsumitzen dute."

SUSANA ANDRES
ARRASATE

"Energia aurrezteko gauzak egitea ondo dago, baina gehienezko abiadura 110era jaistea astakeri hutsa da. Ez dugu ezer aurreztuko."

HANDIK ETA HEMENDIK

Informe Vitoria, 1976

Luis Aranberri Mendizabal
http://eibar.org/blogak/amatino/

"El 4 de marzo pasado, la gira europea del señor Areilza quedó desbaratada y Fraga hubo de ofrecer sus disculpas, poco afortunadas, en Alemania; (el secretario general del partido social-demócrata alemán canceló la entrevista que ambos iban a mantener); y así, la primera gran ofensiva diplomática de la monarquía quedó en agua de borrajas; peor aún, en ridículo. La flamante España de la monarquía seguía siendo la triste España de Franco".

Honelaxe hasten da *Informe Vitoria. Grupo de trabajo Alternativa* deritzon txostena. 1976ko maiatzean argitaratu zen eta, 635 orrialde estu-mestutan zehar, urte hartako urtarriletik apirilera bitartean Gasteizen izan ziren greben inguruan jazotako gertaera guztiak luze-zabal biltzen ditu, martxoaren 3an poliziak tiroz hildako bost langileak tarteko. "Guztiak" esangura du guztiak. [...]

Eraz eta moldez "isilpeko" liburua da. Ez du egilerik aipatzen, ez argitaletxerik, are gutxiago, jakina, lege gordailurik, ISBNik edo horrelakorik ezer. [...] Hala ere, amaieran, irakurleak edozein informazio, iritzi edo kritika nora bidali izan dezan, honako helbidea dakar: *Jean Marie Kosmicki. 30, Rue Vieille du Temple. 75005 Paris.*

Taxuz eta zentzuz, berriz, 1976ko giroaren ispilu da, orduko etenbako jario aldarritsuaren lekuko, luzea, astuna, trinkoa. Gertakariak eta edozenbat zertzelada ezezik, erreakzioak, adierazpenak, agiriak, prentsa-dosierrak eta denetariko xehetasunak zein datu-bilketak metatzen ditu. Beti ere langile-mugimendu zorrotzaren ikuspegitik, alderdi politikoei muzin eginez eta erakundeak uxatuz.

Ezin jakin *Informe Vitoria* haren zenbat ale egin ziren. Are gutxiago zenbat geratzen ote diren egun. Googelen pare bat erreferentzia galdu baino ez dago eta azalaren irudirik ezta bat bera ere, nik dakidanez behintzat. Ostentze hau azken hogeita hamabost urteotako utzikeriaren adierazgarri da. Ez dugu jakin, ez dugu asmatu, ez dugu orduko erantzukizunik eskatu nahi izan.

Belaunaldi errukarria

Anjel Lertxundi Esnal
http://berria.info/blogak/lertxundi/

Egunkaria kasuko inputatuak, infernuko beste geltoki batean, egun batean tunel beltzetik aterako dituen trenaren zain. Kaltea egin eta gero —Kaltea iacta est!—, Juan del Olmoren bidegabekeria biluzik gelditu zen. Estatuak eta hiritarrek ez zuten, ordea, beharrezko gihar demokratikorik erakutsi, eskatuz eta exijituz kalte-ordainak, eskatuz eta exijituz akusazio partikularraren erantzukizuna. Oraingo geltokian *Dignidad y Justicia* erretiratu dute, baina kontu formal bategatik. Nonbait, aurreko geltokian protagonizatutako jazarpena ez zen izan nahiko kausa kasutik apartatzeko. Gertatzen ari dena ulertu nahi dut, baina burura etortzen zaizkidan deskribapen leunenek justizia iraindu izana ekarriko lidakete.

Esku artean daukadan lanak Talmud-era eraman nau. Hango esaldi batek zehaztu dit adierazi ezinik nenbilena:

Ai, belaunaldi benetan errukarria, epaituak izatea merezi duten epaileak dituena!

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
E05 Basabe Poligonoa,
20550 ARETXABALETA
Lehendakaria Estepan Plazaola
Zuzendari nagusia Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate
Erredaktore burua Monika Belastegi
Sailetako arduradunak Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

Asteburuko ediozio arduraduna Ubane Madera
Maketazioa Kepa Martelo, Imanol Soriano.
Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martin, Itsaso Berezibar, Imanol Elortza.
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate
Harpidetza eta banaketa Marta Leturia
Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa.

EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPERA BERGARA 20570: Ibarra, 6
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 12
papera@goiena.com

ORDEZKARITZAK
ARRASATE 20500:
Otalora Lizentziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
arrasate@goiena.com
ARETXABALETA 20550: Durana 11
Tel.: 943 79 86 21 | Faxa: 943 77 18 54
aretxabaleta@goiena.com

Publizitatea Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com
Harpidetza Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 08 10 50
harpidetza@goiena.com
Lege Gordailua: SS-0088/04
ISSN: 1697-3542
Tirada: 5.000 ale.
Difusioa: 4.383 ale.

OJD erakundeak ikuskatutako astekaria.

GOIENAk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK
Gipuzkoako Foru Aldundia · Arrasateko Udala · Bergarako Udala · Oñatiko Udala · Aretxabaletako Udala · Eskoriatzako Udala · Antzuolako Udala · Aramaioko Udala · Elgetako Udala · Leintz Gatzagako Udala

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Gremioen gida



Jatetxeen gida

NEGOZIOA BADAUKAZU, BAINA INORK EZ BADAKI?

Eman ezagutzera zure negozioa Debagoieneko gidetan.

Osasun zerbitzuen gida



Profesional liberalen gida

Iragarkia jartzeko, deitu **943 25 05 05** zenbakira.

UDAL ORDEZKARI IZANDAKOAK

Edorta Zubizarreta | Euskal Herritarrok alderdiko alkate Eskoriatzan (1999-2003)

- Alkate izan aurretik zinegotzi izan zen HBrekin
- Udalaren funtzionamenduan aldaketak izan ziren
- Udaletxea zaharberritu eta liburutegi berria ireki zen

"Praktikan ez zen oposiziorik izan, zinegotzi bakoitzak bere ardura zuen eta horrela oso ondo moldatu ginen"

Edorta Zubizarreta, udaletxe kanpoan, joan den astean. | JOKIN BEREZIARTUA

JOKIN BEREZIARTUA | ESKORIATZA

1995etik 1999ra HBrekin Gazteria zinegotzi izan ostean, Euskal Herritarrok alderdiarekin izan zen Eskoriatzako alkate Edorta Zubizarreta: "Zerrendaburu izatea tokatu zitzaidan", dio. *Haize berriak* izan zen hauteskundeetako leloa; hainbat aldaketa ekarri zituzten Eskoriatzara.

Zein oroitzapen gordetzen duzu alkate izan zinen lau urteez?

Lantalde ona osatu genuen, oso ondo konpontzen ginen. Egin beharrekoak denon artean egiten genituen.

Oroitzapen txarrena, bestalde, su-etenaren amaiera izan zen. Su-etena zegoen sartu ginenean, baina ez zuen aurrera egin.

***Haize berriak* izan zen zuen leloa, eta aldaketaz jositako haize-bolada eragin zenuten. Zeintzuk izan ziren aldaketa nagusiak?**

Ordura arte 12 urte jarraian izan genuen alkate bera Eskoriatzan. Ni eta nire taldea sartu ginenean, Udaleko jarduna beste era batera antolatzeko ideiarekin heldu ginen. Barne antolaketa aldatu egin genuen: lau batzorde nagusi –Hirigintza, Kultura, Gizarte Ongizatea eta Ogasuna– osatu eta horien azpian beste batzorde batzuk sortu genituen. Gaiak azpibatzordeetan lantzen ziren batzordeetara eramateko. Gero, batzordeetan hartzen ziren erabakiak. Aldaketa horren helburua zen batzordeetan erabaki finkoak hartzea.

Praktikan ez genuen oposiziorik izan. Zinegotzi bakoitzak bere ardura zuen, eta, alde horretatik, funtzionamendua ona izan zen. Egun, modu berean funtzionatzen du; seinale ona da.

Hainbat proiektu gauzatu ziren zure agintaldian. Udaletxea zaharberritu egin zen, esaterako.

Gure agintaldiko proiektu nagusia izan zen udaletxea zaharberritzea. Zahartuta geratu baino gehiago, herritarrei begira ez zen egokia. Eraikinaren antolamendua ez zegoen batere ondo. Irisgarritasun aldetik ere desegokia zen; finean, aldatu beharra zegoela erabaki genuen. Bada, proiektu horri eutsi genion. Oso ondo geratu dela deritzot, orain askoz erabilgarriagoa da herritarrendako. Udaletxearen zaharberritzea aprobetxatu genuen Udalaren irudi korporatiboa ere berritzeko. Udaletxe modernoak irudi modernoa behar zuela uste genuen.

Liburutegi berria ere ordukoa da.

Liburutegi zaharra kultur etxeko areto baten zegoen eta txiki geratu zen. Irtenbideak aztertzen hasi eta Luis Ezeizako Haur Hezkuntzako eraikinean pentsatu genuen, beheko solairuak hutsik geratu behar zuelako. Oso txukun geratu da, eta hainbat eskoriatzarrek erabiltzen dute.

2003ko apirilaren 30a: udaletxe eta irudi korporatibo berriaren aurkezpena.

"Su-etenak ez zuen aurrera egin; hori da gordetzen dudan oroitzapen txarrena"

"Udaleko jarduna beste era batera antolatu genuen; egun, hala dabiltza"

Eta agintaldi amaieran zabaldu zen egun Ibarraundi museoa dena.

Museoa lokal txiki baten zegoen eta baserria Udalaren esku geratu zenean zaharberritu egin zen. Gero, museoa hara eraman genuen. Ikasle gaztetxoendako museoa da, batez ere. Unitate didaktiko batzuk lantzeko hainbat ume etortzen dira gurera, Euskal Herri osotik. Turismorako ere beste irtenbide bat da.

Irisgarritasun plan garrantzitsu bat ere gauzatu zenuten, ezta?

Batzorde bat sortu genuen, Eskoriatza ez zela batere irisgarria ikusita. Plan bat abiatu genuen, eta San Pedro auzoa eta Gorosarri plaza irisgarriago egin genituen. Lan handi eta ona egin zen.

Kultura eskaintza indartzea izan zen beste apustuetako bat.

Kultura batzordetik hainbat ekintza antolatzen hasi ziren, San Viatorko gela aprobetxatuz. Ordutik hona asko indartu da eskaintza, eta egun, areto berri baten beharra dago; Zaldibar aretoa indartze horren ondorioetako bat da.

GAURKOTASUNA
GOIENA TELEBISTA | TERTULIA | GAURKOTASUN KONTUAK HIZPIDE
MARTXOAK 9, 20:45 | MONIKA BELASTEGIK AURKEZTUA
BABESLEA: LILURA EDERTZE INSTITUTUA

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA goiena

HERRIAK

BERGARA

Umeen liburutegia kultura etxeko beheko solairura eramango dute

- KZgunea Irizar jauregira bueltatuko da, eta haren lekuan ipiniko dute umeen txokoa
- Helburua da umeei eta gurasoei zerbitzu hobea ematea, espazioa hobeto antolatuta

LEIRE KORTABARRIA | BERGARA

Bergarako umeek zerbitzu eta leku egokiagoak izango dituzte laster liburutegian. Izan ere, Udal Gobernuak onartu du umeen txokoa Errotalde jauregiko behe-solairura pasatzeko asmoa, gaur egun KZgunea dagoen lekuan, alegia. Helburua da bai umeei baita gurasoei ere zerbitzu hobea eta osatuagoa ematea.

Lekuz aldatuko dute haurren txokoa "lehenbailehen", Udaleko Kultura zinegotzi Mikel Elkoroberezibarren arabera: "KZgunea Irizar jauregira bueltatuko da laster, eta hark utzitako lekua egokitzen hasiko gara".

Ume batzuk, liburutegiko euren txokoan. | LEIRE KORTABARRIA

Diru-laguntza eskatuko du

Oraindik proiektua egitea falta da, baina Kultura zinegotziak aurreratzen du gaur egungo altzariak eta ekipamendua erabiliko dituztela, eta dena "hobeto antolatuta" egongo dela, erabiltzaileen premia guztiak kontuan hartuta: ikasteko eta eskolako lanak egiteko lekua, egoteko eta irakurtzeko txokoa...

Zerbitzu berrian, Txiki Txoko edo 0-6 urte artekoendako leku berezi bat egongo da; eta beste espazio bat 12 urtera artekoendako. Funtzionamendua oraingo berbera izango da.

Oraindik ez dago aurrekontu zehatzik, baina Udalak diru-laguntza bat eskatuko dio Eusko Jaurlaritzari, eta umeendako dokumentuen fondoa handitu egingo duela ere esan du.

Iristeko arazorik ez

Gurasoendako ere mesede izango da leku aldaketa: "Ume-kotxearekin-eta etortzen direnek ez dute iristeko arazorik izango", dio Elkoroberezibarrek. Gogoratu behar da oraingo haur-liburutegia lehenengo solairuan dagoela, eta ez dagoela igogailurik Errotalde jauregian.

Azkenik, helduen liburutegiko erabiltzaileen onerako ere izango da: haurren txokoa haren beste aldean dago, eta umeen joan-etorriek, zaratek... batzuetan traba egiten zieten erabiltzaileei.

Gero eta liburu gehiago

Eragozpenak eragozpen, orain dagoen lekuan, haurren txokoa umeen eta gurasoen gustukoa da, arduradunen esanetan, eta zerbitzuarekin pozik daude, oro har. Baina zerbitzua hobetu beharra ikusi zen.

Leku berrian, espazioa hobeto antolatuta, helburuak ere hobeto bete ahal izango dira: batetik, irakurzaletasuna bultzatzea eta horretarako ekintza batzuk ere antolatzea; eta, bestetik, ume eta gaztetxoek eskolako lanak egiteko toki aproposa eta kontsultak egiteko bidea ematea.

Ume eta gurasoek gero eta liburu, DVD eta bestelako dokumentu gehiago dituzte aukeran haurren liburutegian, eta egunero gehiago sartzen doaz.

Bestalde, gaur egun haurren zerbitzuak hartzen duen gela ikasteko gune gisa antolatuko dute, helduen liburutegiko erabiltzaileendako.

"Egokiena Seminarioa da"

Liburutegiaren gaiaren harira, Kultura zinegotziak azpimarratu nahi izan du benetako helburua beste bat dela: "Helburua da liburutegia Errege Seminarioan kokatzea. UNEDekin permuta egitea eskatu genuen, Arrizuriaga etxearen eta Seminarioaren egoitzaren artean, eta onartuta dago Osoko Bilkuran; alderdi guztiak horrekin ados gaude, EAJ izan ezik". Hortaz, Elkoroberezibarrek aprobetxatu du EAJri eskatzeko "onartu dezala Udalbatzak onartu zuena".

Mikel Elkoroberezibarren esanetan, gaur egungo liburutegian aldaketak egitea "petatxuak" ipintzea da. "Egokiena da Errege Seminarioaren eraikinean ganorazko liburutegi bat jartzea", esaten du. Bere esanetan, liburutegiaren erabiltzaileendako leku hobea izateaz gain, "liburutegia han egoteak bizitasuna emango lieke inguruko hainbat lekuri: Munibe plazari, Ibargarai kaleari edo Irala kaleari, adibidez".

ESANAK

"Ume-kotxearekin datozen gurasoek ez dute irisgarritasun arazorik izango, beheko solairuan egongo da-eta"

"Helburua da liburutegia Seminarioan izatea; gainera, bizitasuna emango die inguruko kaleei"

MIKEL ELKOROBEREZIBAR | UDAL KULTURA ZINEGOTZIA

Sekula baino jende gehiago eta mozorro landuagoak

- Mozorro eta karroza benetan originalak atera dituzte kalera egunotan debagoiendarrek
- Lehiaketetako epaimahaikideek azaldu dute aurten inoiz baino zailagoa izan dela irabazleak aukeratzea

Orgullo gay taldearen karrozak dantzan ipini zuen Durana kalea; Gay eta lesbianen harrota

Ijito koadrilaren Jaguar autoak sekulako zarata atera zuen. | J.A.

Tiropitx

ARRITXU BARRUSO | ARETXABALETA

Aratusteekin batera zoramena iritsi da aste bukaeran Debagoienera: kolorea, musika, festa giroa eta gogoa, eta batez ere originaltasuna. Izan ere aurten demostratu dugu ez diegula zertan inbidia handirik izan behar Tolosako Aratusteei. Debagoiendarrek buruari eragin eta mozorro eta karroza ikusgarriak atera dituzte kalera.

Drag Queen eta ijito artean

Aretxabaletan Aratusteekin batera Gay eta Lesbianen Harrotasun Eguna ere ospatu zuten domekan. *Orgullo Gay* taldearen karroza *martxosoak* Durana kalean sekulako giroa ipini zuen. Herriko plazan ikurrina beharrean gainera, koloreetan bandera ere ipini zuten.

Doinu lasaiagoak zituen UDA taldekoen karrozak. Horiekin Txinara bidaiatu genuen. Aratusteetako lehiaketako lehenengo postua lortu zuten eta merezitakoa gainera, Txinako harresia bera ere ekarri zuten-eta.

Drag Queen, txino, ijito, zonbi eta abarren artean politikariak ere etorri ziren Aretxabaletara. Mariano Rajoy eta Esperantza Agirrek, eskutik helduta, Alderdi Popularrarendako botoa eskatu zuten bozgorailuetatik *Zapatero fue un error* zioen abestia entzuten zen bitartean.

Zonbiak han eta hemen

Arrasate berriz, zonbiek hartu zuten zapatuan eta ileak puntan ipintzeko moduko zauriak erakutsi zituzten. Hain justu ere zonbien karrozak irabazi zuen karroza onenaren saria.

Musika, berriz, tunoen eskutik etorri zen Arrasaten. Benetako instrumentuekin eta ahots ederrarekin *Clavelitos* eta *Guapa, guapa, guapa* bezalako abestiak gustura entzun zituzten askok eta askok.

Herriko txirrindulariak ere atera ziren kalera eta dopingaren gaia puri-purian dagoen honetan erakutsi zuten oso erraz egin daitezkeela odol-transfusioak.

Akziozko filmetan bezala

Aramaion txirrindularirik ez, baina Harrisonen gizonek sekulako espektakulua eskaini zuten herriko plazan. Auto ikusgarriekin eta metraileta, pistola eta tiroen artean akziozko film batera eraman zituzten plazan elkartutako guztiak.

Akzioa eta burrunba ekarri zuen baita ere Bergaran Santakoko armadak. Kaleak aldenik alde hartzen zituen tanke erraldoiarekin herriko jaun eta jabeak zirela argi utzi zuten.

Aratuste benetan dotoreak

Mozorroak eta karrozak ezberdinak izan diren arren, Aratusteek ezaugarri bera izan dute aurten herri guztietan: sekula baino jende gehiago mozorrotu dela eta mozorroak inoiz baino landuagoak izan direla. Aretxabaletan, esaterako, 30 taldek hartu zuten parte domekako desfilean eta lehiaketako epaimahaiko kideek azaldu zuten inoiz baino zailagoa izan dela irabazleak aukeratzea: "Hamar talde saritu behar genituen eta hamabost talderen artean zalantza handiak izan ditugu".

Eskoriatzan ere gauza bera gertatu zaie: "Aho zabalik geratu gara aurten. Ikusgarria izan da zelako lana hartu duten herritarrek. Zoramena izan da. 25 taldek hartu dute parte lehiaketan eta oso zaila izan da irabazleak aukeratzea".

Herri bazkari eta afariek ere sekulako arrakasta izan dute. Arrasaten, esaterako, 600 lagun elkartu ziren, Eskoriatzan 280 eta Aramaion 75. Argi geratu da Debagoienean ere maila handiko Aratusteak ditugula.

MIREN ETA EIDER
SAHARARRAK

"Saharatik Arrasatera etorri gara inauterietan egun pasa. Gameluekin hiru egun behar izan ditugu honaino heltzeko eta kilometro asko egin behar izan ditugunez, pixka bat nekatuta iritsi gara. Hala ere, oso pozik gaude ondo heldu garelako eta gainera, hemen urarekin ez ditugu horrenbeste arazo. Giro bikaina dago eta gaur parranda on bat botatzeko intentzioarekin gaude."

IRATI, NEREA ETA LAGUNAK
LADY KAGA

"Musika jarri eta dantzan ari gara egun guztian Eskoriatzan; primeran gabiltza. Horrela mozorrotzearen ideia gurasoena izan da, eta karroza dotore hau eurek egin dute, gainera. Lan handia egin ostean oso polita gelditu da eta guk, gaztetxook, koreografiak prestatu ditugu. Goizean goiz hasi gara parranda egiten, eta gauera arte luzatzeko asmoarekin gaude, gainera."

POTTOKIEN NESKA KOADRILA
BERGARA

Urteroko klasiko bat izaten da pottokien mozorroa. Bada aurten ere Bergaran izan dute pottokien bisita: "Beti gustatu izan zaigu mozorro hori eta aurten azkenean ere animatu egin gara. Guztiok jantzi berdina daukagu, baina batzuk aurpegia margotu dugu eta beste batzuk ez. Arratsaldean goiz irten gara kalera, baina seguruenik ez dugu kalejiran parte hartuko", kontatu ziguten.

asun eguna zirudien momentu batzuetan. | JOSETXO ARANTZABAL

Beldurra emateko moduko zonbia. | J.A

Txakurrak ere mozorrotuta. | J.A

Safary taldeko txikitxoa. | J.A

Kintoen urteroko txino-dantza egin zuten. | J.A

Rajoy eta Esperantza Agirre kanpaina egitera etorri ziren Aretxabaletara. | J.A

oia ere eraman zuten Aretxabaletara. | J.A

UDAkoek beste behin ere aho zabalik utzi zituzten herritarrak egindako karroza ikusgarriarekin. | J.A

TIROLDAR LAGUN TALDEA
BERGARA

Jantziak oso ondo landuta zituzten arren, garagardoa beharrean ardo beltza edaten topatu genituen tiroldar hauek: "Apur bat arraroa den arren, tiroldar ardozaleak gara gu", kontatu ziguten. Eguerdian lagun arteko bazkaria egin zuten, baina gauean oraindik dantzarako eta festarako indarrarekin eta gogoarekin jarraitzen zuten guztiek.

OSKAR GONZALEZ ETA LAGUNAK
PARRANDA ZIRKOA

"Mundu mailan dagoen zirkorik onena ekarri dugu Arrasatera. Gainera, Eroski ondoan dagoen zelaian emanaldia eskainiko dugu eta espero dugu herritar ugari bertaratzea. Zirkoan lanean profesional asko gaude eta 100dik gora ikuskizun ditugu prestatuta. Forman egoteko espinakak jaten ditugu eta *fitness* pixka bat ere egiten dugu, baina gaurko ikuskizunaren ostean, festarekin gozatuko dugu."

AMAIA, UXUE, LEIRE, ARANTZAZU ETA LAGUNAK
MARINELAK

"Koadrilan nola mozorrotu pentsatzen hasi ginenean ideia desberdinak genituen eta azkenean marinel mozorrotzea erabaki genuen guztion artean. Jantziak erosi egin ditugu eta ondo pasatzeko asmoarekin gaude. Hala ere, parranda handiegirik ezin izango dugu bota, izan ere, bihar ikastolara joan behar gara. Biharko eguna jai izaten bagenuen hobeto egongo litzateke, baina ahal dena aprobetxatuko dugu."

Aramaioko suhiltzaileek benetako sua itzali behar izan zuten. | J.A.

Arrasateko suhiltzaileak salbatu berri zuten gizon batekin . | J.A.

Bergarako alkatea *hippie* jantzita . | J.A.

Antzuolako dantza-saioa hartza eta tximinoarekin. | J.A.

Operako fantasma. | J.A.

Aramaioko gaztetxo bi. | J.A.

Santanako armadak Bergarako kaleak hartu zituen iluntzean. | J.A.

Transfusio eta guzti. | J.A.

Luzaideko dantzak Oñatin. | J.A.

Arrasateko *hippie* gaztetxoek mozorro koloretsua aukeratu zuten. | J.A.

Superfregona super-heroiek sekulako arrakasta izan zuten Bergaran. | J.A.

Bergarako Aratusteetako kontzertuak udal pilotalekua lepo bete zuen. | J.A.

Gatzagan ere sekulako giroa izan zuten zapatuan. | J.A.

Arrasateko super-heroi ganberroak. | J.A.

Eskoriatzan Lego pieza bat baino gehiago aurkitu genituen. | AMAIA TXINTXURRETA

Arrasateko tunoak, *Clavelitos* abestia kantatzen zuten bitartean. | UBANE MADERA

Mozorro onenak saritu dituzte

Urtero moduan, mozorro lehiaketak egin dituzte Debagoieneko herrietan. Datozen lerroetan dauzkazue sarituen izenak.

ARETXABALETA
Nagusien mailan honako taldeak saritu zituen epaimahaiak hurrenez hurren: *China Town, Orgullo Gay, Euskotraz, Ferrary* eta *Aragon*. 16 urtetik beherako talde sarituak, berriz, honakoak izan ziren: *Disney*, *Safary*, *Sagardotegia*, *Waka-Waka* eta *Taxiak*.

ARRASATE
Karroza onenaren saria zonbiek irabazi zuten Arrasaten eta koadrila onenaren saria, berriz, *Termitek* tuno mozorroarekin. Benetako instrumentuekin *Clavelitos* bezalako abestiekin girotu zuten herri bazkaria. Tabernen lehiaketa, bestetik, Dat tabernak irazi zuen *Walking Dat* mozorroarekin. Tabernako arduradunek azaldu dute hilabeteko lana izan dutela taberna horrela prestatzen.

ESKORIATZAN
Epaimahaiak erabaki zuen talde originalenak izan zirela *Euskal mitologia*, *Ospitalearen alde* eta *Suhiltzaileak*. Banakako saria, berriz, *Ostruka*-rendako izan zen. Azkenik, 16 urtetik beherakoen artean honakoak izan ziren sarituak: *Eskoriatzako Telepizza*, *Baserria* eta *17 Dalmata*. Eskoriatzan guztira 25 taldek hartu zuten parte mozorroen desfilean.

ARAMAIO
Sekula baino mozorro eta karroza landuagoak izan dira aurten Aramaion. Mozorro originalaren saria irabazi zuten *Autotxokeak* eta *Swat: Los hombres de Harrison* taldeek. 14 urtetik beherakoen saria irabazi zuen *Aramaio en el pais de las maravillas* taldeak eta 14 urtetik gorakoena *Pailazoak* taldeak.

Aspaldiko Aratusterik jendetsuenak ospatu dituzte Debagoieneko herrietan

Zapatuan antzematen zen dagoeneko jendea gogotsu zetorrela aurtengo Aratusteetarako. Herrietan egindako kalejiretako eta herri-bazkarietako eta afari-herrikoietako parte-hartzeek erakutsi zuten hori: 600 lagun Arrasateko herri-bazkarian, 75 Aramaiokoan eta "herri guztia", Leintz Gatzagakoan, adibidez. Atzo, domeka ere, gauza bera gertatu zen Aretxabaletako Aratusteetan, Durana kalea lepo, plaza ere bai... izan ere, urtero moduan, aretxabaletarrez gainera, inguruko herrietako bisitariek ere hartu zituzten atzo Aretxabaletako kaleak. "Atzo Aramaion ibili eta gero, gaur Aretxabaletara etorri gara", kontatu zuen, adibidez bisitari horietako batek.

Eta Aratusteak jendetsuak izateaz gainera, kalitatezkoak izan direla ere ikusi da aurten. Kalitatezkoak mozorroei eta haien prestaketei dagokienez. Izan ere, mozorro landuak, originalak eta irudimentsuak ikusi dira Debagoieneko kaleetan, batzuk hilabeteak lehenago prestatzen hasitakoak, koreografia, musika, dantza eta guzti, ordu askoren entseguen erakusle.

Bestalde, Aratusteak jendetsuak izan diren ikur okerra Arrasaten aurkitu genuen domeka goizean: kaleak zikin-zikin. "06:00etan desastre hutsa zen. Kristalak, Eroskiko karrotxoak, kartoiak... kristalei dagokienez, igartzen da bai, kanpoan erre behar dela orain. Askoz gehiago batu ditugu. Eskuz hasi gara hori guztiori batzen, eta 10:00etarako 50 bat zabor-poltsa gehi edukiontzi batzuk beteta genituen", kontatu dute Txus eta Jon kale-garbitzaileek.

Zonbiak, suhiltzaileak eta sevillanak izan dira mozorro errepikatuenak Aratuste hauetan

Asteburu honetan Debagoienean suterik gertatuz gero, ez litzateke arazorik egongo sua itzaltzeko. Han eta hemen suhiltzaileak ikusi ditugu: Aretxabaletan, Arrasaten, Aramaion... Azken honetan gainera, suhiltzaile gaztetxoek benetako sua itzali beharra izan zuten herriko plazaren erdian, eta benetako profesionalen modura egin zuten.

Dena dela, aurtengo Aratusteetan mozorroren bat errepikatu bada hori zonbiena izan da eta gehienetan gainera, ileak puntan ipintzeko moduko makillajeak, jantziak eta efektuak ikusi dira. Jakin dugu Arrasateko zonbietako batzuk zapatuan goizeko zortzietan elkartu zirela aurpegiak margotu eta mozorroa prestatzeko. Aretxabaletako mozorroen kalejiran ere ikusi genituen zonbiak kalean aldenik alden ibilera traketsekin.

Polizia, militar, Ertzain, Guardia Zibil eta edonolako segurtasun indarrek ere arrakasta handia izan dute aurten. Bergaran, esaterako, ikusgarria izan zen Santana armadak prestatu zuen tanke erraldoia. Ertzaintzak ere ikusi genituen tabernaz taberna eta jakin badakigu batek baino gehiagok ezustekoa hartu zuela. Aramaion berriz, Harrisonen gizonek sekulako espektakulua eskaini zuten.

Segurtasun indarrak alde batera utzita, eta batez ere Bergaran, Andaluziako jantzi tradizionalak izan dira jaun eta jabe aurten. Irala kalea *sevillana*, *kordobes* eta toreatzailez beteta zegoen zapatu iluntzean. Erroziotik iritsi berri zen koadrila ere bazegoen.

Biteri plazan baloiarekin eta patinetearekin ezin dela jolastu gogorarazi dute

Udalak kartel berriak ipini ditu asteon; aurrekoak baino altuago ipini dituzte apurtu ez ditzaten

ARRITXU BARRUSO | ARRASATE

Arrasateko Udalak 2009ko azaroan hartu zuen erabakia: Biteri plazan, aurrerantzean, ezingo da baloiarekin jolastu eta bizikletarekin eta patinetearekin ibili.

Polemika dezente eragin zuen erabakia izan zen. Udalak inguruko bizilagunen kexa asko jaso zituen; herritar horiek kexu ziren plazan jolasean ibiltzen ziren gazteek zarata asko ateratzen zutelako eta bizikletan zein patinetean abiadura handian ibiltzen zirelako. Kexa horiek jasota eta herritarren segurtasuna bermatzeko, Udalak erabaki zuen baloiak, bizikletak eta patineteak debekatzea Biteri plazan. Hori horrela, 2010eko otsailean debekuaren berri emateko kartelak ipini zituzten.

Udalak kartel berriak ipini ditu asteon. | A. BARRUSO

Kartel berriak

Udalaren erabakia ez zen guztien gustukoa izan eta Biteri plazan ipini zituzten kartelek denbora gutxi iraun zuten; aste batzuren buruan apurtu egin zituzten, eta desagertu egin ziren.

Debekua gogorarazteko Udalak asteon kartel berriak ipini ditu Biteri plazan. Oraingo honetan gainera, kartelak faroletara lotu dituzte eta altuago ipini dituzte horiek apurtzea zailagoa izan dadin.

Herritarren segurtasuna

Udaletik azaldu dute baloiak, patineteak eta bizikletak debekatzearen arrazoia dela herritarren segurtasuna bermatzea, gazteak askotan abiadura bizian ibiltzen direlako. Horrez gain, gazteei gogorarazi nahi izan diete patinetean ibiltzeko Zaldibarko gunea dutela.

Parkingeko tarifak gora, BEZaren igoerak eraginda

Udala plazako pintadak eta plaka kentzeari buruzko epaia jakinaraziko dute astelehenean

UBANE MADERA | ARRASATE

BEZaren %16tik %18ra arteko igoera dela-eta, udalbatzarrak herriko lur azpiko parkingen prezioak igotzea onartu zuen joan den egueneko osoko bilkuran. Honela geratzen dira aurrerantzean: 0,033 euro minutuko; egunez hileko 62,22 euro; gauez hileko, 47,36 euro; asteko bonoa (24 ordu) 39,10 euro eta hileroko bonoa (24 ordu), 96,36 euro.

Aparkaleku plaza bat , berriz, 15.198,09 euro kostatuko da, hilero 16,50 euro.

Etxebizitza gehiago

Horrez gainera, Uribarri esparruko Egitamu Bereziaren aldaketa bat ere onartu zuen udalbatzarrak. Horren arabera, gehitu egiten da bertan eraiki daitekeen etxebizitza kopurua, 35etik 40ra. Sukia eraikitzen dabilen etxe-bloke bati dagokio aldaketa.

Pintadak kendu behar

Bestalde, udal gobernuaren gaurko batzarrean, astelehena (15:00), Udala plazako pintadak eta plaka izango dituzte berbagai bestelako gaien artean. Hain justu, Donostiako Administrazioarekiko Auzietako Epaitegiak plaka zein pintadak kentzearen gaineko epaia bidali duelako Arrasateko Udalera.

UBANE MADERA

Biurtu zaharra botatzen hasita

Biurturen pabilioi zahara, ospitalearen atzeko aldekoa botatzen hasi dira. Kanpoko aldetik larregi igartzen ez den arren, barruko aldeko zati handia bota dute dagoeneko. Eraispen proiektuaren arabera, beste pare bat astean garbi utzi beharko dute gune hura. Udalaren asmoa da behin pablioia bota eta obra-hondakinak batuta, lurra zapaldu eta gunea txukun uztea, etorkizunerako. Oraindik zehaztu barik dute erabilera.

200 sarrera inguru gelditzen dira datorren zapatuan Bebek Amaian emango duen kontzerturako

A.B. | ARRASATE

Emakumeen Egunak markatuta dator martxoko kultura egitaraua. Martxoaren 8an *Ellas bailan solas* antzezlana eskainiko du Pikor Teatro taldeak Seber Altuben (18:00etan). Hilaren 23an berriz, Itziar Ziega idazleak *¿Que es eso del transfeminismo?* hitzaldia emango du Kulturaten.

Musikari dagokionean ere emakumeenganako indarkeriaren kontrako abesti batek ezagun bilakatu zuen artista izango dugu Amaia antzokian. Bebek kontzertua eskainiko du datorren zapatuan, martxoak 12, Amaia antzokian (20:00).

Ama izan berritan, kantari espainiar ezagunak Y. lana aurkeztuko du bere kantu mitikoekin batera. Gainera aurreratu du disko berria prestatzen dabilela: *Mas Barbaro*. Sarrerek 25 euro balio dute eta *www.kutxa.net* webgunean daude salgai.

Bebek *Y.* azken diskoa aurkeztuko du Amaia Antzokian. | GOIENKARIA

Hika tailerrean izena emateko epea barikura arte zabalik

A.B. | ARRASATE

AED elkarteak hika ikasteko tailerra antolatu du. Interesa dutenek eta oraindik ere izena eman ez dutenek aste honetan dute horretarako aukera. Izan ere, hasiera batean apirilaren 4an amaitzen zen izenemate epea, baina AEDk erabaki du epea datorren egubakoitzera arte, martxoak 10, zabaltzea.

Oraindik zehazteke dago eskolak martxoaren 11n edo 12an hasiko diren; izena ematen dutenen artean erabakiko dute. Ikastaroa 20 ordukoa izango da eta eskolak egubakoitz arratsaldetan eta zapatu goizetan izango dira.

Bazkideek 50 euro ordaindu beharko dituzte eta gainontzekoek, berriz, 55 euro.

Interesa dutenek bi aukera dituzte izena emateko: 943 77 12 28 telefono zenbakira deitu dezakete edo bestela *aed@aedelkartea.com* helbidera idatzi.

Kasino elkarteak batzarra egingo du eguaztenean, baina ez du tabakoaren gaineko konturik landuko

Eguaztenean, martxoaren 9an egin dute hitzordua Kasino elkartearen ohiko batzar orokorra egiteko. 18:00etan da lehen deia, eta 18:30ean, bigarrena. 140 bazkide daude deituta. Gaien artean, euskara bultzatzeko planarekin aurrera egitea bozkatuko dute bazkideek. Landuko ez dutena, berriz, da tabakoaren gainean erre daitekeen edo ez erabakitzearen gaineko puntua, "momentuz inork ez du eskaerarik aurkeztu", adierazi dute elkartetik.

OHARRAK

EUSKO ALKARTASUNA

Ohiko Hiri Batzarrerako deia egin du Arrasateko Eusko Alkartasunak eguaztenerako, martxoaren 9rako. 19:00etan da hitzordua, Alkartetxean. Udal hauteskundeak landuko dituzte alderdikideek.

UARKAPE TABERNA

Uarkape taberna eta frontoia kudeatzeko zerbitzua lehiaketa publikora aterako da. Frontoia zaindu eta garbitu beharko da eta tabernaren ustiaketaz arduratu. Interesa dutenek kiroldegira jo behar dute.

Jeltzaleak: "Kale garbiketarekin arazo gordina sortu du Udal Gobernuak"

- EAJk salatu egin du Udal Gobernua osatzen duten Ezker Abertzalearen eta Aralarren jokamoldea
- Ez dute hobekuntzarik ikusten zerbitzuan, ezta dirua aurrezten denik Udal Gobernuak dion moduan

IRATI GOITIA | BERGARA

Irailean Bergarako Udalak kaleak garbitzeko zerbitzua bere gain hartu zuen. Ordura arte, Cespa enpresak ematen zuen zerbitzu hori.

EAJ hasieratik aurka

EAJ hasieratik azaldu zen Udalak zerbitzua bere gain hartzearen aurka.

Jeltzaleen iritziz, ordura arte zerbitzu hori eskaintzen zuen CESPA enpresak lan txukuna egiten zuen eta horren adierazle hartzen dituzte 2010ean eginiko inkesta bateko datuak; herritarrek 6,5eko balorazioa ematen zioten arlo horri. Horretaz gain, Udal Gobernuak arrazoitzen zuen dirua aurreztuko zuela erabaki horretan igoera eman dela eta langile kopurua ere gehitu egin dela.

A. Amasorrain, R. Amasorrain, M. Barrena eta J. Arrieta zinegotziak. | I.A.

Kale garbitzaileek egun bizi duten egoera txarra ere azpimarratu nahi izan dute, bai epaiketara jo zuten lau langileen egoera eta baita zalantzan dauden langileena ere.

Gogoratu behar da lau kale garbitzailek epaitegietara jo zutela kaleratze desegokiagatik. Izan ere, zerbitzua Udalak hartu zuenean, langileek aldi baterako kontratua sinatu zuten Udalarekin, oposizio publikoak gainditzeko baldintzarekin. Urgentziazko adostasuna izan zen hori. Akordio horrekin ados ez, eta lauk ez zuten kontratua sinatu. Ondorioz, Udalak kaleratu egin zituen. Horren harira jarri zuten lau kale garbitzaileok salaketa eta epaia euren aldekoa izan zen.

Gainontzeko langileetako zenbaitzuk, beste lau kale garbitzaileen epaiaren emaitza zein izan den ikusita, bide bera jarraitzeko asmoa dutela azaldu dute jeltzaleek. Horrek Udalari kalte ordainetan kostu handia ekarriko diola ere kritikatu dute EAJkoek.

Orain, Udalak zerbitzua bere gain hartu zuenetik sei hilabete pasa direnean, EAJko kideek euren usteak bete direla diote: "Ez dugu hobekuntzarik ikusi zerbitzuan, eta ez da dirurik aurreztu".

Udalak dirurik aurreztu ez duela esateko, datu batzuk eman dituzte jeltzaleek. Esan dute zerbitzua CESPAk emanda 2010eko kale garbiketaren gastua 635.000 eurokoa izango zela eta Udalak bere gain hartuta 2011ko aurrekontuan kale garbiketarako 736.000 euro bideratu direla. Beraz, gastua dezente igo dela, nahiz eta jeltzaleek onartu duten jakitun direla kale garbitzaileen soldakin, baina jeltzaleek hori ez zuten sinesgarri ikusten.

Adimen emozionala, sendabelarrak, zoru pelbikoa eta patinajea lau ikastarotan

Udalak eta Bizikasik antolatu dituzte eta izenemate epea zabalik dago

M.B. | BERGARA

Udalak eta Bizikasik beste lau ikastaro antolatu dituzte martxoan hasi eta ekainera bitartean. Adimen emozionalaren, sendabelarren, zoru pelbikoa gogortzearen eta patinajearen gaineko ikastaroak antolatu dituzte.

Adimen emozionalari dagokionez, martxoaren 30etik ekainaren 8ra izango dira eskolak, eguaztenetan, Miguel Altunan, 17:00etatik 19:00etara, gazteleraz. Prezioa 30 euro da, eta, nahi duten guztiei zuzenduta badago ere, bergararrek lehentasuna dute. Izena emateko azken eguna martxoaren 23a da eta parte-hartzaileak zozketa bidez aukeratuko dira. Izenematea: kultura etxean eta 943 77 91 59 telefono zenbakian.

Sendabelar ikastaroari dagokionez, maiatzaren 10ean, 17an, 24an eta 31n dira eskolak, 17:00etatik 19:00etara, kultura etxean. Prezioa 20 euro da eta izena emateko azken eguna maiatzaren 3a. Horretarako, kultura etxera jo behar da edo 943 77 91 59 zenbakira deitu.

Zoru pelbikoa eta patinajea

Zoru pelbikoa gogortzea deritzon ikastaroa martxoaren 22tik maiatzaren 24ra izango da, 20:30etik 22:00etara, kultura etxean. Prezioa 40 euro da, eta izena emateko azken eguna martxoaren 15a. Horretarako, Bizikasira jo behar da (943 76 93 94).

Patinajea, Osintxun

Patinaje ikastaroari dagokionez, apirilaren 1etik ekainaren 3ra izango dira eskolak, egubakoitzetan, 19:00etatik 20:00etara, Osintxun. Izena emateko azken eguna martxoaren 25a da, Bizikasik Miguel Altunan institutuan duen bulegoan (943 76 93 94).

Ikastaro hori Osintxuko Herri Batzarrak antolatu du Bizikasirekin eta Udalarekin elkarlanean.

Ibilgailuen zerga ordaintzeko epealdia zabalik dago

Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren 2011. urteko errolda onartu berri du Udalak. Hori horrela, zerga hori ordaintzeko borondatezko epea zabalik dago maiatzaren 31ra arte. Helbideratutako ordainagiriak apirilaren 15ean kargatuko dira kontu korrontean.

Psikoestimulazio ikastaroa antolatu du San Joxepe elkarteak

Erretiratuen elkarteak psikoestimulazio ikastaroa antolatu du. Eskolak ordu erdikoak izango dira, astean birritan erretiratuen egoitzan. Garuna aktibo mantentzeko ikastaroa da eta izenematea dagoeneko zabalik dago martxoaren 14ra arte, egoitzako bulegoan. Plaza mugatuak dira.

Agurtzane, Virginia, Aran, *Klementx* eta Anton, Guria tabernako seme-alabak, Kale Barrira ematen duen sarreraren ondoan . | MIREIA BIKUIÑA

Guria tabernak ateak itxiko ditu apirilaren 30ean, 65 urteren ondoren

Behar den moduko agur festa egingo diote apirilaren 16an, Kale Barrian

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

1946ko maiatzaren 24an eman zion Udalak baimena Eduardo Azpiazuri Zumalakarregi kalean Guria taberna zabaltzeko. 65 urteren ondoren, apirilaren 30ean itxi egingo dituzte tabernako ateak Eduardo eta Esperen seme-alabek: Anton, *Klementx*, Virginia, Aran eta Agurtzanek.

Kale Barritik eta Atzeko kaletik sarrera duen taberna barruan mila eta bat istorio gertatu dira, eta itxieraren atarian istorio horiek errepasatzeko ordua da. "Gogorra, oso gogorra izango da. Askori bihotzaren zati bat taberna barruan geratuko zaie", diote.

ESANAK

"Bihotzaren zati bat tabernaren barruan geratuko zaie askori"

ANTON AZPIAZU | GURIA TABERNAKO SEME ZAHARRENA

"Txikitoak banatzen hasi nintzen kaxa baten gainean"

Tabernaren bezitasunak

65 urteko historia errepasatzen hasi orduko, Guria tabernak izan dituen berezitasunak azpimarratu dizkigute. "Ez dugu telebistarik, ez txanpon-makinarik eduki. Ama ez zen horien aldekoa. Zioen tu ginen tabernaren itxura berriarekin. Ama aitarekin haserretu egin zen diseinu berriak egur gehiegi zuelako eta horrek lan handia eskatzen zuelako", kontatu digute. Altzari guztiak egurrezkoak dira, eta lagunek eta ezagunek utzitako tresna zaharrek betetzen dute apaingarri lana.

Kirol emaitzen arbelak

Aste bukaerako kirol emaitzak jasotzen duen *Gaceta deportiva* banatzen hasi aurretik, Guria tabernako emaitzen taula zen erreferentzia askorendako. "Irratietatik deitzen ziguten Aloñaren emaitzak jakiteko". Bi arbel izan dituzte, eta bietan kirol emaitza azpimarragarrienak eta kinielak egon dira beti. "Klarionekin hasi aurretik, *Blanco España* erabiltzen zuen amak".

horiekin bezeroen arteko elkarrizketak eten egiten zirela. Irratia bakarrik eduki dugu. Tourra eta pilota entzun izan ditu amak", esan digu Antonek.

Tabernaren beste berezitasunetako bat musika izan da. Disko-jogailuarekin hasi ziren, Txile, Peru eta halako lekuetako musikarekin. "Tabernan jarri genuen lehen kasetea Quilapayum taldearen *Basta* izan zen. Victor Jara, Mercedes Sosa, Neil Young eta Silvio Rodriguezek tokia izan dute beti gurean", gogoratu digu Agurtzanek.

Tabernak apenas izan du aldaketarik. 1964. urtean berritu egin zuten, eta egun duen itxura eman zion Miguel Morris kataluniarrak. "Zahorren zegoen lanean eta taberna berritzeko proiektua egin zigun. Tipo bohemioa zen. Pentsa, katu bat jarri gura zuen eta egunero lekuz aldatu, mugimendua irudikatzeko. Hasieran harrituta geratzen hasi nintzen kaxa baten gainean, eta buruz nekien esan beharrekoa: *txikito una peseta, pincho dos pesetas*", dio Antonek.

Betiko txikiteroak

Guria taberna zabaldu zutenetik gizarteak bilakaera itzela izan du, eta, noski, baita tabernak ere. "Hasi ginenean txikiteoan ibiltzeko ohitura handia zegoen", gogoan du Virginiak. Atzeko kaleko merkatari asko batzen ziren Gurian. "Tomas eta Miguel Lizarralde, Pako Illarramendi, ekonomatuko Pedro eta Javier, Quelle sastrea, Reyes Urtatza... Egunero-egunero etortzen ziren hutsik egin gabe. Gainera, bazegoen beste txikitero talde bat; guk *El tren* deitzen genien, beti ordu berean sartzen zirelako tabernan. Bezero fidelak izan ditugu", diote.

65 urteko bilakaeran, Espe eta Eduardoren seme-alabak parte izan dira. "Txikitoak banatzen hasi nintzen kaxa baten gainean, eta buruz nekien esan beharrekoa: *txikito una peseta, pincho dos pesetas*", dio Antonek.

DATUA

1946.

URTEA

Urte hartako maiatzaren 24an eman zioten Zumalakarregi kalean taberna irekitzeko baimera Eduardo Azpiazuri.

Agur bazkaria egingo dute

Guriari azken agurra egingo diote apirilaren 16an: Kale Barrian, tabernaren aurrean, bazkaria eta festa egingo dute. "Ez genuen gura Naparrena tabernarekin egin zutena gertatzerik nahi. Pertsiana jaitsi zuten, eta kito. Azken zazpi hilabeteetan, egubakoitzero, ekitaldiak antolatu ditugu. Gurean egon dira Sorkun, Petti, Gari... eta laster Ruperren emanaldia izango dugu. Agur sonatua egingo diogu".

Aloña Mendiren lehen egoitza

Guria tabernak lotura estua izan du beti kirolarekin: futboleko emaitzak, kiniela, Tourra, pilota... Akaso horregatik, Aloña Mendi elkarteak lehen egoitza han izan zuen. "Atzeko kaleko sarreraren ondoan dagoen mahaian elkartzen ziren. Jokalariak, zuzendaritza batzordeko kideak eta beste hainbat herritar elkartu ziren Aloña Mendiren sorreran. Reyes Urtatza zen presidentea orduko hartan", azaldu digute.

"Gure ama, denon ama, Guriako dama"

Opari baten jaso zituen goiko hitzak Espe Elizondok. "Oso ondo laburbiltzen du gure ama nolakoa zen", diote haren seme-alabek. 1976an haren senar Eduardo hil zenean hark hartu zuen tabernaren ardura. "Nork ez ditu probatu Esperen patata-tortilla eta txorizo egosiak? Urte asko eman ditu barra atzean. Beti egin du lan hornitzaile berberekin, eta tabernara etortzen ziren banatzaile guztiei kafea eskaintzen zien". 2009ko apirilaren 24an hil zen.

Espe Elizondo, Guria tabernako barran. | ANTON AZPIAZU

ARETXABALETA

Komertzioa indartzeko ikastaroa merkatariendako

Bederatzi lagunek hasiko dute, eguaztenean, eta hiru saio izango dira; Enplegu Sailak antolatu du

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Udaleko Enplegu Sailak *Komertzio lokala indarberrituz* ikastaroa antolatu du herriko merkatariendako. Hiru saio egingo dituzte, datozen hiru eguaztenetan (14:00 -16:00), eta Bizkaiko Generando Nuevas Ideas enpresak bideratuko ditu.

Zailtasunak ezagutu

Herriko merkatari eta ostalaritza zerbitzuei egin zieten ikastarorako gonbidapena, eta bederatzik eman dute izena: "Eguneroko lanean produktiboak ez diren ohitura eta jokaerak aldatzeko gertu egon eta gestio metodo eraginkorrak ezagutzeko gogoa dutenei bideratu diegu deialdia eta oso pozik gaude izandako erantzunarekin", jakinarazi du Enplegu teknikari Argiñe Larreak. Hala, bada, eguneroko zailtasun eta arazoen analisia egingo dute lehenengo eta irtenbideak mahai gainean jarri gero. Hiru saioak bukatutakoan, bakarkako saio bat egiteko aukera ere zabalduko dute, ekintza plan pertsonalizatua garatzeko.

Ikastaroaren helburua herriko denda eta ostalaritza zerbitzuak indarberritzea bada ere, merkataritzaren gainean Udala egiten dabilen ikerketaren zati bat garatzeko interesgarria izango dela argitu du Enplegu teknikariak: "Enpresaritza fakultateko ikaslea egiten dabilen proiektuaren puntu bat garatzeko balioko du: herriko merkatarien eguneroko arazo nagusiak zeintzuk diren ezagutu eta irtenbideak diseinatzen joateko".

Hain zuzen, egiten dabiltzan proiektu horren bukaera izango da herriko merkataritzari eta turismoari dagokion ekintza plan zehatza garatzea: "Horri begira, astean hasiko duten ikastaroak nondik nora jo argitzeko pista bat baino gehiago emango digula uste dugu", dio Larreak.

Zapatuan II. Ixadebalde azoka

Aretxarte merkatarien elkarteak antolatuta II. Ixadebalde azoka egingo dute zapatuan, martxoak 12, (10:00-20:00). Herriko 11 merkatarik, ostalaritza zerbitzu batek eta Loramendi elkarteak hartuko dute parte eta Mitarte kalean jarriko dituzte merkatutako produktuen postuak –eguraldi txarra eginez gero Iturrigorri pilotalekuan.

Azokak dirauen bitartean disko-jartzaile bat izango da eguna girotzen. Gainera, aste bukaera pasa joateko sarreren zozketa egingo dute bezeroen artean ilunkeran.

ESKORIATZA

Desfibriladore bana jarri dute kultura etxean eta kiroldegian

Prebentzio neurria da; azkar erantzutea erabakigarria izan daitekeela uste du Udalak

MIRARI ALTUBE | ESKORIATZA

Bihotzekoak emanez gero suspertzeko erabiltzen diren bi desfibriladore jartzea herritarren eskura. Hori erabaki du Udalak. Hala, herritar asko ibiltzen den guneetan jarri ditu desfibriladore horiek: kultura etxean eta kiroldegian. Jendearendako esku -eskura daude, gainera.

Pertsonal ez sanitarioari

Desfibriladore automatikoak erabiltzeari buruzko hainbat dekretu aldatzea erabaki du Jaurlaritzak, eta, legearekin bat etorriz, Udalak horietako bi aparailu jartzea erabaki du. Gero eta sarriago gertatzen direla bat-bateko heriotzak uste dute, eta suspertzeko erabiltzen den bideetako bat desfibrilazioa da. Dekretu berriak arautzen duenez, pertsonal ez sanitarioak ere erabili ahal izango ditu, betiere desfibriladoreak emandako jarraibideak zehatz-mehatz jarraitzen baldin baditu eta aurrez larrialdietarako zerbitzuei deitu badio.

Jarritako aparailuak Konektatutako Desfibriladore Erabilgarri (DOC) motakoak dira, SafeTIC etxekoak, eta 24 orduko urrutiko kontrola, GPS bidezko geokokapena, diagnostiko automatikoa eta laguntza automatikoa ematen dute.

Udalak prebentzio neurri bezala eta zerbait gertatuz gero azkar erantzuteko helburuarekin jarri ditu aparailuok; izan ere, "azkar erantzutea erabakigarria" izan daiteke.

Lehen sorospenen gaineko berbaldia dute Pausokan

Guraso elkarteak antolatuta, martxoaren 29an da; aurretik mugen gaineko argibideak jaso dituzte

Gurasoak adi Nerea Mendizabalen argibideak entzuten. | PAUSOKAKO GURASO ELKARTEA

M.A. | ARETXABALETA

Umeen heziketan gurasoek laguntza behar izaten dutela hainbatetan jakinik, berbaldiak eta ikastaroak antolatu ditu Pausoka haur eskolako guraso elkarteak. Hala, *Mugak haurtzaroan* berbaldia izan zuten orain dela egun batzuk, Nerea Mendizabal psikopedagogoak gidatuta. "Egun daramagun bizimodua kontuan izanik, gure umeei zein muga edo erreferentzi jarri, noiz eta nola, lasai pentsatzea eta hausnartzea merezi duela uste dugu", diote antolatzaileek; eta gurasoek emandako erantzunarekin oso pozik daude, "arrakastatsua izan da-eta".

Bestalde, martxoaren 29an lehen sorospenen gaineko argibideak jasoko dituzte: "Hitzaldi teorikoa eta praktikoa izango da, eta oraingoan ere jendetsua izango dela dudarik ez du elkarteak; hortaz, anima zaitez, guraso!"

JUXE ZUAZUA

Gimnasia erritmikokoak lanean

Gimnasia erritmikoko udaberri txapelketaren lehen fasea jokatu dute Oiartzunen, eta Eskoriatzako eta Aretxabaletakoak izan dira bertan; Esther Barcenilla entrenatzaile duten Luis Ezeiza eta Arizmendi ikastetxeetako ikasleak, hain zuzen. Arizmendiko taldean daude: Lide Crespo, Janire Rabanete, Lierni Rabanete, Amaiur Iñurrieta, Leire Uribesalgo eta Ane Izquierdo. Eta Luis Ezeizako taldean: Malen Herruzo, Amaia Esperesate, Nagore Gurutzeta, Irati Moto eta Paula Jara.

Hausterre-eguna ospatuko dute kristauek eguaztenean

Aratuste-jaiak agurtu eta garizumari hasiera emateko erraustsaren ezarpenaren ospakizuna izango dute kristauek eguaztenean, hilak 9. Hona hemen egun horretan izango diren mezak: 09:00etan, agustindarren monasterioan; 10:30ean, zaharren egoitzan; eta 19:00etan, Andre Mariaren Zeruratze parrokian.

Markel Olano ahaldun nagusia eta Arantza Tapia diputatua datoz bihar

Bihar, martxoak 8, Markel Olano ahaldun nagusia eta Arantza Tapia Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako foru diputatua dira etortzekoak Aretxabaletara. Inaxio Garro alkatearekin dute hitzordua eginda, eta, besteak beste, egungo autobus zerbitzua eta bus azkarraren proiektua izango dituzte eztabaidarako gai.

Batzar orokorra du Basotxo erretiratuen elkarteak eguenean

Eguenean, hilak 10, egingo du Basotxo erretiratuen elkarteak urteko batzarra, egoitzan bertan (17:00). Ia 1.000 bazkide ditu elkarteak, eta guztien interesekoa izango delakoan daude zuzendaritzako kideak. Diru kontuak eta urteko programa aurkeztuko dituzte, eta batzordeko kideen aldaketen berri eman.

Arrikrutzera eta Arantzazura irteera antolatu du Gazteriak

Aretxabaleta eta Eskoriatzako 8 eta 12 urte arteko gaztetxoendako irteera antolatu dute Gazteria Sailak eta bi herrietako ludotekek. Arrikrutzeko kobak ikusi eta Arantzazura joango dira bazkaldu eta jolasak egitera, apirilaren 2an (zapatua). Izena ludoteketan eman behar da (5 euro); azken eguna, martxoak 15.

Sagardotegira irteera egingo du Eingeinkek martxoaren 19an

Otsailean egitekoak ziren sagardotegira irteera martxoaren 19an egingo du Eingeinkek (11:30-23:00). Txartelak dagoeneko salgai dituzte Aldatz eta Inkernu tabernetan (autobusa eta bazkaria, 40 euro), eta izena ematerakoan 10 euro ordaindu beharko dira. Gainerako dirua autobusean jasoko dute.

Gudarien bideak, egunero, 2.000-5.000 ibilgailu hartzen ditu. | L.Z.

ELGETA

Diseinu berria izango dute San Roke kaleak eta Gudarien bideak

Bi urbanizazio proiektuak jendaurrean daude

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Udalak batzar irekia egin du, herritarrei bi urbanizazio proiekturen gaineko xehetasunak emateko. Besteak beste, Oxel Erostarbe alkatea, Hirigintza zinegotzi Iban Retolatza eta Toledo taldeko Kristina Zarrabeitia eta Jose Miguel Toledo izan ziren aurkezpenean.

Herrira ekarriko dituzten aldaketengatik eta horiek duten aurrekontuarengatik proiektu handiak dira biak ere. Oxel Erostarbe alkateak argi utzi zuen ez direla berehala gauzatuko. "Udalak finantzazioa lortu behar du eta Gudarien bidea oinezkoendako bihurtzeko beharrezkoa da Foru Aldundiak saihesbidearen bigarren fasea exekutatzea", adierazi zuen. "Diru-iturriak lortzen badira, proiektuari zatika heltzeko aukera egon daiteke, batez ere San Roke kalean", gaineratu zuen.

Proiektu biek zorua aldatzea, lur azpiko azpiegiturak berritzea eta hiri-altzari berriak ipintzea aurreikusten dute, herriko gune ezberdinei estetika uniforme eta jarraitua emateaz bat. Helburuak asko dira: erdigunean hobekuntza lanak egitea, herriko gune zentralak oinezkoen erabilerara bueltatzea eta herrian bizitza soziala suspertzeko aukerak zabaltzea. Zailtasunak ez dira faltako; ekonomikoak zein orografikoak. Izan ere, erdigunean maila eta koska handiak daude.

San Roke kalea

Urbanizazio proiektu horrek zorua aldatzea eta lur azpiko azpiegiturak berritzea aurreikusten du. Hiru gune desberdin planteatzen ditu. Behetik elizarainoko tartea gaur egun ezagutzen dugun moduan geratuko litzateke eta aldaketa handiena elizatik kale bukaerainoko zatian izango litzateke. Herriko erdigune historikoa izanik, galtzada-harri naturala proposatu dute arkitektoek, baina gaur egungoa baino uniformeagoa, kroskarik gabekoa. Galtzada kalearen alde bietara mugatuko litzateke eta erdian ubidea ipiniko litzateke; gutxi gorabehera, Salbador kalean orain dugun antzerako diseinuarekin. Lanon aurrekontua 344.010,56 euro da.

Gudarien bidea

"Egunero, 2.000-5.000 ibilgailu pasatzen dira Elgeta erdigunetik", adierazi zuen Jose Miguel Toledok. Urbanizazio proiektu berriak espazio hori oinezkoendako gune bihurtzea planteatzen du. Proiektu oso handia da, aurrekontua ikusi besterik ez dago: 893.170,14 euro. Zirkulazioa Torrealdea kaleko beheko sarreran itxiko litzateke eta ibilgailu puntualendako bideak Herriko Plazara egingo luke, Ostatu taberna parean ezkerrera egin eta Berraondokotik irten.



San Roke kaleko urbanizazio proiektua. | ELGETAKO UDALA



Gudarien bidean lanak egiteko Aldundiak saihesbidea egin behar du. | UDALA

ANTZUOLA

Mozorro onena sarituko dute erretiratuek Aratuste-martitzenean

Laurogei bat erretiratu bilduko dira elkartean egingo duten Aratusteetako ospakizunean

USOA AGIRRE | ANTZUOLA

Erretiratuen Elkartean martxoaren 8an, martitzena, ospatuko dituzte Aratusteak. 17:00etan hasita, merienda egingo dute elkartearen egoitzan eta 80 bat erretiratuk eman dute izena parte hartzeko. Elkarteko kideek mozorrotuta joateko deia egin dute eta sariak egongo dira mozorro onenendako. Sarreran papertxo bat izango du parte-hartzaile bakoitzak, mozorrotu bakoitzari zenbaki bat jarriko diote eta onenaren zenbakia idatzi beharko dute papertxo horretan. Boto gehien jasotzen dituenak izango du saria: xanpain botilak. Merienderen ondoren kina jokoan arituko dira.

Atez atekoaren jarraipena

Gaur, astelehena, hasiko gara atez atekoarekin Antzuolan eta hondakinen bilketa sistema berriaren jarraipena egiteko batzordea eratuko da. Udalak eta herriko eragileek osatuko dute jarraipen batzorde hori. Behin atez atekoa martxan jarrita, maiztasun jakinez bilduko dira ordura arte egindako lana baloratzeko eta hobekuntzak adosteko. Herritarrek ere parte hartu ahal izango dute bilera horietan.

Batzordearen lehen bilera martxoaren 16an egingo da, Olaranen, 18:30ean. Bilera horretan parte hartzeko gonbidapena egingo zaie herriko elkarte guztiei.

LEINTZ GATZAGA

Beteranoen pilota txapelketa domekan hasita

Gaztetxoen txapelketa martxoaren 20an hasiko da; hamabostean behin izango dira partiduak

MIRARI ALTUBE | LEINTZ GATZAGA

Leintz bailarako pilotari beteranoek Dorleta pilota txapelketa hasiko dute domekan, martxoak 13, Gatzagako pilotalekuan. Mauri Zubillagak antolatu eta bideratutako txapelketa da eta hamar bikotek jardungo dute.

Goizean jokatuko dute kanporaketa, eta lehen partidua (09:00) Eskoriatzako Arrese eta Pagaldairen eta Gatzagako Lizarralde eta Duranaren artean izango da. Ondoren (10:00), Arrasatearren arteko norgehiagoka etorriko da: Arostegi eta Belategi, Jauregi eta Pildainen aurka; 11:00etan, aretxabaletarrak aurrez aurre: Galdos eta Altzola, Uriarte eta Errastiren aurka; 12:00etan, Zuazua eta Pozo, Arnaitz eta Kortaren aurka, guztiak arrasatearrak; eta azken partidua, 13:00etan, Arrasateko Jimenez eta Arroiabe, Gatzagako Beitia eta Bengoaren aurka. Antolatzaileek esan dute agertzen ez diren bikoteei galdutzat emango zaiela partidua.

Martxoaren 20an gaztetxoak

Gazteen txapelketa, ostera, hilaren 20an hasiko dute (09:00). Hiru mailatan banatuta jokatuko dituzte partiduak: benjaminetan, sei bikote; kimu edo alebinetan, lau bikote; eta haurretan, beste sei bikote. Eskoriatza, Arrasate, Aretxabaleta eta Gatzagako gaztetxoek jardungo dute domekan; gatzagarrak bi bikote dira: Errasti eta Alonso (benjaminetan) eta Ajuria eta Urizar (haurretan).

Partiduak hamabostean behin jokatuko dituzte.

ARAMAIO

Emakumearen Astea kultura ekitaldiz lepo dator aurtengoan ere

Itur-Zuri emakume elkarteak egitarau oparoa prestatu du astelehenetik zapatura arte

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Itur-Zuri emakume elkarteak Martxoaren 8an bueltan hainbat ekintza antolatu ditu aurten ere, Aramaioko Udalaren, Arabako Diputazioaren eta Emakunderen laguntzaz. Astelehenetik zapatura bitartean egunero –eguaztenean izan ezik– egongo da zertaz gozatu.

Gaur bertan hasiko da egitaraua. Musika izango da protagonista, Aramaioko Bea Asurmendi musikariaren eskutik. Haren gitarrak eta ahots gozoak kontzertu akustikoa eskainiko dute, Sastinan (18:30). Gero, luncha egongo da. Bihar, *Caramel* izenburu duen pelikula izango da ikusgai kultura etxean (18:30).

Bingorako, gaur azken eguna

Eguenean, hilak 10, hitzaldia izango da kultura etxean (18:30). Eider Elizegi biologo eta mendizaleak *Vagamontañas* izenburu duen hitzaldia egingo du. Egubakoitzean, bestalde, urteroko bingo-afaria egingo dute eskolako jangelan. Gaur da izena emateko azken eguna: 670 43 16 62 telefonora deitu behar da (Ana). Bingoa 19:30ean hasiko da eta afaria, berriz, 21:00etan. 20 euro inguru ordaindu beharko da afaria. Iaz 50 bat emakume batu ziren, giro paregabean.

Emakume Astea antzezlan batekin amaituko dute: Ane Diosdado antzezlearen *Olvida los tambores* obrarekin. Kultura etxean da, 22:00etan.

Bingo-afaria ez da faltako; iaz 50 lagun inguru batu ziren eskolan. | ARTXIBOA

ERREMEIXUAK DVD-aren PROMOZIOA

Goiena klubeko kide zarelako ~~10~~ €

8€ eta zure etxeko buzoian jasoko duzu

Deitu: 943 25 05 05
Idatzi: *kluba@goiena.com*

MARTXOKO SARIAK

Parte hartzeko

Telefonoz: 943 25 05 05
e-postaz: *kluba@goiena.com*
SMS bidez.

Parte-hartzaile guztien artean zozketatuko da.

SMSaren kostua: 0,15 euro + BEZa mezu bakoitzeko.
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datubilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.com

SKUN-FUNKEKO KAMISETA ETA POLTSA
Bidali KLUBA KAMISETA [Bazkidearen zenbakia] 215800 zenbakira.

LIBURU SORTA UMEENTZAT
Bidali KLUBA LIBURUAK [Bazkidearen zenbakia] 215800 zenbakira.

EUSKAL RIP-EN DVD-A
Bidali KLUBA DVD [Bazkidearen zenbakia] 215800 zenbakira.

ARGAZKI KAMARA
Bidali KLUBA KAMARA [Bazkidearen zenbakia] 215800 zenbakira.

2011n atera etekina txartelari

AQUARIUM
Donostia, 943 44 00 99
- Bi erosi eta bat ordaindu
(sarrera garestiena ordainduko da)

AVIA MECA GASOLINDEGIA
Arrasate, 943 79 13 39
- %2 gasolindegian erregaia erosita.
- %2 dendako produktuetan

AZKOAGA ENEA HOTELA-JATETXEA
Eskoriatza, 943 71 45 66
- %8 deskontua asteburuko egonaldietan. Ohe bikoitz eta egongeladuna hartuz gero, botila bat txakolin opari (Mendraka).
- %10 deskontua jatetxeko kartan.

BARCELÓ BIDAIAK
Arrasate, 943 79 70 11/ Bergara, 943 76 08 43
- 1.000 eurotik gorako erosketekin "B Plana" OPARI

(kontratatukoaren arabera: asteburuko egonaldiak, irteera gastronomikoak, ongizate txartelak...)

BEGIONDO OPTIKA
Aretxabaleta, 943 79 98 21
- -%15 produktu guztietan. Kontsulta doan.

GAHIR FISIOTERAPIA-OSTEOPATIA
Eskoriatza, 943 71 43 41
- %50 deskontua lehenengo kontsultan.

ESKO SPORT KIROL DENDA
Eskoriatza, 943 71 52 96
- -%10 produktu eta zerbitzu guztietan

GAES ENTZUMEN ZENTROA
Arrasate, 943 71 27 93 / Bergara, 943 76 94 55
- %10 deskontua (ez metagarria beste eskaintza batzuekin)

CLÍNICA DENTAL BERGARA
Bergara, 943 76 05 77
- -%10 zerbitzu guztietan
- -%15 inplanteetan
- Aho-garbiketa doan,
- 120 eurotik gorako tratamenduetan

Bazkidearentzat eta familiako batentzat

IKER SUKALDEAK
Arrasate, 943 79 00 43 / Oñati, 943 53 35 48
- Sukalde osoa erosita,mikrouhin-labea opari.

LILURA EDERTZE INSTITUTUA
Bergara, 943 76 31 71
- -%15 laser depilazioan: hanka osoa + izterrondoa (besapekoak opari).
- -%20 elikagai-intolerantzia proban.
- -%10 mikropigmentazioan: begiak, ezpainak edo bekainak.
- -%10 fototerapia bidezko aknearentzako tratamenduan.

Bazkidearentzat eta lagunarentzat

MULTIOPTICAS
Arrasate, 943 79 29 95 / Bergara, 943 76 15 75
- %15 deskontua (ez metagarria beste eskaintza batzuekin)

NAREN FISIOTERAPIA ZENTROA
Aretxabaleta, 943 08 21 89
- -%15 zerbitzu guztietan.

RENAULT AUTOBERRI
Arrasate, 943 71 24 72
- -%5 konponketetan, ez bada prezio itxia edo promozioa.
- -%25 saltzen ditugun pneumatikoetan, urte osoan.
- Ordezkapeneko autoa, 20 euro.

Erosketaren momentuan goian aipatutako deskontua baino handiagoa badugu, bazkidearí deskontu handiena eskainiko diogu.

TXIKI ZOO Aretxabaleta, 943 79 51 15
- Sei ile apaindegi zerbitzuengatik, zazpigarrena doan.
- %50erainoko deskontuak txakur-txamarratan (izakinak agortu arte)

TXURI URDIN IZOTZ JAUREGIA
Donostia, 943 46 44 00
- Bi erosi eta bat ordaindu ostiraletan (ez bada jaiegun, jaiegun bezpera, zubia edo oporraldia)
- -%20 zapatu eta domeketan (ez bada zubia edo oporraldia)
- -%10 zubi eta oporraldietan.

ZIENTZIEN KUTXAGUNEA
Donostia, 943 01 24 78
- %10 deskontua.

KIROLA

EMAKUMEAK IGOERA

Mondrako neskak igoera faseko lider jarri dira Zarautz menderatu ostean

Sufrituta, 2-1 irabazi zuten eta 21 puntu dituzte sailkapenean

EMAITZA

MONDRA
2-1
ZARAUTZ

Mondrako jokalari Alaine baloia oinetan duela Zarauzko Karmele menderatu guran. | JOSETXO ARANTZABAL

FITXA TEKNIKOA

Mondra: Tania, Etxabe, Garazi, Vanesa, Rakel, Alaine, Ane, Olatz (Andrea 69. min.), Maialen, Maitane eta Ainhoa (Lide, 89. min.).

Zarautz: Iribar, Sara, Iratxe, Marta, Onintza, Gurutze (Vero, 83.min.), Arantza (Maite, 85.min.), Karmele, Orde, Eneritz eta Lizaso (Tes, 60.min.)

Epailea: Merino jaunak zuzendu zuen Mojategiko lehia. Ez zuen marrazainen laguntza eduki.

MIREIA BIKUÑA | ARRASATE

Mondrako neskek indartsu jarraitzen dute igoera fasean. Zapatuan Zarautz menderatu zuten Mojategin, igoera lortzeko beste hautagaietako bat. Hori horrela, lider jarri dira 21 punturekin –lehia hasi aurretik bi taldeek puntu kopuru bera zuten sailkapenean–.

Partidua hasi eta 7. minutuan egin zuen lehen gola Mondrak. Rakelek boleaz areara bidali zuen baloia eta atezainaren errebotea Maialenek bidali zuen ate barrura. Golak balio izan zien arrasatearrei lasaiago jokatzeko.

Abantaila handitzeko beste hainbat aukera izan zituzten arrasatearrek lehen zatian, baina ez zuten asmatu. Mondrak oso ondo bilatzen zuen zarauztarren defentsaren bizkarra, eta baloi luzeekin behin baino gehiagotan egon ziren Iribar atezainaren aurrean, bakar-bakarrik.

11. minutuan bat-biko ederra egin zuten Anek eta Maitanek, baina azken jaurtiketa atezainak gelditu zuen. 20.ean Maitane izan zen berriro ere atezainaren aurrean geratu zena, ezkerretik jokaldi pertsonala egin ostean. Ez zuen asmatu. Ordu erdia betetzear zegoenean, berriro ere Maitane izan zen protagonista. Iribar atezaina driblatzen ahalegindu zen, baina ezin izan zuen egin.

Lehen zatian, 43. minutuan izan zuen Zarautzek aukera garbiena. Lizasok Mondraren defentsaren azken lerroa gainditu –ez zegoen jokoz kanpoko posiziorik–, eta jaurtiketa egin zuen, kanpora. Zarautzek ezer gutxi erakutsi zuen lehen zatian.

Mondrako atezaina kalera

Bigarren zatia, lehenengoaren moduan hasi zen. Hasierako minutuetan egin zuen bigarren gola Mondrak (54. minutuan). Areara egindako falta erdiraketa gaizki urrundu zuen Iribar atezainak, eta Ainhoak aldaratzea ate barrura bidali zuen.

Partidua erabakita zegoela zirudien, baina Mondrari sufritzea egokitu zitzaion. 65. minutuan Merino epaileak Mondrako atezaina kalera bidali zuen. Penalti egin zuen eta txartel gorria erakutsi zion. Arrasatearrek ez zuten ordezko atezainik eta Vanessa jokalariak jantzi zituen eskularruak. Zarautzek gola egin zuen eta Mondra bat gutxiagorekin geratu zen.

Minutu batzuetan zelai erdiko kontrola galdu zuten etxekoek, eta zarauztarrak areara hurbiltzen hasi ziren, baina gol aukera garbirik egin gabe.

Sufrituz eta zaleen animuekin baloia menderatzeko gauza izan ziren. Maitanek izan zuen lehia erabakita uzteko aukera 71.minutuan. Jokaldi ona egin ostean, ez zuen asmatu atezainaren aurrean. Lehia bukatzeko bost minutu geratzen zirenean, Zarautz hamar jokalarirekin geratu zen: Martak bigarren txartel horia ikusi zuen.

Bi taldeak hamarrekin geratu ziren, baina ordurako jokalari batzuk nekatuta zeuden. Zarautzek azken ahalegina egin zuen berdinketa lortu eta sailkapeneko lehen postuari eusteko, baina ez zuten zorterik izan.

IGOERA FASEA

TALDEA	PUNTUAK	PARTIDUAK
1. Mondra	21	8
2. Zarautz	18	8
3. Hernani	12	8
4. Arizmendi	11	8
5. Intxaurdi	10	8
6. Amara	9	8
7. Hondarribia	7	8
8. Touring	6	8

DATUAK

1
PARTIDUA

Partidu bakarra galdu dute Mondrako neskek igoera fasean. Zortzitik zazpi irabazi dituzte: 26 gol egin dituzte, eta bost jaso.

2
TXARTEL GORRI

Epaileak bi txartel gorri erakutsi zituen: Mondrako atezainari zuzenean, eta Zarauzko atzelariari bigarren horiaren ostean.

EMAKUMEAK IGOERA

Berdinduta hirugarren tokia galdu du Arizmendi

Arizmendiko neskek igoera faseko hirugarren tokia galdu zuten zapatuan, Intxaurdiren kontra berdindu ondoren (1-1). Bi taldeak arerio zuzenak dira hirugarren postuagatik lehiatzeko, eta Almenen jokatu zuten partidu parekatuan berdindu egin zuten. Aste bukaeran Touringen kontra jokatuko dute aretxabaletarrek.

JOSETXO ARANTZABAL

LEHENENGO MAILA

Astore eta Realaren arteko hitzarmena etenda: Nike etxeak jantziko du taldea

M.B. | ARRASATE

Astore eta Realaren arteko hitzarmena bertan behera geratu da. Talde txuri-urdinak zapatuan, hilaren 5ean kaleratutako oharrean adierazi zuen Nike etxeak jantziko duela taldea. Hiru urterako hitzarmena sinatuko dute laster: 2014ko ekainaren 30era arte.

Hori horrela, talde txuri -urdinak eta Arrasateko Astorek azken 17 urteotan izan duten hartu-emana etenda geratzen da. Realak urrezko eta brillantezko intsignia ezarriko dio Arrasateko enpresari. Realaren wegunean publikatutako oharrean "eskerrik beroenak" agertu nahi dizkio Astoreri epe luze honetan klubarekin agertu duen "konpromiso, profesionaltasun eta lan onarengatik".

Eskaintza asko

Lehen Mailarako igoeraren ondoren, hainbat enpresak eskaintza onak bidali dizkio Realari. Eta horien guztien artean, Nike etxearena izan da onena. Antza, Astorek ezin izan du eskaintza hobetu.

ESKUBALOIA

Partidu parekatua eta joko gutxikoa, baina puntuak etxean gelditu ziren

- Defentsan ahul eta erasoan joko politik ez; partidu txarra egin zuten bergararrek
- Bergararrek Urolakoaren nekea aprobetxatuta egin zuten aurrera azken minutuetan

EMAITZA

SORALUCE BKE
41-33
UROLA LAZTI

Mikel Plazaola jaurtiketa egiten, Urolaren defentsa gainditu ondoren | JOSETXO ARANTZABAL

IRATI GOITIA | BERGARA

Joko gutxiko partidua izan zen zapatu arratsaldean Soraluce BKE eta Urola Lazti taldeen artekoa.

Sailkapeneko azkena da Urola, eta bergararrek lasai hartu zuten etxean. Gainera, kanpoko taldeak jokalari gutxi ekarri zituela-eta, Muniategiren mutilak oso erlaxatuta irten ziren kantxara.

Lehen zatian joko gutxi izan zen. Jokalariek bizkor jokatu zuten alde batetik bestera kontraerasoan golak sartuz, baina ez zen joko politik ikusteko aukerarik izan.

Urolako taldea aurreratu zen markagailuan lehen minutuetan, erasoan txukun aritu ziren-eta. Alain Beltzak sartutako golek min handia egin zioten etxekoei. Gainera, bergararrek lehen zatian defentsa oso ahula erakutsi zuten.

Hala ere, berehala lortu zuten berdintzea, eta kontraerasoan hainbat gol sartu ostean aurretik jartzea ere lortu zuten. Horrela, 22. minutuan 16 eta 15 jarri ziren aurretik. Lehen zati guztia izan zen oso parekatua eta Bergarak asko jota bi goleko aldea atera zion Urolari, baina azken minutuetan zorte hobea izan zuten Muniategiren mutilek atean, eta errenta handitzea lortu zuten. Horrela, mahoneroak lau puntuko aldearekin joan ziren atsedenaldira (23-19).

Bigarren zatian hobeto

Bigarren zatiko lehen minutuetan lehen zatiko erritmo bera eraman zuen partiduak, eta parekatuta ibili ziren bi taldeak.

Hala ere, amaierarako Urolako jokalariak nekatu egin ziren, eta ezin izan zioten bergararren joko biziari eutsi. Gainera, bigarren zatian bergararrek defentsa sendotu zuten eta hobeto eutsi zioten arerioari. Horrela, 24. minuturako 37 eta 28 zihoan aurretik Bergara, eta Urolakoen entrenatzaileak hutsartea eskatu zuen, baina dagoeneko Bergarak ihes egina zuen. Orduantxe erakutsi zuten bergararrek euren joko politena eta erasoan egin zituzten jokaldi polit batzuk.

JOSETXO MUNIATEGI | BERGARAKO ENTRENATZAILEA

"Arerioaren nekea izan da gakoa, ez gure jokoa"

Bergararren entrenatzailea ez zegoen gustura bere taldeak eginiko lanarekin. Hala ere, garrantzitsuena puntuak ateratzea zen, eta hori lortu zuten.

Nola ikusi duzu zure taldea?

Partidu txarra jokatu dugu, batez ere lehenengo zatian. Oso erlaxatuta irten gara. Oso ahul jokatu dugu defentsan, ez dugu gure ohiko defentsa gogorra erakutsi. Jokalariek buruan gola sartzea besterik ez duten kaleko mutikoak ziruditen. Erasoan ere ez gara fin ibili, kontraerasoan lortu ditugu gol asko eta ez dugu joko estatikorik egin. Oso partidu parekatua izan da, eta azken minutuetara arte ez dugu markagailuan alde nabarmenik lortu.

Bigarren zatian hobera egin duzue.

Hobera bai, baina ez da hobekuntza nabarmena izan. Esango nuke arerioaren nekea izan dela lagundu diguna. Izan ere, Urolakoei gasolina bukatu zaie eta orduan lortu dugu markagailuan aurrera egitea. Eurek jokalari berdinekin jokatu dute ia partidu osoa eta amaierarako nekatu egin dira. Hor egon da gakoa, ez da izan guk askoz hobeto jardun dugulako. Jasan duten ahulaldi hori gol kopuruan ere ikusten da, lehen zatian 19 gol sartu dituzte eta bigarrenean berriz 12 bakarrik.

Datozen partiduak oso garrantzitsuak dira.

Gaurko partidua ere oso garrantzitsua zen eta gaizki jokatu dugun arren puntuak ateratzea lortu dugu gutxienez, eta hori oso pozgarria da. Hurrengo bi partiduetatik puntuak lortzea ere ezinbestekoa izango da. Datorren astean Usurbilen jokatzen dugu eta helburua da bi puntuak lortzea. Ondoren, Gasteizko Gure-Auzune taldea hartuko dugu eta partidu hori irabaztea ere oso garrantzitsua da.

ESKUBALOIA

Ford-Mugarrik berdindu egin du Portugaleteren aurka (26 eta 26)

I.G. | ARRASATE

Arrasatearrek ondo ekin zioten partiduari eta lehen hogei minutuetan eurek jarri zuten partiduko erritmoa. Defentsan txukun jardun zuten Orgazen mutilek. Erasoan, baina, zenbait hutsegite egin zituzten: jaurtiketa argietan kale egin zuten eta baita hainbat kontraerasotan ere. Hor egon zen partiduko gakoa, jokalariak oso urduri jarri baitziren eta Portugaleteko mutilek hori ondo aprobetxatu zuten.

Bigarren zatian gaizki

Bigarren zatian ez ziren fin ibili arrasatearrak, erasoan bizkor jokatu zuten, gol azkarraren bila.

Azken minutuetan izan zuten irabazteko aukera, bi goleko abantaila zuten-eta. Bi jokalariren kaleratze izan zuten, ordea, eta horrek asko baldintzatu zituen azken minutuak. Aurkariak ondo jakin zuen hutsune hori aprobetxatzen. Orgazen mutilek igoera fasean sartzeko, ezin dute huts gehiago egin.

TXIRRINDULARITZA

Caja Rural BTT kopan lehen postuetan aritu dira bailarakoak

I.G. | ARRASATE

Nafarroan, BTTko Caja Rural kopako lehenengo proba jokatu zen atzo Izkue herrian, eta Debagoieneko hainbat txirrindularik emaitza onak lortu zituzten bertan. Lizarralde Kirolak taldeko Beñat Burgi txirrindulariak hirugarren postua lortu zuen, junior mailan. Gogor egin behar izan zuen lan postu hori lortzeko. Kadete mailan, bestalde, talde bereko Julen Axpe ere fin aritu behar izan zen laugarren postua eskuratzeko.

Domekan, Aramaion

Hilak 13an Aramaion jokatuko da BTTko Euskadiko Opena eta bertan batuko dira maila oneneko txirrindulariak.

Bost kilometroko ibilbidea izango da kirolariek egin beharko dutena, Azkoaga auzotik hasi eta Barajuenera doana. 10:30ean ekingo diote lehiari eta hainbat maila izango dira: elite, 23 urte azpikoak, masterrak, 40 urtetik gorakoak, kadeteak eta junior neskak. Sari banaketa Azkoagan egingo da.

ARETO FUTBOLA

Eskoriatzako mutilek launa berdindu zuten Intxaurtxuetan

UPV/EHU Campus Alava talde indartsua hartu zuen Eskoriatzak etxean zapatu arratsaldean. Arabarrak sailkapeneko bosgarrenak dira eta eskoriatzarrak, berriz, zortzigarrenak, 23 punturekin.

Intxaurtxuetara partidua ikustera joan zirenek gol ugarirekin disfrutatzeko aukera izan zuten, launa berdindu zuten-eta bi taldeek.

Datorren asteburuan ere etxean jokatuko du Eskoriatzako taldeak, Mallabia lider gogorra hartuko du.

Sustrai Aloña Mendi taldeko jokalariak Goierri Verkolen kontrako partidua hasi aurretik. | MIREIA BIKUÑA

IGOERA FASEA

Azken laurdenean eman zion buelta Aloñak lehiari, zaleen laguntzarekin

Bigarren tartearen hasieran 14 puntuko abantaila zuen Goierri Verkolek

EMAITZA

SUSTRAI ALOÑA MENDI
75-66
GOIERRI VERKOL

DATUA

14
PUNTU ATZETIK

Puntu horiek gainditu behar izan zituen Sustrai Aloñak . Goierri Verkol 15-29 aurreratu zen.

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Ondo sufrituta eta azken minutura arte lehiatzen dakiela erakutsiz irabazi zuen Sustrai Aloña Mendik igoera faseko lehen partidua. Esperientzia horrekin, eta harmailetan zeuden zaleen laguntzarekin. Erabakigarriak izan ziren euren animuak eta txistuak lehiako azken minutuan, batez ere, Goierri Verkol taldeko jokalarien jaurtiketetan. Aratusteak izan arren, Zubikoako harmaila lepo bete zen igoera fasearen hasiera ikusteko. Zaleek bikain erantzun zuten.

Bukaeran, burua hotz

Beste behin –aurretik Easoren eta MUren kontra egindako moduan– azken tartean eman zioten buelta partiduari oñatiarrek. Partidua bukatzeko hiru minutu geratzen zirenean jarri ziren lehen aldiz aurretik markagailuan (63-62). Ordurako Goierri Verkolek izandako errenta guztiak bertan-behera utzi zituzten. Azken minutu haietan erakutsi zuten burua hotz mantentzen badakitela. Aurretik huts egindako jaurtiketak –erabakigarriak, laugarren laurdenean– sartu egin zituzten. Bukatzeko minutu eta erdi falta zela lau puntuko errenta zuten (67-63). Minutu bakarra falta zenean bost puntukoa (70-65), eta 48 segundo geratzen zirenean, zazpikoa (72-65). Bi taldeetako entrenatzaileek hutsarteak eskatu zituzten, minutu erabakigarri haietan, estrategia jokaldiak egiteko. Goierri Verkolek ez zuen asmatu, eta esku artean zuen partiduak ihes egin zion. Eta ihes egin zion diogu, benetan eskutan izan zuelako. Motibatuago hasi zuten partidua. Jaurtiketak erraz eginez eta puntuak lortuz.

Oñatiarrak aldiz lokartuta irten ziren, eta partiduan sartu orduko lehen laurdena bukatu zitzaien. Ordurako sei puntuko aldea zuen Goierrik (15-21). Baina abantaila baino gehiago etxekoen jarrera zen kezkagarriagoa: Aloña nahi eta ezin ibili zen. "Partidua oso zail ikusi dut une horretan", esan zigun bukaeran Xabi Igartuak.

Bigarren tartearen hasiera

Lehen tartea txarra izan zen, eta bigarrenaren hasiera askoz okerragoa. Goierrik ez zuen hutsik egin, eta etxekoak konturatu orduko, 14 puntu zeuden atzetik: 15-29. Sutrai Aloñak lehen puntuak sartu zituen bigarren tartearen hirugarren minutuan. Oñatiarrak ahalegindu ziren hiruko jaurtiketak egiten –espezialistak dira– baina ez zuten asmatu.

Taulapeko jokoa hobetuz, eta defentsa sendotuz, atsedenera heldu orduko lau puntu bakarrik zeuden atzetik: 33-37.

Hirugarren tartea parekatuagoa izan zen. Bi taldeek erakutsi zuten EBA ligara igotzeko fasean zergatik dauden. Aloñak sartutako jaurtiketen portzentajea hobetu egin zuen, baina Goierri Verkolek abantailari eustea lortu zuen. Lehen bederatzi minutuetan oñatiarrak atzean ibili ziren, baina apurka-apurka abantaila murrizten. Bi puntura jarri ziren hiru minuturen faltan, eta aurretik jartzeko aukera izan zuten. Baina, Gamarrak huts egin zuen hiruko jaurtiketa. Hirugarren laurdena berdinketarekin bukatu zen (49-49), Mikel Biainek egindako hirukoari esker.

Azken laurdenean berriro zabaldu zuen tartea Goierri Verkolek (56-62). Lehia bukatzeko bost minutu geratzen ziren. Segidan egin zuen Iñigo Zabaletak hiruko jaurtiketa, eta zaleak animatu egin ziren. Azken minutuak kronikaren hasieran kontatu moduan joan ziren.

FITXA TEKNIKOA

Sustrai Aloña: Gamarra, Ales, Ander, Mikel, Iñigo, Beñat, Iban, Markel, Uribetxeberria, Biain eta Ibai.

Goierri Verkol: Beraza, Pozo, Irizar, Iarrañaga, Aiesa, Goikoetxea, Gomez, Mitogo, Campos, Antzizar, De Miguel eta Linazasoro.

Oharrak: Zubikoa kiroldegiko kantxa berdea lepo bete zen EBA ligarako igoera faseko lehen partidua ikusteko. Txalo zaparradarekin agurtu zuten taldea bukaeran.

Nolakoa da igoera fasea?

Lehen Nazional mailan 20 talde lehiatu dira irailetik bi multzotan banatuta: bakoitzean hamar. Lehen fasearen ondoren, multzo bakoitzeko lehen bostak igoerarako sailkatu dira; eta, azken bostak jaitsierarako –tartean MU–. Igoerarako sailkatu diren multzo bereko taldeen partiduetako emaitzak gorde egiten dituzte. Fase honetan ez dute elkarren kontra jokatuko. Hori horrela, beste multzoan egon diren taldeen kontra jokatuko dute. Guztira 10 lehia. Lehengo biak igoko dira EBA ligara.

XABI IGARTUA | ENTRENATZAILEA

"Igoera faseko helburua disfrutatzea da; EBArako txartela lortzea oso zaila da"

Xabi Igartua. | M.B.

Xabi Igartua pozik zegoen emaitzarekin, baina batez ere azken minutuetan taldeak erakutsitako jarrerarekin.

Nik lehia oso zail ikusi dut bigarren tartearen hasieran.

Baita nik ere. Lokartuta irten gara, defendatzeko gogo barik, eta hori baliatu du Goierri Verkolek abantaila handitzeko. 14 puntu atzetik egon gara.

Zeintzuk izan dira lehiari buelta emateko oinarriak?

Erakutsi dugu minutu erabakigarrietan burua hotz mantentzen. Gure esperientzia baliatu dugu. Zaleen laguntza ere ezinbestekoa izan da. Aratusteak tarteko, uste genuen jende gutxiago etorriko zela. Baina gure lanak zaleak erakartzen ditu.

EBA ligarako igoera fasea. Hitz potoloak dira. Ze helburu duzue?

Disfrutatzeko gogoarekin irtengo gara kantxara. Hori da helburu nagusiena. Talde indartsuenen kontra jokatzeko aukera izango dugu. Igoera lortzea ezin dugu helburu moduan jarri; zaila delako. Igoera ez lortzeak ez du zapuztu behar denboraldian zehar egindako lan borobila.

IÑIGO BIAIN | SUSTRAI ALOÑAKO JOKALARIA

"Inportantea zen gaur irabaztea, eta nola egin dugun ikusita, oso pozik gaude"

Aitor Biain. | M.B.

"Nekatuta", baina pozik zegoen partidu bukaeran Iñigo Biain.

Kostata, baina lortu duzue.

Bai. Egia esan sufritu egin dugu. Baina, beste behin minutu erabakigarrietan burua hotz mantentzeko gauza izan gara.

Igoera fasea irabazten hasi duzue.

Inportantea zen igoera fasea garaipenarekin hastea, morala indartzeko. Eta nola lortu dugun ikusita, oso pozik gaude.

Fase honetako lehia guztiak gaurkoaren modukoak izango dira?

Bai. Talde indartsuenak gaude fase honetan. Etxeko partiduetan sufritu egingo dugu, eta kanpokoetan gehiago. Gogorrak izango dira guztiak. Gaur, adibidez, nahiko gaizki jokatu ditugu lehen bi tarteak. Nekatuta geundela zirudien.

Minutu erabakigarrietan zaleek bultzada ezinbestekoa izan da.

Zorioneko gaude. Zubikoan jokatzen ditugun partiduetan asko animatzen gaituzte, eta gaur ere, hala izan da. Goierriko jokalariak ere harrituta geratu dira harmailetako giroarekin.

SASKIBALOIA, JAITSIERA

Bigarren laurdeneko partzialari esker (26-9) irabazi zuen MUk Iturripen

- Tarte hartan San Inaziok egindako akatsak aprobetxatu zituzten
- Arrasatearrek ondo hasi dute Lehen Maila Naziolaneko jaitsiera fasea

MUko jokalari bat saskiratze egin guran, San Inazioko defentsaren aurrean. | JOSETXO ARANTZABAL

EMAITZA

MONDRAGON UNIBERTSITATEA

83-66

SAN INAZIO

MIREIA BIKUÑA | ARRASATE

Mondragon Unibertsiteak garaipenarekin hasi zuen zapatuan Lehen Nazional Mailako jaitsiera fasea. San Inazio UPNA taldea menderatu zuen Iturripen.

Lehen laurdena MUk orain arte jokatu dituen askoren antzekoa izan zen. Erasoan jaurtiketa onak topatuz eta puntuak erraz lortuz; baina, defentsak huts gehiegi eginez. hori horrela, nafarrek bukatu zuten aurretik lehen tartea: 18-22.

Bigarren laurdenean erabakita utzi zuten partidua Josu Larreategiren mutilek. 26-9ko partziala egin zuten. Arrasatearrek lehen tartearen antzera jokatu zuten, baina San Inaziok azkarregi jokatu zuen erasoan, ideia garbi barik. Baloi asko galdu zituzten. MUk baloi horiek baliatu zituen markagailuko errenta handitzen joateko. Tarte horretan bi teknika adierazi zituzten epaileek: bat Paul Isasa jokalariari, eta bestea entrenatzaileari. Nafarrek ez zituzten behar den moduan aprobetxatu.

Itxura onena

Hirugarren laurdenean erakutsi zuen MUk itxura onena. Kontzentratuta jokatu zuten, bazekitelako atsedenean zuten errenta mantentzeko behar zutela-eta (44-31). Erasoan ondo ibili ziren, eta baita defentsan ere. 22-13ko partziala egin zuten tarte hartan.

22 puntuko aldearekin heldu ziren azken tartera (66-44). Garaipen erosoa lortzeko aukera zuten etxekoek. Dena den, azkarregi jokatu zuten, eta hutsak egin zituzten. Talde nafarrak huts horiek aprobetxatu zituen markagailuko errenta txikitzeko.

Gorka Kintana izan zen zapatuko saskiratzailerik onena 22 punturekin. Gainerako puntuak sartu zituzten: Barberok (21), Balantzategik (11), Arantzabalek (10), Isasak (6), Atxak (6), Lorenzok (3) eta Ansagastik (4).

Aste bukaeran, Bilbon

Zapatuan lortutako garaipenarekin jaitsiera faseko lehen tokian jarri dira arrasatearrak. Hain zuzen ere, hori da MUk duen helburuetako bat. Alde batetik, etxeko partidu guztiak irabazi gura dituzte, jaitsiera ematen duten lekuetatik ihes egiteko. Beste alde batetik, sailkapeneko lehen tokian bukatu gura dute. "Lehenak bagara, jakin dugu bide onetik goazela", dio Larreategik. Baina, bigarren helburua lortzeko, hainbat partidu irabazi beharko dituzten etxetik kanpo. Eta hori da, hain zuzen ere, arrasatearrek duten arazo handiena: etxetik kanpo irabaztea kosta egiten zaie. Taldea ez da jarrera berberarekin irteten Iturripera edo beste edozein kantxara. Etxetik kanpo irabazteko aukera dute aste bukaeran Bilbon.

MENDIA

'Autobabesa mendian' Besaiderekin

M.B. | ARRASATE

Besaide mendi elkarteak gertu ditu martxorako mendi ekintzak. Horien artean antolatu du *Autobabesa mendian* izeneko ikastaroa. Hilaren 29an eta 30ean egingo dute Kulturaten. Mendira goazenean kontuan hartu beharrekoen gainean egingo dute berba bi egunetan. Ikastaroa doakoa da, eta ez da izena aldez aurretik eman behar.

Bestalde, hilaren 26ko eta 27ko aste bukaeran mendiko eski irteera egingo dute. Antolatzaileen asmoa da Panticosatik Portaletera arteko zeharkaldia egitea. Interesatuek izena eman ahalko dute hilaren 21ean eta 22an. Informazio gehiago gura duenak *www.besaide.org* atarian begira dezake.

MENDIA

Erraketekin ibiltzen ikasi zuten Valdezcarayn

Athlonek antolatuta elur erraketa modalitatea ezagutzeko eta trebatzeko ikastaro-irteera egin zuten otsailaren 26an. 16 lagunek parte hartu zuten.
Ikastaroa egin zuten lehenengo. Inguru abentura taldeko bi lagunek erraketak nola erabili erakutsi zien. Ondoren, irteera egin zuten. Valdezcarayn (Errioxa) hasi eta hiru orduko ibilbidea egin ondoren San Lorentzo gailurrera heldu ziren. Beherakoan mokadutxoa hartu zuten. Elur baldintzak ez ziren onenak izan, baina parte-hartzaileak "pozik" itzuli ziren, aurrerago besteren bat egiteko gogoarekin.

RAMON MARTINEZ

ZIKLISMOA

Euskal Herriko itzulia, Oñatitik eta Bergaratik

Lehenengo eta laugarren etapatan pasako da tropela Debagoienetik: apirilaren 4an eta 7an

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

51. Euskal Herriko txirrindulari itzulia gure bailaratik pasako da; hain zuzen ere, apirilaren 4an Oñatitik eta Bergaratik, eta apirilaren 7an Bergaratik. Bietan punta-puntako ziklistak ikusiko ditugu gure errepideetan.

Lehen etapa Zumarragan hasi eta leku berean bukatuko da. Etapa horretako 52. kilometroan Oñatira helduko dira, Gabiria eta Minas mendateak igo ondoren. San Prudentziotik Bergara aldera egingo dute eta Elosu igoko dute. Lehen etapak 149,5 kilometro izango ditu.

Itzuliko laugarren etapa Amurrion hasi eta Arraten bukatuko da. Hori horrela, kilometro batzuk egingo ditu Debagoienean. Tropela Elorriotik Kanpantzarrera igoko da, segidan Bergarara jaisteko, etapako 93. kilometroan. Osintxura hartuko dute ziklistek eta Soraluzetik Eibar aldera egingo dute. Laugarren etapak 177 kilometro izango ditu.

Erlojupekoa, Zallan

Beste hiru etapa egingo dituzte txirrindulariek Euskal Herriko itzulia osatzeko. Bigarren etapa Zumarraga eta Lekunberri artekoa izango da apirilaren 5ean eta 167 kilometro izango ditu. Hirugarren etapa Villatuerta-Zuia -Murgia izango da. 177 kilometro izango ditu.

Zallan bukatuko da bosgarren etapa. Eibarren hasiko dute ibilbidea eta 179 kilometro egin ondoren Eibarrera helduko dira. Azken etapa, seigarrena, erlojupekoa izango da. Zallan egingo dute eta 24 kilometro izango ditu. Hor jantziko du itzuliko irabazleak txapeldunaren maillota.

Tropela Aiatik pasatzen. 2010eko itzuliko bosgarren etapan. | GOIENA

BOULDER

Angel Lerak irabazi zuen Aratusteetako boulder txapelketa

M.B. | OÑATI

Angel Lerak irabazi zuen zapatuan Oñatiko Zubikoa kiroldegiko rokodromoan jokatutako boulder txapelketa. Finalean onena izan zen Julen Etxeberriaren eta Jon Agirreren aurretik.

Finalean bost bide

Aratusteetako VI. boulder txapelketan bederatzi eskalatzailek parte hartu zuten. Lehen fasea sailkapen fasea izan zen. Guztiek zituzten zazpi bide egiteko. Sergio Maiztegik finkatutako bideak kateatzeko ordubete izan zuten.

Eskalatzailerik onenak izan ziren: Angel Lera (32 puntu), Jon Agirre (31), Julen Etxeberria (28) eta Jon Murillo (24).

Finalean bost bide zehaztu zituen Maiztegik. Parte-hartzaile gutxi zegoenez, guztiek izan zuten aukera finaleko bideak probatzeko. Ordubete izan zuten ahalik eta goren heltzeko. Proba bukatzeko minutu bat falta zenean parte-hartzaileetako bati –Jon Murillori– sorbalda irten zitzaion. Anbulantziak eraman zuen eskalatzailea ospitalera eta txapelketa bukatutzat eman zuten. Gauean elkarrekin afaldu zuten.

Parte-hartzaileetako bat bidea kateatzen. | MIREIA BIKUÑA

FUTBOLA

ERREGIONAL OHOREZKO MAILA

EMAITZAK

Hernani-Bergara	4-1

*** Gainerako taldeek atseden izan dute aste bukaeran**

SAILKAPENA

	TALDEA	P	J
1	Hernani	54	24
2	Pasajes	53	24
3	Real Union	52	24
4	Anaitasuna	45	24
5	Aretxabaleta	41	24
6	Oiartzun	37	24
7	Bergara	36	24
8	Tolosa	35	24
9	Aurrera	34	24
10	Trintxerpe	31	24
11	Mondra	28	24
12	Berio	27	24
13	Hondarribi	26	24
14	Aloña Mendi	26	24
15	Roteta	21	24
16	Idiazabal	20	24
17	Zumaiako	18	24
18	Ordizia	18	24

HURRENGO JARDUNALDIA

Hondarribi-Aloña Mendi
Trintxerpe-Mondra
Roteta-Real Union
Zumaiako-Anaitasuna
Oiartzun-Aurrera
Bergara-Ordizia
Tolosa-Hernani
Aretxabaleta-Pasajes
Berio-Idiazabal

GAZTEAK, LIGA NAZIONALA

Aretxabaleta-Ariznabarra	2-0

GAZTEAK, EUSKAL LIGA

Bergara-Santutxu	3-4

LEHENENGO ERREGIONALA IGOERA

Bergara B-Soraluze	0-1

LEHENENGO ERREGIONALA KOPA

Aretxabaleta C-Danena	1-0

OHOREZKO GAZTEAK - IGOERA

Aloña Mendi-Amaikak Bat	3-1
Mondra-Añorga	3-3

EMAKUMEEN IGOERA FASEA

Mondra-Zarautz	2-1
Arizmendi-Intxaurdi	1-1

ESKUBALOIA

EUSKADIKO TXAPELKETA

Portugalete-Ford Mugarri	26-26
Soraluze BKE-Urola Lazti	41-33

LEHEN TERRITORIALA

Alkorta-Arrasate	38-22

BIGARREN TERRITORIALA

Amenabar-Izarraitz Aloña	27-28

FEDERAZIO SARIA, GAZTE MUTIL

Katilu-Bergara	29-19

SASKIBALOIA

LEHEN MAILA, IGOERA

Sustrai Aloña-Goierri Verkol	75-66

LEHEN MAILA, JAITSIERA

MU-San Inazio UPNA	83-66

ARETO FUTBOLA

EUSKADIKO TXAPELKETA

Eskoriatza-EHU Campus	4-4

GIPUZKOAKO BIGARRREN M.

Urritza-Aretxabaleta	1-5

GIPUZKOAKO HIRUGARREN M.

IDK Elektronika-Aloña Mendi	3-2

GURE KIROLA

GOIENA TELEBISTA | HARMAILATIK
ASTELEHENERO, 20:45, 22:30

goiena

Eneko Mugurutza | Euskal Ligako txapelduna

"Brometan esan nuen hiru txapel irabazi behar nituela aurten, eta lortzeko bidean naiz"

- Bergarako pilotariak joan den astean irabazi zuen Euskal Liga, etxekoen aurrean
- Aurtengo Herri Arteko Txapelketan lan polita egiteko moduko taldea dutela uste du

Eneko Mugurutza, eguen eguerdian, irabazi berri duen txapelarekin. | XABIER URTZELAI

XABIER URTZELAI | BERGARA

Eneko Mugurutzak (Bergara, 1987) federazioak antolatzen duen torneo garrantzitsuenetako bat irabazi berri du, Euskal Liga. Torneo horietan ez da diru-saririk egoten: "Baina txapelak benetan izaten dira politak, eta ilusioa ematen du, izen handiko torneoak izaten direlako". Irabazi berri duen txapela berriaren eta orokorrean, Bergarako klubaren gainean egin digu berba.

Ondo hasi duzu urtea. Txapelketa hasterakoan espero zenuen garaipena lortzerik?

Euskal Ligara sailkatzeko lehenengo Gipuzkoakoan ibili behar duzu ondo, eta txapelketa horretan ondo ibili nintzen arren ez nuen espero txapela irabazterik. Banuen aurrean ibiltzeko esperantza, baina ez irabaztekoa.

Finalerdietan etxean Errearen kontra malda gora jarri zitzaizun kanporaketa.

Bai, Bergaran jokatuta ez nuen uste horrenbeste sufrituko nuenik, atzetik joan ostean 22-21 irabazi nuen-eta partidua. Horrek, baina, moralki bultzada handia eman zidan, eta itzuliko partiduan, Iruñean, ondo irabazi nion.

Ez da, ba, normalena.

Nik uste dut Erreak zera pentsatu zuela, Bergaran 21 tanto egiteko gauza izan bazen Iruñean ondo irabaziko zidala. Baina kontrakoa gertatu zen, hango pilotalekuan hobeto moldatu nintzen, pilota biziak atera nituen, eta sakez min egin nion.

Eta finala etxekoen aurrean.

Bai, polita izan zen txapela Bergaran irabaztea. Gainera, oso motibatuta banengoen ere, ligaxkan Salaberriak zortzi tantotan utzi ninduen, eta banuen horren beldurra. Azkenean, baina, nik ondo jokatu nuen, eta berak ez zuen bestetan erakutsitako maila erakutsi.

Alde horretatik, pilotari moduan eskertu egingo duzue klubak horrelako final bat norberaren herrira ekartzea.

Eskertzekoa da, bai. Iaz federazioari eskaera egin ziotenean klubeko arduradunek ez zuten usteko ni finaleraino iritsiko behar nintzenik, baina halaxe izan da, eta asko eskertzen da.

Gipuzkoako eta Euskal Herri Arteko 2009an, Euskal Liga orain... poliki-poliki txapelak batzen.

Bai, dagoeneko zazpigarren txapela da, eta etor daitezela gehiago, seinale ona izango litzateke hori.

Datozen hilabeteotan ze txapelketa dituzu begiz jota?

Euskal Ligakoa torneo luzea izan da, eta Debarrokoa ere luzea izango da, zortzi talde gaude-eta bertan. Horrekin batera, hemendik eta udara arte torneo mordoa daude.

Herri Artekoan iaz kolpea jaso zenuten.

Bai, aurtengorako oraindik zozketak ere ez dituzte egin, baina lan polita egiteko moduko taldea dugula uste dut. 2009an txapela irabazi ostean, bazirudien iaz talde faboritoetako bat ginela, eta konturatu orduko kalean ginen. Uste dut kategoria guztietan pilotari onak ditugula.

Eta Debarrokoan?

Orain hasi dugu torneo hori, hiru jardunaldi jokatu ditugu eta Jauregirekin edo Azkaraterekin osatzen dut bikotea, lan kontuak tarteko, ahal dugun moduan ibiltzen gara. Momentuz bigarren postuan gaude, Elgetakoen atzetik, eta gauzak ondo egiten baditugu finalerdietan egoteko moduan gaudela uste dut

Eta, zela ikusten duzu kluba? Bergarako pilota taldea?

Nik ondo ikusten dut, Reyes [Azkoitia] behintzat hor ibiltzen da aste osoan gaztetxo mordoarekin pilotan. Kategoria txikietan uste dut 60 pilotari inguru ditugula, eta zenbateko polita da hori. Igartzen da, baina, infantil mailara iristerakoan futbolean... beste kirol batzuetan hasten direla, eta askok pilota utzi egiten dutela. Garbi dago, baina, pilota atsegin duenak ez duela beste kirolik aukeratzen. Esaterako, senior mailan hamar pilotari gaude, eta hori zenbateko polita da. Bestalde, herri batzuetan entzuten dugu pilota eskolan ez dutela gaztetxorik, baina ez dut uste gure kasua denik.

Horrenbeste gaztetxo pilotan egoteko, baina, garbi dago Reyesek zeresan handia duela. Julenen eta Jonen laguntzarekin egunero ibiltzen da gazteekin pilotalekuan, eta adin horretako gaztetxoekin pazientzia handia behar da.

Jarraitzen duzu pilota profesionala?

Bai, apur bat bai. Binakako txapelketa jarraitzen nabil.

Garestitu egin da finalerdietarako txartela.

Bai, denak parekatu egin dira, eta azken jardunaldira arte ez dut uste ezer erabakiko denik. Neurri handian uste dut horregatik luzatu dutela txapelketa, pilotaleku gehiagotan partiduak antolatu eta jendea erakartzeko.

Nor ikusten duzu indartsu?

Nik Xalaren eta Barriolaren alde egin nuen txapelketa hasterakoan, eta gainera apustua dut lagun batekin.

Eta nork eman dezake ezustea?

Ez dakit ezustea izango litzatekeen, baina argi Gonzalezekin eta Laskurainekin. Gainontzekoek erakutsi dituzte karta guztiak, baina hauek atzetik aurrera datoz.

Hiru txapel irabaztea, hortxe erronka

Denboraldi hasieran aurten hiru txapel irabaziko zituela bota zuen Mugurutzak brometan, eta dagoeneko bi jantzi ditu: "Lehenengoa Gabonetan Bergaran jokatzen dugun torneoan izan zen, eta batzuendako herriko torneoa denez ez diote garrantzirik ematen. Bada, finalean nire lehengusu Ander Mugurutzari irabazi nion, eta niretako txapel horrek balio handia du. Ondoren, Elgoibarren finalera iritsi nintzen, baina han beste lehengusu Rezustak irabazi egin zidan".

Joan den asteburuan Euskal Ligako txapela irabazita, dagoeneko bi txapel poltsikoratu ditu Bergarakoak. Eta hirugarrena, non?: "Bada, ez dakit. Orain Debarroko txapelketa jokatzen gabiltza, baina hasi baino ez gara egin. Torneo luzea da, eta oraingoz bigarren gaude, Elgetakoen atzetik".

Jolaserako etxean dituzun baliabideen inbentariorik egin duzu?

Itsaso Pagoagak eguneroko ekintzak jolas bihurtzera animatzen gaitu

LARRAITZ ZEBERIO | ARRASATE

Itsaso Pagoagak lehenengo kolaborazioa idatzi du *guraso.com* atarirako. Gurasoak haurrekin gehiago jolas egitea gurako luke, eta, helburu horrekin, aldiro-aldiro hainbat gomendio egingo dizkigu. "Haurrentzako jolastea ekintza garrantzitsua, osasuntsua eta dibertigarria dela esaten badugu, zergatik ez da izango helduontzako?", irakurri diogu artikuluan. "Nire asmoa ez da gurasoak jostailuak edo baliabideak erostera bultzatzea, baizik eta etxean ditugun traste, jotailu eta beste zenbait materiali jolaserako aterabidea ematea".

Umeak etxean eskulanak egiten. | MALGLAM

Pagoagaren esanetan, jolasa berezko ekintza bat da, ongi pasatzeko helburua duena, eta ez dena behartua. Jolas egiteko batzuetan material batzuk behar izaten ditugu, baina beste askotan gure irudimena nahikoa izaten da une gogoangarriak igarotzeko. Jolaserako materialak mota askotakoak izan daitezke: egunerokotasunean inguruan ditugun edozein material izan daiteke baliagarria. Eta bestela, oso espezifikoak izan daitezkeen jostailuak ere aurki ditzakegu. Jolasa etxerako erosketak egitea izan daiteke edo urtebetetzea ospatzeko pastela egitea, norberaren gela txukuntzea... Egunerokotasunean burutzen ditugun ekintza asko eta asko jolas bilakatuko bagenitu, ekintza atsegin eta dibertigarriak bilakatuko genituzke. Badakit gaur egun dugun bizimoduarekin horrelako ekintzak jolas bihurtzea ez dela lan erraza, baina aukera izanez gero ez dezagun alferrik galdu", adierazi du Pagoagak.

Inbentarioa egitea

Seme-alabekin etxean ditugun jolaserako baliabideen inbentarioa egitea proposatzen du Pagoagak. "Ikus dezagun elkarrekin zenbat jostailu ditugun eta horietatik zenbat erabiltzen ditugun. Ariketa egin ostean, haurrarekin gehien gustatzen zaion jostailuarekin jolas gaitezke. Eta ondoren guk geuk erakutsi gure seme-alabei zein zen gure txikitako jolas edo jostailurik gogokoena".

Lorpenak nabarmendu autoestimua indartzeko

Hutsegiteak onartzen ere irakatsi behar diegu; huts horiek zuzentzeko bideak jarrita egiten da hori

L.Z. | ARRASATE

Consumer aldizkaritik jaso ditugu gomendio horiek. Aldizkari horretan azaltzen dutenez, konfiantza indartzeko eta erabakiak uste sendoz hartzeko, funtsezkoa da haurra gai izatea bere buruari balio ona emateko. "Hori lortzeko bide ona da lorpenak nabarmentzea. Zenbaitetan, izan ere, garrantzi handiegia ematen zaie hutsegiteei eta horiek zuzentzeari, eta ongi egindakoak alboratu egiten dira. Gurasoek sustatu duten jokabide batengatik zorionTzen badituzte haurrak eta horri balioa ematen badiote, segur aski jokabide hori berriz ere agertuko da etorkizunean".

Hutsegiteen aurrean

"Haurrak huts egiten duenean, lehenik eta behin, lagundu egin behar zaio hutsegite hori onar dezan, eta ez da jokatu behar deus pasatu ez balitz bezala; ondoren, hutsegitea zuzentzeko bideak jarri behar zaizkio. Kritika eginez gero, ez du izan behar pertsonari begira egina, ekintzari begira baizik. Ez esan "zu hau edo hori zara"; hobe da honela hitz egitea: "Egin duzun hori...".

Gipuzkoako haur kantarien jaialdirako izenematea zabalik

Bi kategoriatan banatuta 6-15 urte bitarteko ikasleek har dezakete parte, banaka, binaka edo taldeka. Jaialdiak apirilaren 9an eta 10ean egingo dituzte Beasainen eta Usurbilen, hurrenez hurren. Izenematea martxoaren 31ra arte dago zabalik Euskal Kantuzaleen Elkartean (943 59 33 02).

Badator Gipuzkoako 31. eskolarteko bertsolari txapelketa

Gipuzkoako edozein ikastetxetako neska-mutikoei zuzenduta, apirilaren 20ra arte zabaldu dute izena emateko epea. Lau kanporaketa eta finala jokatuko dira maiatzaren 6an hasi eta ekainaren 3ra bitartean. Maiatzaren 20ko kanporaketa Oñatin jokatuko da; Txantxiku ikastolan eta Santa Ana aretoan. Argibideak: 943 44 51 08.

Eskolako jantokien gaineko tertulia saioa 'guraso.com' atarian

Interneten duzue ikusgai Goiena telebistak berriki egindako tertulia saioa. Idoia Azkarate gurasoa eta Eusko Jaurlaritzako ordezkari Jose Luis Elortza izan ziren platoan. Gainera, Auzolagun *catering* enpresaren, Amaia Diaz de Monasterioguren dietistaren eta Dani Maeztu legebiltzarkidearen iritziak jaso ziren.

Nerea Mendizabal | Psikopedagogoa

"Gurasoen artean esperientziak trukatzea askotan terapeutikoa da"

'Haurtzaroa oinarri sendoekin' 15 orduko ikastaroa egingo dute martxoan Eibarren

L.Z. | ARRASATE

Gizarte hezitzailea eta haur masaje hezitzailea ere bada Mendizabal. Ikastarorako izenematea zabalik dute Udako Euskal Unibertsitatean.

Nerea Mendizabal. | UEU

Zer da errespetuzko heziketa?

Errespetuzko heziketa datza haur bakoitzaren momentu horretan inportanteak diren beharrak –jana, loa, kontaktua, ziurtasuna, atentzioa...– kontuan hartzean eta haur bakoitzaren erritmoa errespetatzean. Egutegiari eta erlojuari jarraitu barik, gure haurrari behatzeak asko laguntzen digu. Hau da: "Sei hilabete dituelako jaten eman behar zaio, bi urte dituelako fardela kenduko diot, hiru ordu pasa direlako bularra edo biberoia emango diot...". Aldaketa horiek egiteko hobe da prest dagoen jakiteko seinaleak dauden edo ez erreparatzea, eta ez badaude, itxarotea. Haurrei, bestalde, emozioak adierazten utzi behar diegu eta ondoan egon behar dugu.

2. Prestakuntza konkretu bat ezinbestekoa dela uste duzu?

Ereduak errepikatzea baino erreferentzia egokiagorik badago? Eraikitzen ari garen gizartearen erritmoak eta beharrak haurren beharretara egokituta egongo balira, eta gu geu gure senarekin konektatuta egongo bagina, beharbada beste erantzun batzuk emango genituzke. Baina gauden moduan, guraso asko galduta izaten dira. Konfiantza kanpoan ipintzen dute eta kanpotik datozen mezuekin oraindik eta gehiago nahasten dira. Erreferentziarik onena gure haurraren instrukzio liburua irakurtzea da, eta hori kontuan hartzea. Gure barrutik irteten zaigunari kasu egitea.

3. Pertsona baten garapenean zenbateraino da garrantzitsua haurtzaroa? Zergatik?

Nire ustez, haurtzaroa garairik kritikoena da. Haurtzaroan oso ahulak gara eta helduenganako dependentzia osoa da. Garai horretan, 0-7/8 adin tartean, etorkizunean izango garen pertsonaren oinarriak eraikitzen dira eta hor gurasoek edo hezitzaileek badugu zeregina oinarri ahalik eta sendoenak eta seguruenak jartzeko. Horrela, konfiantzaz eta segurtasunez betetako bizitzari aurre egiteko aukera gehiago izango dute haurrek.

4. Haurraren auto-erregulazioa ere hizpide izango duzue ikastaroan. Zer da hori?

Nire ikuspuntutik, haurrarengan konfiantza izan behar dugu. Jaiotzen denean baditu hazten joateko gaitasunak eta baliabideak, betiere beharrezkoak dituen oinarri emozionalak eskaintzen badizkiogu. Hau da, ez diogu jaten, lo egiten, ibiltzen, esfinterrak kontrolatzen... erakutsi behar. Bakarrik auto-erregulatuko da gure laguntza eta babes afektiboarekin.

5. Gurasook gure bizipen eta esperientzia pertsonalak gehiago elkartrukatu beharko genituzkeela uste duzu?

Nire esperientzia profesionalak esaten dit gurasoen arteko esperientzien elkartrukatzea kasu askotan terapia ederra gertatzen dela. Pilak kargatzeko, lasaitzeko, egoerak ulertzeko... Nire haurrari gertatzen zaiona edo niri gertatzen ari zaidana ez dela *arraroa* ulertzeko, besteak ere hortik pasatzen ari direla konturatzeko edo pasa dutela entzuteko. Izan ere, nirea kontzen ez badu ere, arindu egiten du karga hori.

"Gure babes afektiboa badute, auto-erregulatu egiten dira umeak"

"Erreferentziarik onena barrutik irteten zaigunari kasu egitea da"

Testu hauek osorik irakurtzeko eta erantzuteko, **zatoz gure webgunera**

guraso.com

KULTURA

Goikobaluren 20 urteko ibilbideak merezi duelako!

Goikobalu abesbatzak CD eta DVDa kaleratuko du urtea amaitu baino lehen; Bedoña auzoko elizan ari dira grabaketak egiten

Arrasateko Bedoña auzoko Santa Eulalia elizan egingo dituzte grabaketa guztiak. | GOIKOBALU ABESBATZA

ARRITXU BARRUSO | ARRASATE

Arrasateko Bedoña auzoko Santa Eulalia eliza grabazio estudio bilakatu dute Goikobalu abesbatzako kideek. Diskoa kaleratuko dute aurten eta horixe izan da grabaketak egiteko aukeratu duten lekua. "Oso tamaina aproposa dauka, ez da oso handia eta hori horrela ez dauka oihartzun handirik", kontatu digu Iñaki Maidagan abesbatzako zuzendariak.

1994an kaleratu zuen Goikobaluk lehenengo diskoa. Orain, hogei urte bete berriak dituztela-eta, erabaki dute aitzakia ezin hobea dela bigarrena ere kaleratzeko. Diskoa gainera, DVD batekin lagunduta kaleratuko dute. Biak ere hogei urteko ibilbidearen errepaso izango dira. DVDarendako grabaketak amaituta, orain diskoaren grabazioan ari dira buru-belarri lanean.

Lehenengo grabazioekin pozik

Diskoak hamabi abesti jasoko ditu, eta dagoeneko egin dute lehenengo grabazio saioa. Maidaganek kontatu digu abesbatzako kideak oso pozik daudela egindako lanarekin eta oso motibatuta daudela proiektu berriarekin. Beste hiru edo lau saio egitea aurreikusten dute. Izan ere, grabazioa oso astuna izan ez dadin erabaki dute abestiak taldeka grabatzea eta saio bakoitzean hiru edo lau kantu grabatzea. Musikak ere garai gogorrak bizi dituela-eta CDa autoprodukzio bat izango da.

Uste baino kontzertu gehiago

Goikobalu abesbatzaren asmoa zen diskoa grabatzen hastea ikasturte hasieran eta irailerako amaituta egotea. Azkenean atzeratu egingo da apur bat, baina zuzendariak kontatu digu atzerapenaren arrazoiak ez direla batere txarrak: "Diskoa grabatzearen ideia etorri zen aldetik, 20 urte bete ditugulako, baina beste alde batetik uste genuelako aurten kontzertu oso gutxi emango genituela. Hori horrela pentsatu genuen garai aproposa izan zitekeela disko bat grabatzeko. Zorionez baina, ez da horrela izan eta ausartuko nintzen esatera sekula baino kontzertu gehiago ematen ari garela. Horrek guztia atzeratu egin du apur bat. Gure asmoa zen ikasturtearen lehenengo hiruhilekoan hastea grabaketak egiten, baina orain arte ezinezkoa izan da ezer egitea. Diskoa atzeratu egingo da apur bat, baina beste alde batetik pozik gaude uste baino emanaldi gehiago irten zaizkigulako eta hori ere oso garrantzitsua da", azaldu digu zuzendariak.

Data zehatzik esatea zaila den arren, asmoa da 2011 urtea amaitu baino lehen CD eta DVDa kalean ikustea.

Sekula baino indartsuago

20 urteek ez dute Goikobalu zahartu eta abesbatza sekula baino indartsuago dago, proiektuz beteta. Hiru abesbatza dituzte martxan: txikiena, gazteena eta helduena; guztira 110 lagun inguru dira.

Duela bi urtetik gainera, Santiagoko bidea etapaka egiten hasi ziren euren abestiak ibilbidean barrena zabalduz. Azken etapetako irudiak ikusi ahalko dira kaleratuko duten DVDan.

IÑAKI MAIDAGAN | GOIKOBALU ABESBATZAKO ZUZENDARIA

"Lehenengo DVDa bakarrik egin behar genuen, baina erabaki genuen diskoa ere kaleratzea"

Iñaki Maidagan. | I.M.

Iñaki Maidagan buru-belarri ari da lanean Goikobaluren disko berrian. CDak hamabi abesti jasoko dituela kontatu digu eta oraindik beste pare bat grabazio saio egin beharko dituztela.

Hogei urte ez dira urtero betetzen. Urteurren horrek zerbait berezia merezi du, ezta?

Nik uste dut Goikobalu abesbatzak merezi duela zerbait berezia egitea hogei urteko ibilbidea ospatzeko. Lehenengo DVD bat argitaratzea pentsatu genuen, baina grabaketak amaitu genituenean erabaki genuen pobre samar geratzen zela eta ondo egongo litzatekeela DVDa diskoarekin batera ateratzea. Horrela konpletoagoa izango da.

Zer jasotzen du DVDak?

Hogei urteko ibilbidearen errepasoa da eta momenturik garrantzitsuenak eta berezienak jasotzen dira bertan. Gainera, duela bi urtetik Goikobalukook Santiagoko bidea etapaka egiten ari gara eta hori ere jasotzen da irudietan. Ez dut amaituta ikusteko aukerarik izan, baina seguru nago oso polita izango dela. Arteman enpresak egin digu DVDa.

Diskoa grabatzen hasi zarete dagoeneko, ezta?

Bai. Saio bat egin dugu eta beste bi edo hiru saio egitea aurreikusten dugu. CDak hamabi abesti izango ditu eta asmoa da grabazio saio bakoitzean hiru edo lau abesti grabatzea. Orain arte grabatu ditugunak euskal kantak izan dira: Guridirenak, Luis de Aranbururenak... Hurrengo saiokoak ere euskal kantak dira eta gero ikusiko dugu, oraindik zehazteke daukagu.

Bedoña auzoko elizan soinu ona lortu duzue?

Bai. Erabaki genuen grabaketak Bedoña auzoko elizan egitea inguruan zarata handirik ez dagoelako eta oso handia ez denez oihartzun handirik ez duelako. Oso pozik gaude. Auzotarrei eskerrak eman nahi dizkiet oso ondo portatu direlako eta dena erraztasunak izan direlako grabatzerako orduan.

Autoproduzitutako diskoa izango da. Krisi ekonomikoarekin askotan ez da beste aukerarik geratzen, ezta?

Zentzu horretan zorte handia izan dugu. Bizi dugun garaian ezinezkoa zen beste modu batera egitea eta taldeko Kike Dapena eta Ander Etxeberria dabiltza tekniko lanetan. Aurretik ere ezagutzen zuten mundu hori eta lan bikaina egiten ari dira.

Abesbatzako kideak nola hartu dute diskoa grabatzeko proiektua?

Oso pozik eta motibatuta gaude guztiak ere. 1994an grabatu genuen gure lehenengo diskoa eta urte asko pasa dira ordutik. Asko eta askorendako esperientzia berri da. da.

Noiz ikusiko ditugu kalean CDa eta DVDa?

Atzerapen apur batekin gabiltza lanean. Gure asmoa zen irailerako kaleratzea biak, baina uste baino hilabete batzuk beranduago hasi gara lanean. Urte amaitu baino lehen egongo da.

KRONIKA

Eguraldia iragartzen zuen txoria

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Artzainek, telebistak edo fraideek baino eguraldi iragarpen zehatzagoak egiten duen txori koloretsua ezagutu genuen atzo, domeka, Oñatiko Santa Ana antzokira hurbildutakook. Ganbara Txikitxoak abesbatzak *Txori metereologoa* musikala eskaini zuen. Aste askoko lana erakutsi zuten, eta trukean txalo zaparrada jaso zuten bukaeran.

Ganbara Txikitxoak abesbatzako kideak leihoaren atzean eguraldia irudikatzen. | JOSETXO ARANTZABAL

Egongela baten

Ilusioa eta lanerako gogoa darie Ganbara Txikitxoak abesbatzako kide gazteei, eta freskotasun hori nabaria izan zen ikuskizun osoan zehar. Atrezzo sinple batekin –etxeko bateko egongela irudikatzen zuen–, istorio bitxia kontatu ziguten. Jon Ander edo Gurutz Gereta da protagonista. Hondartzara edo mendira joan gura duenean, eguraldi iragarpena eskatzen dio kaiola handi batean duen txori koloretsuari. "Txorro txio txin txin, txorron txin" esaten dio txoriak, eta Jon Anderrek euskarara transkribatzen ditu haren iragarpenak.

Jon Anderren lagunak, Idoia (Sara Mantxola) eta Gorka (Gorka Aranburu), harrituta daude txoriaren iragarpenekin, eta haren hizkuntza ikasi guran bisita egiten diote protagonistari. Aurrerantzean, Jon Anderrek, Idoiak eta Gorkak txoriari egingo diote kasu eguraldiaren nondik norakoak jakin behar dituztenean.

Istorioa musikaz janzteko, leiho handi baten atzean, abesbatzako kideek euren kantuak abesten zituzten. Eguraldiaren papera egiten dute: euria, eguzkia, lainoak, trumoiak... Efektu berezkiekin oso ondo apaindu zituzten kantuak. Ikus-entzuleak gustura irten ziren Santa Anatik. "Istorio sinplea da, laburra. Baina kolorearekin eta musikaren jantzi dute", zioten askok.

'Munduari bira'

Ipuin musikalaren aurretik munduko abestien barrena murgildu ginen Santa Anan batutakook. Munduari bira eman genion Ganbara Txikitxokoek. Euskal Herrian hasi, eta Ingalaterra, Serbia, Sidney, Mexiko eta Kubako kantuak erakutsi ondoren, Euskal Herrian bukatu genuen *Akerra ikusi degu* kantuarekin. Besteak beste, *Engine, engine*, *A white rainbow*, *Ophelia*, *No man is an island* eta *Guantanamera* abestu zituzten. Kantuei eta abesbatzari laguntzen bideoa izan genuen lagun. Musikarekin bisitatu genituen herrialde bakoitzeko irudi esanguratsuenak erakutsi zizkiguten.

FITXA

ANTZERKIA

TXORI METEREOLOGOA

Estiloa: Musikala.

Non: Santa Ana antzokian.

Eguna: Domeka, hilaren 6a. 17:00etan eta 19:00etan.

Iraupena: 70 minutu.

Amatasun sentimenduaren ekografia, taularatuta

Irudiez eta musikaz girotuta, Irene Bauk ama izatearen nahiak antzezten ditu 'Ecografias'–en

IRATI GOITIA | OÑATI

Emakume ugari eta gizon gutxi animatu ziren Santa Ana antzokira egubakoitz gauean *Ecografias* antzezlana ikustera.

Irene Bau aktoreak antzezten du *Ecografias* antzezlaneko protagonista bakarra: ama izan nahi duen emakumea. Protagonistaren desio horrek amatasunaren gainean hausnartzera darama ikuslea, eta egun gai horren inguruan oraindik existitzen diren aurreiritzien gainean pentsatzera. Hori lortzen du ikuslea bi bidaia sakonetan barneratuta.

Addis Abbebara bidaia

Bi urte daramatza protagonistak amesten, ama izateko irrikitan; bi urte Etiopiako neskato baten argazkiari begira. Adopzioan hartu behar duen haurtxoaren begiei liluraz so.

Itxaronaldairen ostean,iritsi da unea eta protagonistak Addis Abbebarara jotzen du neskatilaren bila. Bidaia horretan izaten dituen sentimenduak islatzen dizkigu Bau aktoreak: poza, kezka, beldurra... Atzerrira egiten duen bidaiak, ordea, beste bidaia bat dakarkio emakumeri: bere barneko bidaia.

Protagonistak bere sentipenen berri emateaz gain, ingurukoek haur bat adoptatu behar zuela jakin zutenean izan zituzten erreakzioen berri ere azaltzen digu. Gogora ekartzen ditu, baita, txikitako oroitzapenak. Horrela, adopzioak bere baitako bidaian murgiltzen du.

Erditzea

Erditze batekin hasten da antzezlana. Protagonistak horrenbestetan imajinatu, baina bizi izan ez duen erditze batekin. Amaitu ere horrela egiten da; Amina alaba eskuetan duenean sentitzen duen erditzeaz.

Martitzenean, Bergara apokaliptikoa plazan

IMANOL GALLEGO | BERGARA

Guztia amaitu da, gizakiak naturari egindako barrabaskerien ostean planetak nahikoa dela esan du. Naturak lurraren jabegoa berreskuratu du eta gizadia egoera apokaliptiko baten aurrean dago. Gizarteak mendeetan lortu dituen aurrerapen guztiak desagertu egin dira eta jendea eskuz egindako gailu arraro batzuk erabiliz dabil munduan zehar.

Lasai, egoera hau ez da erreala, En la Lona antzerki taldeak *Exodo* antzezlaneko abiapuntua da. Martitzenean, 19:30ean, lur emankor, ur eta bizi izateko leku baten bila dabiltzan pertsonaiaz beteko da Bergarako Herriko Plaza.

Pertsonaiak poliki-poliki ingurua aztertu ostean konfiantza hartzen joango dira. Gauzak horrela, publiko, hiri eta inguruarekin bat-bateko egoerak sortuko dira. Hasierako beldurraren ondoren guztia bareturik dagoela ematen du. Bizirik daude, nork daki zenbat denboraz, baina garrantzitsuena oraina da, geroa ezjakintasunez beterik dago-eta.

Solomonen irudiaren pieza benetakoa dela egiaztatuta

Artelekuko zaharberritzaileen eskuetan dago Oñatiko San Migel parrokiatik duela ehun urte ostutako Salomonen irudia. Eta hango teknikariek pieza benetakoa dela egiaztatu dute. "Ez dago egoera onean, polikromia eta urreztatze galera handiak baititu", adierazi dute. Beraz, berritu egingo dute eta gero, Oñatiko parrokiari bueltatu.

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

Norman taldeak izen bereko diskoa aurkeztuko du

Danbakan eta Bilbo Hiria musika lehiaketetan finalista izan ostean, gaztetxean joko dute

IMANOL GALLEGO | ARRASATE

Normanek, hainbat lehiaketatan parte hartu ostean, martxoaren 10eko Kooltur Osteguetan izango ditugu. 2007an elkartu ziren kide guztiak, eta, talde moduan ibilbide motza duten arren, eskarmentu handikoak dira, guztiek aurretik beste talde batzuetan jotzen zuten-eta. *Norman* izeneko disko berria aurkeztuko dute Arrasateko gaztetxean, 20:00etan, eta Danbaka musika lehiaketan horrenbesteko arrakasta izan zuten doinuek girotuko dute gaztetxea.

Zuzeneko indartsua

Norman zuzenean hazi egiten da, piztu, indartu. Punk-rocka abiapuntu hartuta, erritmo aldaketa ugariren sonoritateetan barneratzen dira eibartarrak.

Haien arrakastaren gakoa zuzenekoak diren arren, oso kontzertu gutxi eskaintzen dituzte. Horregatik, besterik ez bada, egueneko hitzordua agendan sartzeko horietako bat da.

Norman taldeko kideak. | GOIENA

JOSETXO ARANTZABAL

Doinu eta erritmo biziak, 'Aurrez aurre' dantza ikuskizunean

Kolorez betetako jantziek eta soinu alaiek girotu zuten domekan Bergarako Udal Pilotalekua. Euskal dantza tradizionalen emanaldia eskaini zuten Biarritzeko Maritzuli konpainiak eta Eraiki dantza taldeak. 175 pertsona joan ziren Lapurdiko eta Zuberoko Maskaraden erritmoez gozatzera.

DATUEK DENA DIOTE

GOIENA PAPEREKO EDIZIOA
29.000 lagunek irakurtzen dute astero Debagoienean, papereko bigarrena baino 8.000 irakurle gehiago.*
GOIENA TELEBISTA
7.000 lagunek ikusten dute egunero Debagoienean, iaz baino 1.000 lagun gehiagok.*
GOIENA.NET
2011ko lehen bi hilabeteetan 130.545 bisita izan ditu; iaz baino 22.213 bisita gehiago denbora-tarte berean.**

GUK GAUZA BAKARRA DIOGU: ESKERRIK ASKO.

* CIES-EK 2011KO LEHEN BI HILEKOAN EGINDAKO NEURKETAN. ** GOOGLE ANALYTICS-EN BIDEZ EGINDAKO NEURKETA.

GURE MUSIKA TALDEAK

PATXI SAIZ

"Telesforo Monzonen hitzek gaurkotasuna dute oraindik gurean"

- Musikari getariarrak bakarlariaren esentzia, kutsua mantendu nahi izan du lan honetan
- Martxoaren 18an, barikuan, Antzuolako Torresoroan aurkeztuko du disko berria

MAIDER ARREGI | ARRASATE

Patxi Saiz musikariak esperantzaz beteriko lana aurkeztu digu. Ahots sakona eta mezu indartsua dute barkarlariaren abestiek.

Itxaropenez betetako diskoa da.

Itxaropenez betetako mezua eman nahi izan dut nire abestietan. Lehenengo kantuak ematen dio diskoari izena. Hasieran, problematika konkretu bat kontatzen da, baina, betiere, bukaeran esperantzazko erantzun edo mezu batekin amaitzen da. Gaiei dagokienez, herri-mina, kartzela, desherria, amodioa, norberaren barne hausnarketak... jaso nahi izan ditut nagusiki.

Gernikako bonbardaketaren gaineko gogoeta ere egin duzu.

Baserri-ren bertsoak dira. Lehendik argitaratuta zeunden bertsoak. Baina nik bizkaiera kutsuarekin eraldatuta topatu nituen. Izan ere, *Baserri* Landetan basolanetan aritu zen bizkaitar batzuekin 1938an. Bizkaitar kutsu hori jaso gura izan dut nik ere.

***"Askatasuna lortzen da negarrez..."*, diozu letretan.**

Luis Maria Lauzirika *Txili* idazle lekeitiarraren hitzak dira horiek. Askatasunik ezaren denuntzia egiten du. Egiaren ikerketa egin nahi ez hori nabarmentzen da bertan. Geure kexa ez entzutea dela askatasunik eza dio.

Nagusiki, optimista eta errealista da zure mezua.

Etorkizunari begira itxaropentsu azaldu behar dugu. Aterabide bat topatu behar dugu aurrera egiteko gure herrian bizi dugun askatasunik ezaren egoera horri irtenbidea emateko. Errepresio soterratuan bizi garela diot. Hau da, espresiobide guztiak mozten ari dira eta horri aterabide zoriontsua eman behar diogu, hori nahi izan dut aldarrikatu.

Telesforo Monzonen hitzek indarra dute oraindik gurean.

Bidean anaia erortzen bazaik, lepoan hartu ta segi aurrera...Haren hitzak erabili ditut, gaurkotasunik ez dutelako galdu. Diskoan aukeratutako Telesforo Monzonen agerraldiak abertzaleen batasuna aldarrikatzen du. Hitz horietan, borrokan ari diren anai-arrebak gogora ekartzen ditut; 36ko gerran moduan, jende asko dagoelako oraindik errepresaliatua eta kartzelaratua. Arazo berarekin jarraitzen dugu oraindik ere.

Antzuolarekiko harreman estua mantentzen duzu.

Garai baten, bertan entseatzen genuen. Teklatuan, lagun nuen Patxi Olabarria antzuolarra. Aurreko diskoan, berriz, Xabier Agirre musikaria izan dut lagun. Bazuen nire musikak orduan arrakastatxoa. Diskoa aurkezten martxoaren 18an, barikuan, Torresoroan izango naiz.

Autoekoizpenaren bide malkartsuan murgilduta zabiltza.

Promozio kanpainetan nabil nire lana ezagutzera emateko. Disko hau prestatzen pare bat urte daramatzat. Zuzenekoak lotzeko zaila daukagu, kultura mundua burokratizatua dagoelako. Kultura herritik piztu beharrean itzali egiten dutela uste dut. Nire iritziz, kulturari bizitza eman beharrean, haren bidea zaildu egiten da askotan.

Patxi Saiz, gitarra eskuan hartuta, zuzeneko akustikoa eskaintzen. | PATXI SAIZ

ZERTZELADA

ITXAROPENA...

Estiloa: Euskal folka.

Egilea: Patxi Saiz.

Argitaletxea: Autoekoizpena.

Iraupena: 49,4 minutu.

Galtzen ari den kantagile moldea

Patxi Saiz, eskarmentu handiko musikaria izateaz gain, poeta ere bada, eta, hainbat arrazoirengatik, beste garai batekoa dirudi. Lehen egiten zen moduan herriaren alde abesten du, barren-barrenetik, herriari ahotsa eta sentimendua jarriz. Are gehiago, disko hau entzutean saihestezina egiten zait 70eko hamarkadako urteak gogoratzea, Pantxoa eta Peioren grabazioak ezkutuan Iparraldetik Hegoaldera ekartzen zirenekoa: sonoritate hura, hitz haiek, sentimendu hori... Euskal folka lantzen du, jakina, malenkonia eta nostalgiaz bustia, eta akustikoan ondo zaindutako instrumentuek lagunduta. Galtzen ari den kantagile molde batekoa da, 'Gu gira' moduko ekimenetan bere lekua izan beharko zuena.

IKER BARANDIARAN

ZURE IRAGARKIAK

IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.com | www.goiena.net/sailkatuak

Egueneko 16:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.
GOIENAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

ORDAINTZEKO ATALAK DIRA:

- Etxebizitza Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Motorra Saldu/Errentan.
Egubakoitzean + Astelehenean: 21 € (BEZ barne).
Astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.

- Profesionalen moduluak.
Modulu bakarra egubakoitzean EDO astelehenean: 22 € (+BEZ).
Egubakoitzean + Astelehenean: 29 € (+BEZ).

1. ETXEBIZITZAK
101. Saldu
102. Erosi
103. Errentan eman
104. Errentan hartu
105. Etxeak osatu
106. Bestelakoak

2. GARAJEAK
201. Saldu
202. Erosi
203. Errentan eman
204. Errentan hartu
205. Bestelakoak

3. LOKALAK
301. Saldu
302. Erosi
303. Errentan eman
304. Errentan hartu
305. Bestelakoak

4. LANA
401. Eskaintzak
402. Eskaerak
403. Bestelakoak

5. IRAKASKUNTZA
501. Jaso
502. Eman
503. Bestelakoak

6. MOTORRA
601. Saldu
602. Erosi
603. Alokatu
603. Konpondu
604.Bestelakoak

7. ANIMALIAK
701. Saldu
702. Erosi
703. Eman
704. Bestelakoak

8. DENETARIK
801. Saldu
802. Erosi
803. Eman
804. Hartu
805.Trukatu
806.Galdu
807.Aurkitu
808. Bestelakoak

9. HARREMANAK
901. Agurrak
902. Harremanak
903. Deiak
904. Bestelakoak

10. RELAX

Debagoienetik kanpoko iragarkiak, web gune honi esker eman dizkizugu: iragarkilaburrak.com

1. ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Abadiño. Etxea salgai Muntsaratz auzoan. 2 logela, 2 komun, egongela, sukaldea eskegitokiarekin, balkoia, garajea eta trastelekua. Ia berria. Oso polita. Deitu eta ikusi. 615-00 72 16

Antzuola. Bi logelako etxebizitza salgai. Igogailua eta berokuntzarekin. Berritua. 163.000 euro, negoziagarri. 645-00 89 97 645-70 80 26

Aramaio. Gantzaga auzoan 2000 urtean egindako familia bakarreko etxea salgai. 8.000 m2ko lursailarekin. Prezio murriztua. Permuta gisa lursail eraikigarri bat edo ibarran kokatutako etxe bat ere onartuko genituzke. 636-94 81 31

Arbizu. Jantzitako etxebizitza bat alokatzen da arbizun. 686 -82 68 03

Arrasate. Alde zaharrean 65 me2ko etxebizitza salgai. Hiru logela, sukaldea, bainugela, egongela eta ganbara. 162.000 euroan. Errentan emateko aproposa. 662-18 25 73

Arrasate. San Josepen. 47 m2. Bi logela, komuna, sukaldea, egongela, trastelekua. Igogailua. Ekialdera ematen du. Etxabea da eta erreformak behar ditu. Kontaktua: etxerakomodukoa@gmail.com.

Azkoitia. Etxebizitza salgai azkoitian. Berritzeko. Aizkibel 6-4. 91m2. 618-10 31 62

Bergara. Ibargarain etxebizitza salgai. 88 metro koadro. Leku onean. Hiru logela, egongela, bi komun eta sukaldea. Egoera oso onean. Garajeak aukeran. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 652 76 95 09

Durango. Alde zaharra. 71 m2. Kanpoaldera begira. Altzariz hornituta. 2 logela. Egongela. Sukaldea. Komun bat. Guztiz berriztuta. Kanpotik (2006): fatxada, atalondoa, eskailera eta teilatua. Barrutik (2007): parketa (elondoa), sukaldea (fagor elektrotresnak eta junkers galdara), gresa, berokuntza (gas naturala), kristal bikoitzeko leihoak, ate blindatua. Berehala bizitzera joateko aukera. 199.000 euro. 607-71 53 53

Etxarri-Aranatz. Etxe familiabakarra salgai. Praktikan berria eta jantzitakoa. Hiru logela, bi komun, sukaldea eta egongela. Garajea, loralategia eta bista ederrak. Prezioa adosteko. 637 -53 86 15

Lana. Etxeak ditu: 3 logela, egongela (beheko sua du),sukaldea (sutegi ekonomikoa berria), komuna, ganbara eta ukuiluak. Teilatua oso ongi dago. Baratzak 150m ditu eta era ekologikoan landu da. Inguruak mendi eta naturazaleentzat ezin aproposagoak. Gasteiztik 45 min eta Ilzarratik oso gertu. Egokia asteburu eta oporraldietarako. Deitu 699-24 86 99 zenbakira. Tolosaldean etxerik baduzu, prest geundeke trukerako.

Mañaria. Bi logela handi,balkoia duen egongela eta sukalde handia duen pisua. Eguzkitsua. Aluminiozko leihoak, elondo egurra. Mendira ematen du. Toki lasaian kokatua. Garaje itxia. Bi solairu ditu; ez dago igogailurik. Sukaldea guztiz hornitua, bitroarekin. Etxea guztiz hornitua geratzen da. Tel: 615-76 56 46 (Jabi).

Oñati. 60 m2ko etxebizitza salgai San Lorentzon. Bi logela, komun bat eta sukalde-egongela. Jantzia eta berritua. 192.000 euro. Deitu 20:00ak eta 22:00ak artean, mesedez. 699 -78 47 49

Oñati. Kalebarrian 71 m2ko etxebizitza salgai. Bi logela, sukaldea, egongela eta komuna, guztiz hornituak. Patio erabilgarria, ganbara eta garaje itxia. Prezio ona. 665-71 77 98

Oñati. 70 m2ko etxebizitza salgai Errekalde auzoan. Gustiz erreformatua eta jantzia. Bizitzera sartzeko prest. Igogailua. Garaje itxia eta ganbara. Prezio ezin hobea. Deitu konpromiso barik. 669-26 20 29 / 659-25 47 11

Oñati. 84 m2ko etxebizitza ederra salgai. 3 gela, 2 komun, sukaldea eta egongela handia. Gainera 32metroko loralategia dauka, garaje itxia eta ganbara. Leku aproposean dago, denda eta ikastetxea ondoan baitauzka. Ingurune lasaia eta erdigunea 5 minutura dago. 667 46 64 86

Oñati. Kalebarria 54an etxebizitza salgai. Sukaldea, trastelekua, bi balkoi, lau logela, bi komun, egongela edo jangela, ganbara, igogailua. Garajea aukeran. Prezio negoziagarria. 647 24 80 02

Zaldibar. 300 m2-ko baserria berriztuta. 28.000 m2-ko lursaila. Oso eguzkitsua. Interestuok deitu zenbaki honetara: 625-70 59 97

103. ERRENTAN EMAN

Aramaio. 80 m2ko etxea errentan. Hiru logela, egongela, sukaldea, komuna eta balkoi eder bat. Oso argitsua. 692-70 42 71.

Arrasate. Etxebizitza ematen da errentan. Hiru logela, egongela, bi komun, igogailua eta berokuntzarekin. 680 48 94 04

Arrasate. Gela bateko apartamentua ematen da erreantan. Balkoiduna. Guztiz berritua. 500 euro hilean, komunitateko gastuak barne. Motorra gordetzeko trastelekua aukeran. Debagaraia agentzia. 943-77 13 02

Elorrio. 45 m2-ko pisua alokagai Logela, komuna eta sukalde -egongela. Egoera onean. (garajearekin batera alokatzen da) prest dago bizitzera sartzeko. 687-74 04 49

Llanes (Asturias). Bi pertsonarentzako apartamentua alokagai. Aste santuan, aste bukaeretan... Telefonoa: 637-91 68 92. 14:00etatik aurrera deitu, mesedez.

Oñati. Etxebizitza errentan ematen da erdigunean. Hiru logela, egongela, sukaldea eta igogailua ditu. Deitu 652-77 87 15 telefonora.

Zaldibar. Etxea alokagai zaldibarren. Alde zaharrean. Bi logela, egongela, sukaldea eta komuna. Guztiz berriztatua. Estreinatzeko. Deitu 660-45 87 56 telefonora.

104. ERRENTAN HARTU

Bergara. Etxebizitza hartuko nuke errentan, hiru logelakoa. 600 29 05 24 .

Bilbo. Neska langilea naiz ta Bilbon edo inguruan pixu bila nabil, apartamentua, atikoa, estudioa.... Oso-oso ondo zainduko dut. eraitz@gmail.com 626-86 67 36

105. ETXEAK OSATU

Aretxabaleta. Pertsona bat behar dugu etxebizitza osatzeko. Interestuok deitu zenbaki honetara: 695 72 79 55

Debagoiena. Logela hartuko nuke errentan Arrasaten edo inguruan. 685 73 48 59 .

Durango. Pisua konpartitzeko bi lagun behar dira. Etxe berria eta jantzia. 656-77 16 62

2. GARAJEAK

203. ERRENTAN EMAN

Aretxabaleta. Garaje bikoitza, itxia, 26 metro koadrokoa, errentan eman edo saltzen da. Ilargi plazan dago eta autoa garbitzeko lekua dauka. 675 70 53 79

Durango. Plateruen plazan garajea alokagai, Durangon. 65 euro hileko. 635-73 57 59 (Josu)

Durango. Garajea alokagai san inazio auzunean, produsan. 635 -74 36 24 (Iñaki)

Elorrio. Garaje itxia alokagai elorrion, kotxe bat eta trasteak sartzeko tokiarekin. Nizeto urkizu kalean dago. Interestuok deitu zenbaki honetara: 660-45 87 56.

204. ERRENTAN HARTU

Eskoriatza. Erdialdean, hala bada, garajea hartuko genuke errentan. 943 79 01 07 (Arantxa) edo 669 90 73 77 (Fran)

3. LOKALAK

303. ERRENTAN EMAN

Abadiño. Lokal ekipatua, altzariekin alokagai, matiena eta durango bitarteko errepidean.120 m2. 619-79 00 53.

4. LANA

401.ESKAINTZAK

Durango. Pertsona euskalduna behar da goizeko 07:15etik 10:30era umeak prestatu eta etxeko lanak egiteko. Interestuok deitu zenbaki honetara: 619-86 40 00

Durango. Andra euskalduna behar da umeak ikastolara eraman eta jasotzeko. Aste baten goizeko 07:30etik 09:00etara eta hurrengo astean arratsaldeko 16:30etik 19:30era. Tel.: 646-22 05 62

402. ESKAERAK

Arrasate edo inguruetan ingeneritza ikasten ari den neska euskalduna LH, DBH edota Batxilergoko eskola partikularrak emateko prest. 606 88 94 20

Arrasateeta inguruko herrietan lan egingo nuke arratsaldeetan. Umeak edo nagusiak zaindu edo garbiketa lanak egiten. 674 93 20 47

Arrasate edo Bergara. Emakume euskalduna gertu orduka plantxa edo bestelako etxeko lanak egiteko. 699 54 17 27

Arrasate. Emakumea gertu lanerako. Garbiketak egiten edota etxean bertan bizi izaten. Ana Luisa de los Santos. 673 78 08 99

Arrasate. Hemengo neska etxeko lanak egin, umeak zaintzeko edo edozein lanerako prest, orduka ere bai. 659 55 27 16

Arrasate. Orduka lan egingo nuke astegun, asteburu zein jaiegunetan. Presazkoa da. Garbiketak, ume edo nagusiak zaintzen, atariak... Interestuok deitu zenbaki honetara: 682 31 97 37

Azpeitia. Bi emakume, helduak zaintzeko prest. Geriatriako titulua daukagu. 695-74 88 35 eta 647-72 23 36l edo oreaig83@hotmail.com

Bergara. Orduka lan egingo nuke. Geriatria titulua daukat. Esperientziaduna. 650-62 12 94 /943-08 22 60

Bergara. Mutil gazte eta arduratsua gertu nagusiak zainduedo taberna zein jatetxeetan lan egiteko. Auto dut. Interestuok deitu zenbakira: 654 24 13 27

Oñatiko Ur Jauziak, SA kapital publikoko sozietateak, energia berriztagarria sortzeaz eta ustiatzeaz arduratzen denak, lan postu hau bete beharra du:

USTIAPENERAKO ETA MANTENTZE-LANETARAKO LANGILEAK

Erref.: 10/11

FUNTZIO NAGUSI HAUEK IZANGO DITU
• Energia berriztagarrien instalazioen ustiapenarekin erlazionatutako mantentze-lan guztiak egitea, bai instalazioan bertan, bai kanpoan.
• Gertakariei kasu egitea eta horiek kudeatzea.

BALDINTZAK
• Ikasketa-maila: Batxilergoa – Lanbide Heziketa.
• Elektrizitate/mekanika ezagutzak.
• Hiru urteko esperientzia izatea gutxienez mantentze-lanetako lanpostuetan.
• Txandaka eta jaiegunetan lan egiteko aukera.
• Oñatin edo inguruetan bizitzea (guardiak egin beharko ditu).
• Euskaraz hitz egitea.

KONTUAN IZANGO DIRA
• Obra zibila/igeltserotzako, mekanika hidraulikako eta elektronikako ezagutzak izatea.

LKS

15 eguneko epean, aurrez aukeratutakoei bakarrik erantzungo zaie.

Emandako datuak dagokien bezala isilekoak izango dira, abenduaren 13ko 15/1999 Legeak, hots, datu pertsonalak Babesteko Legeak ezartzen dituen irizpideei jarraiki.

MONDRAGON GIZATASUNA LANEAN

Bidali curriculuma: selección@lks.es, gaian postuaren erreferentzia jarrita, edo bestela eman izena dagokion lan eskaintzan, helbide honetan: www.infoempleo.com/colaboradoras/lks/presentacion.asp

www.lks.es

Deba Garaia Inmobiliaria

Telesforo Aranzadi 2
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37

ETXEBIZITZAK SALGAI

BERGARA
• Arrizuri, 97 m2, garajearekin.
• Aranerreka, 80 m2, oso ondo. Prezio ona.
• Matxiategi, 72 m2, eguzkitsua. Prezio ona.
• Zabalotegi, 54 m2, eguzkitsua, oso ondo.
• Bolu, 103 m2, oso eguzkitsua.
• Burdiñate, 104 m2, oso ondo.
• Ibargarai, apartamentua, 40 m2, berria, garajea aukeran.
• Justo Garate, 80 m2, oso ondo.
• Herrilagunak, 60 m2.
• Martoko, 87 m2, ondo, garajearekin.
• San Pedro, 88 m2, ondo.
• Ibargarai, 80 m2 oso ondo eta eguzkitsua.
• Koldo Eleizalde, 87 m2 oso ondo.
• Zabalotegi 80 m2, eguzkitsua, berritua.
• Elorregi 70 m2, terrazarekin, eguzkitsua, oso ondo.
• Urteaga 109 m2, berritua, oso ondo.
• Simon Arrieta, 57 m2, terrazarekin.
• Zurradero, 81 m2, oso ondo.
• Zubieta, 125 m2, terraza eta ortuarekin.
• Zabalotegi, 50 m2, berritua. Oso eguzkitsua.
• Iparragirre, 190 m2.
• San Antonio, 65 m2, eguzkitsua.
• Masterreka, 46 m2, eraikuntza berria.
• Etxebizitza berrien erainkuntza Maduran, San Pedron, Masterrekan, Zubiaurren, Bidekurutzetan, Zubietan, Martokon eta San Lorentzon.
• San Lorentzon aukera ona.
• Basarte. 69 m2. Oso ondo.
• Toki Eder plaza. 54 m2. Apartamentua. Oso ondo.
• Artekale, 48 m2. Apartamentua. Oso ondo.
• Arrizuri, 90 m2. Terrazarekin. Oso ondo.

SORALUZE
• Baltegieta, 83 m2, berria.
• Sagarerreka, 58 m2, aukera ona.

ANTZUOLA
• Eguzki auzoa, Antigua auzoa eta Sagasti auzoa.

INMOBILIARIA

Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com

ETXEBIZITZAK SALGAI

Bergara:
• Martoko. 70 m2. Igogailuarekin. 192.233 €.
• Basarte. 68m2. Terrenoarekin.
• Artekale 40 m2. Berritua.
• Irizar pasealekua 70 m2. Igogailuarekin.
• Koldo Eleizalde. 74 m2. Eguzkitsua. Prezio ona.
• Ozaeta. 96 m2. Eraikuntza berria.
• Osintxu. 84 m2. Igogailuarekin. 153.258 €.
• Ibargarai 54 m2. Garajearekin.
• Lorentxoko 73 m2. Eraikitzeko.
• Burdiñate 53 m2. 162.273 €.
• Matxiategi 65 m2. Igogailuarekin. 190.000 €.
• Ibarra 47 m2. 146.888 €.
• Mizpildi. 70 m2. Eguzkitsua.
• Simon Arrieta 70 m2. Prezio ona.
• Zabalotegi 54 m2. 154.761€.
• Aranerreka 80 m2. 189.319€.
• San Lorentzo 68 m2. Berritua.
• Herri Lagunak 52 m2. Prezio ona.
• **Etxebizitza berrien eraikuntza Martokon, Maduran, San Pedron, Zubiaurren eta Bidekurutzetan.**
• Artzamendi. 75 m2. Prezio ona.
• GARAJEAK SALGAI Ozaetan. Aukera ona.

Antzuola:
• Buztinzuri, Sagasti, Antigua, Zurrategi, Beheko auzoa, Ibarre auzoa, San Josepe, Aierra eta Errekalde. Etxe onak.
• Herriko plaza 95 m2. Oso etxe ona.

Elgeta:
• **AUKERA**. Etxebizitza adosatuak salgai Elgetan. Lehen mailako materialekin. Eraikuntza bukatua.
PREZIO EZIN HOBEAK: 249.210 €tik hasita.
• **Eraikuntza berriak Torrealdean. 186.805 €tik aurrera.**

Soraluze:
• Sagar Erreka, Rabal, Atxuri eta Rekalde. Etxe onak.

Bergara. Umeak zaindu eta etxeko lanak egingo nituzke. Interestuok deitu zenbaki honetara: 665 75 41 32

Debagoiena. Bergarako neska euskalduna prest sukaldari laguntzaile lanak egiteko asteburuetan. Esperientziaduna. 656 73 64 51

Debagoiena. Emakume arduratsua edozein lan egiteko eskaintzen da. Lyda. Interestuok deitu zenbaki honetara: 696 63 97 52

Debagoiena. Emakumea gertu asteburu edo gauetan nagusiak zaindu edo garbiketa lanak egiteko. Elkarteak ere bai. Interesatuek deitu zenbaki honetara: 699 09 46 26

Debagoiena. Emakumea gertu lan egiteko, garbiketa lanetan, sukalde laguntzaile moduan 616 68 02 18

Debagoiena. Gizon arduratsua, heziketa onekoa eta ikasketak dituena edonolako lanak egiteko eskaintzen da. Pertsona nagusien zaintzan esperientziaduna. Ordutegi moldagarria. Victor. 660 59 77 20

Debagoiena. 24 urteko mutila gertu elektrikari lanetan jarduteko. 943 79 60 89

Debagoiena. 26 urteko neska arrasatearrak orduka lan egingo luke, garbiketak, taberna, baserri, edota pertsonak zaintzen. 606 74 42 37

Debagoiena. 45 urteko emakumea, eskarmentuduna, nagusi zein umeak zaintzeko edo atari eta enpresak garbitzeko gertu. Deitu 685 21 24 89 edo 662 57 53 46 telefono zenbakietara.

Debagoiena. Emakume arduratsua gertu ume zein nagusiak zaintzeko. Orduka garbiketa lanak egiteko ere bai. 943 71 53 74, 695 73 87 95

Debagoiena. Emakumea gertu ondorengo lanak egiteko: umeak edo nagusiak zaindu, garbitasun lanak egin, tabernan lan egiteko, sukaldari laguntzaile aritzeko... 663 65 78 43

Debagoiena. Esperientzia duen emakumea gertu etxeko lanak egiteko eta pertsona nagusiak zaintzeko. Deitu 650 17 74 87 edo 943 53 27 11 telefono zenbakietara.

Debagoiena. Etxeak garbitzen edo nagusiak zaintzen lan egingo nuke, orduka. Presazkoa da. 688 69 64 90

Debagoiena. Etxeko lanak egiten edo nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Gauez edota orduka ere bai. Legezko paperak eguneratuta dauzkat. 648 51 68 31

Debagoiena. Mutil arduratsua gertu ostalaritzan jarduteko, ahal bada, edo bestelako lanetarako. Eskarmentuduna. Arkaitz. 689 76 31 13

Debagoiena. Mutila gertu asteburuetan lan egiteko. 654 98 69 14

Debagoiena. Mutila gertu eraikuntza zein garbiketa lanetan jarduteko. Gidabaimena eta autoa dauzkat. 639 41 68 38, 943 79 70 82

Debagoiena. Mutila gertu garbiketa, nagusiak zaintzen edo bestelako lanetarako. Soldatzailea naiz. 616 32 90 12

Debagoiena. Mutila gertu nagusiak zaintzeko, eta zerbitzari edota sukaldari laguntzaile lanetan aritzeko. 697 54 28 76, 682 35 90 60

Debagoiena. Nagusiak edo umeak zaintzen lan egingo nuke, etxean bertan bizi izateko gertu. Garbiketak egiten ere bai. 627 03 16 04

Debagoiena. Nagusiak edo umeak zaintzen lan egingo nuke, etxean bertan bizi izateko gertu. Garbiketak egiten ere bai. 650 02 91 76

Debagoiena. Nagusiak zaintzeko prest egongo nintzateke. Beste lan batzuk ere egiteko prest. Auto propioa daukat. Gilberto. 654 24 13 27

Debagoiena. Neska gertu orduka lan egiteko: garbiketak, tabernak, sukalde laguntzaile, pintxoak egiten eta abar. Iris. 943 53 36 72, 677 03 79 59

Debagoiena. Neska lanerako prest: nagusiak eta umeak zaintzeko zein garbiketa egiteko. Etxean bertan biziz, orduka edo asteburutan. Gauez ere bai. Erreferentzia onak. Momentuan hasteko prest. 638 93 11 48

Debagoiena. Zerbitzari lanetan, pizzak egiten, lorazaintzan eta eraikuntzan jardundako mutila lan bila. 680 925 914

Durango. Pertsona nagusien zainketan interna modura, gauetan edo asteburutan lan egiteko prest. Garbiketa lanetarako edo beste edozein lanetarako ere prest. Esperientzia eta erreferentziekin. Deitu 679-76 99 21 telefono zenbakira.

Durango. Garbiketarako, ume edo nagusien zainketarako lan bila nabil. Lanaldi erdi edo osorako. Esperientziarekin. 638-43 79 01

Durango. Neska euskalduna, arratsaldez edo aste bukaeratan umeak edo nagusiak zaintzeko prest. Deitu 635-20 45 32 (mezua utzi)

Durango. Inprenta baten inprimaketa ondorengo lanetarako (tolestu, moztu, kolatu,...) lan bila nabilen mutil gaztea. 4 urteko esperientzia. Deitu 620 -08 75 94 telefonora.

Durango. Lorezaintzan, eraikuntzan, txofer modura, banaketan eta abar lan bila nabil. Lorezaintzan esperientzia daukat. Paperekin. Gidatzeko baimena. 669-59 43 76

Zarautz. Gizon euskalduna naiz,lan egiteko prest nago, edozein lanetarako. Deitu 658 -73 08 08 telefonora.

Zarautz. Neska euskalduna eskaintzen da haurrak eta adinekoak zaintzeko, edo sukaldean nahiz zerbitzari lanak egiteko. Zarautz inguruan. Deitu 649-27 73 53. telefonora.

Umeak zaindu eta etxeko-lanak. 60 urteko emakumea naiz, umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko prest nago. Arduratsua naiz, ordenatua eta garbia, eta euskaldun zaharra. Oñatin jaioa. 945 22 79 48

5. IRAKASKUNTZA

501. JASO

2. batxilergo mailarako laguntza behar dut. Filosofian, erderan eta euskaran laguntza behar dut. Nahi baduzu telefono honetara deitu. Aretxabaletakoa naiz baina Arrasatera ere joango nintzateke. 609 98 02 52

Elorrio. Elorrion ingeles irakasle esperientziaduna behar da. 615-78 66 07

502. EMAN

Alemaniera. Alemaniar Filologian lizentziatutako neskak, maila guztietako eskola partikularrak ematen ditu. 3 urte Berlinen bizitzen. 679 67 16 42 edo 943 79 74 93

Arabiera eskolak emateko gertu nago. 654 98 69 14

Aretxabaletan eskola partikularrak ematen dira, 2.batxilergoko mailara arte. 653 01 76 67

Arrasate. 5. mailako ingenieritza ikaslea Arrasaten eskola partikularrak emateko prest. 625-74 91 50

Arrasate. Arrasate edo inguruetan ingeneritza ikasten ari den neska euskalduna LH, DBH edota batxilergoko eskola partikularrak emateko prest. Interestuok deitu zenbaki honetara: 606-88 94 20

Arrasate. DBH eta batxilergoko eskola partikularrak ematen dira. Interestuok deitu zenbaki honetara: 635 73 75 17

Donostia. Klase partikularrak Lehen Hezkuntza eta DBHko ikasleentzat. Esperientzia handiko irakaslea, heziketa berezian diplomaduna eta gizarte eta kultur antropologian lizentziaduna. 628-04 15 26.

Durango. 4. mailako Telekomunikazio Ingenieritzako ikasle euskalduna Batxilergoko eta DBHko klaseak Durangon emateko prest. Espezialitatea matematika klaseetan. 635-74 61 76

Durango. Mutil euskalduna eskola partikularrak emateko prest durangon. Interestuok deitu zenbaki honetara: 667-24 51 49.

Durango. Haur hezkuntza ikasten dabilen mutil euskalduna klase partikularrak edo umeak zaintzeko prest. 685-70 21 77

Erasmus ikasleentzat. Euskara edo gaztelania ikasi nahi? Kualifikaturiko irakaslea naiz eta lagunduko dizut. Deitu konpromezurik gabe. 635 12 87 82 edo 943 25 05 79

Ingelesa edo alemaniera ikasi nahi? Eskola partikularrak ematen ditut. Ordutegi malgua. Esperientzia handia. Taldeka nahiz banaka. 15 euro; orduko (banaka). Eskoriatza, Arrasate edo inguruetan. Deitu konpromiso gabe. 635 12 87 82 edo 943 25 05 79.-

Gasteiz. Ingelesekoaparteko eskolak ematen dira gasteizko alde zaharrean edo norberaren etxean. DBH-ko, batxilergoko, lanbide heziketako eta eredu hirueleduneko mailak ematen ditut. Zientzietan eta itzulpengintzan lizentziaduna naiz. 650-80-76-72 sla13@euskalerria.org.

Iruñea. Gurutze plaza ondoan (Zangotza karrika, 4) euskara klase partikularrak ematen ditut. Prezioa: 15 euro/orduko. Interestuok deitu zenbaki honetara: 628-04 38 53

Villabona. Ingeleseko klaseak ematen dira Gipuzkoa mailan. Taldeka edo bakarka. Maila ezberdinak. Irakasle tituluduna. 664 -16 02 68 eta continental56@hotmail.com

6. MOTORRA

601. SALDU

BMW 118 Dsalgai. BMW 118 d. 2008ko uztailekoa. 55.000 kilometro. Urdiniluna. Aluminiozko llantak. Oso egoera onean, oso gutxi kontsumitzen du. Ordenagailua, aginteak bolantean dituen BMW ekipo profesionala bluetooth-arekin. Bi guneko klimatizagailua. BMW garantia ofiziala 2011ko azaroa arte. Sabairako barrak eta llanta joko bat oparitzen ditut. 656-75 95 37 (Joseba)

Peugeot 206 XS HDI 2.0. Gehigarri guztiak ditu, ekipamendu guztia, gris metalizatua, aluminiozko hagunak ditu... Lehen eskukoa da, kolpe gabekoa eta oso ondo zaindua. 650-27 48 80.

Wolswagen passat bat salgai. 190.000 km. Bi-cp. 5.000 euro. Kotxea ikusteko elorrioko besaide autoetan. 617 -35 88 05.

Opel Vivaro salgai. Opel Vivaro 1.9. Cdti. Egoera onean dagoen furgoneta salgai. Ohea, mahaia, armairuak eta kortinak. 2005. Urtekoa, 115 zaldi, 5 toki eta 120.000 km. 665-737 605

CSR ona sport 125-eko motorra salgai. Itv-a pasa berria. Beti garajean gordea. Gorri kolorekoa. Zilindrada aldaketagatik saltzen da. 950 euro. Ikustea pena merezi du. Interestuok deitu zenbaki honetara: 686-89 77 32

Yamaha jog scooter bat salgai. Yamaha jog motorra salgai. 2.000 km. lata pasatuta. Ezer aldatu barik, dena originala. Beti egon da garajean. Idatzi mezu bat stratokaster@gmail.com e-postara edo deitu 650-17 22 85 zenbakira.

7. ANIMAL

701. SALDU

Astoa salgai. Urte biko asto arra, etxean jaio eta hazitakoa. Txipa jarrita. Tel.: 656-77 29 94

Setter ingelesa. 6 urtekoa. Oilagor eta galeperrak ehizatzeko. Saldu beharra dugu, ezin dugulako zaindu. Oso merke. 649-84 67 09

704. BESTELAKOAK

Arratoi txakurra galdu zen otsail hasieran Elosu inguruan. Arra da, zuri-marroia, eta bi lepokorekin. Batean txintxarria dauka zintzilik. "Argi" izenari erantzuten dio. Aurkitu edo ikusi baduzu, deitu zenbaki honetara, mesedez. Kontxi. 630 62 15 97

8. DENETARIK

801. SALDU

Ekipaje kutxa. Zafira kotxe gainean eramateko, erabili gabeko ekipaje kutxa salgai. 50 euro. Deitu 692 70 42 71 telefono zenbakira.

Furgonetarako aulkia. VW California T5 furgonetaren auki birakaria salgai. Deitu 605 76 07 59 edo 618 72 68 34 telefono zenbakietara.

Kafe makina. Nespresso kafe makina. "Essenza Delonghi automatica" modeloa. Beltza eta zilar kolorekoa. Berria. Abendura arteko bermearekin. Dendan 149 euro balio du eta nik 80 euroan saltzen dut. Deitu 639 29 40 11 edo 943 79 81 19 telefono zenbakietara.

Karateko kaskoa eta babesgarriak salgai. Homologatuak. M neurrikoak. 80 euro. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 690 22 05 56 .

Labeak. Bigarren eskuko labe eta mikro-uhin labea dauzkat salgai. 6 urte baino ez daukate eta berri-berri daude. Materiala: altzairu erdoilgaitza. Candy etxekoak. Enkastragarriak dira. Labea: 200 euro. Mikro-uhin labea: 125 euro. Sukaldatzeko plantxa elektrikoa opari. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 653 01 54 11

Mobil Homea. Santo Domingo de la Calzadan (Errioxa) dagoen mobil homea salgai. Bañaresa kanpinean. Egoera onean dago. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 635 70 66 02

Ordenagailu eramangarria eta home cinema salgai. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 943 79 60 89

Umeendako kapazoa. Oso egoera onean dagoen umeendako kapazoa eta aulkia. Arrue Derby modeloa. 180 euro. Zakua opari. 652 74 85 82

806. GALDU

Patinete urdin argia galdu da. Aretxabaletan, Araba ibilbidean dagoen plazan. Deitu 618 49 28 56 telefonora.

Patinetea. Otsailaren 25 edo 26an Aretxabaletako Ibarra futbol zelaitik patinete gris eta urdina hartu zuen norbaitek. Mesedez, eraman zuenak udaletxean utzi edo telefono zenbaki honetara dei dezala: 943 79 85 65

Perla zuri bat duen urrezko eraztuna galdu nuen igandean, otsailaren 6an, Arrasateko erdialdean, eguerdi aldean. Bilatu duenak, mesedez dei egin dezala. 943 79 29 20

Txamarra eta giltzak galdu. Otsailaren 5etik 6rako gauean, Ganbara tabernan, norbaitek txamarra beltz bat (marra zuriekin) hartu zuen konfusioz. Bertan giltza batzuk zeuden. Eskertuko genuke telefono zenbakia hauetara deituko balu, txamarren aldaketa eta giltzak jasotzeko asmoarekin. 675 00 95 11 edo 688 64 30 92

Txamarra Oñatin. Ternua etxeko txamarra beltz bat galdu da Oñatin, otsailaren 13 edo 14an. 10 neurrikoa. Norbaitek aurkitu badu, deitu dezala zenbaki honetara: 678 37 85 42

Baserritar mandarra Altsasun. Baserritar traje bateko mandarra galdu zen otsailaren 5ean, gauean, altsasun. Harizkoa eta beltza da. Topatu duenak hots egin dezala 948-56 38 72 telefonora.

Belarritakoa galdu. Urtarrilaren 28an belarritakoa galdu nuen portaloia eta zaldibar artean. Harri beltza eta harritxo zuridun loturarekin. Aurkitu baduzu, deituidazu mesedez. 629-40 64 99

Haurren berokia Altsasun. 8 urteko beroki beltz bat topatu zen Altsasun santa ageda egunean. Guaixeko bulegotik pasa behar da jasotzera.

Txamarra Oñatin. Ternua etxeko txamarra beltz bat galdu da Oñatin, otsailaren 13 edo 14an. 10 neurrikoa. Norbaitek aurkitu badu, deitu dezala zenbaki honetara: 678-37 85 42

Urrezko eraztuna galdu. Perla zuri bat duen urrezko eraztuna galdu nuen igandean arrasateko erdialdean, eguardi partean. Bilatu duenak, mesedez dei egin dezala. 943-79 29 20

Giltza sorta galdu Altsasun. Otsailaren 5ean giltza sorta bat galdu zen Altsasun. Aurkitzen duenak, mesedez, guaixen utz dezala.

Pesa bizkaia txartela. Berrizen otsailaren 4an pesa bizkaia txartel bat agertu zen izaro ziarsoloren izenean, Berrizko kiroldegian dago.

9. HARREMANAK

904. BESTELAKOAK

Autoa partekatu. Ikaslea gertu Bergara-Donostia-Bergara ibilbidean autoa partekatzeko. Ordutegi malgua. Deitu 629 06 93 60 telefonora. Sandra eta Iosu

ARAMBURU Etxeen administrazioa Higiezinen kudeaketa
943-65 17 13 / 664-37 25 60
www.aramburunet.net

SALGAI
- **Etxebizitza.** Amazabal kalean, igogailuarekin, Leitzan,Nafarroa.
- **Lokala.** Foruen kalean, Tolosan.
- **Garaje itxiak eta irekiak.** Tolosa, Ibarra eta Iruran.

ALOKATZEKO
- **Etxeak.** San Frantzisko kalean, Paper kalean, Herreros kalean eta Agintari kalean, Tolosan.
- **Garajeak.** Larramendin, Tolosan.
- **Txokoa.** Tximinia, komuna, ohe bikoitza, ordezko ohea eta terraza, Baraibarren.
- **Lokala** Iurre auzoan, Tolosan.

www.inmosalbide.com
Salbide
SALBIDE
Higiezinen zerbitzuak

Aia. Eraikuntza berria. 3 logela, 2 bainugela eta 127 m2ko terraza. 46.588.000 pezeta.

Aizarnazabal. 3 logelako etxebizitza. Oso prezio onean. 28.500.000 pezeta.

Getaria. Herrerieta kalean. 3 logela eta 2 bainugelako etxebizitza. Trastelekuarekin. Egoera onean. 41.000.000 pezeta.

Zarautz. Langako plaza (Salbiden). 2 logela eta bainugela bat. Guztiz berritua. 45.000.000 pezeta.

Zarautz. Vista Alegren. 3 logela, bainugela eta aseoa. Terraza handia hegoaldera. Bista ederrak. 50.000.000 pezeta.

Zarautz. Erdialdean. 2 logelako atikoa erabat berritua. Igogailua eta gasa. 51.500.000 pezeta

Zarautz. 4. pisua igogailurik gabe. 2 logela. Berritu beharra dago. 35.000.000 pezeta.

Zestoa. Erdialdean. Etxe bifamiliar batean, 3 logelako etxebizitza. 31.000.000 pezeta.

Bizkaia kalea, 6 • 20800 Zarautz
Telef.: 943-01 07 00 • Mug.: 665- 71 85 96

Etxebila higiezinak
943-44 61 66

ALOKAIRUAN
AMARA ZAHARRA Apartamentu oso polita. Kanpora. 775 €
AMARA 3 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela. Balkoia. 900 €
GROS Iparragirre. 2 logela, sukaldea, egongela handia, bainugela. 970 €

SALMENTAN
MARTUTENE 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Berritua. Kanpora. Parkina. 28.990.000
ERRENTERIA Erdialdean. 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Terraza. 26.900.000
PASAI SAN JUAN 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Berritua. 23.800.000
AMARA Altua. Bistak ibaira. 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Terraza. 49.700.000
AMARA 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Altua. Balkoia. 44.000.000
AMARA 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Terraza. 48.250.000
AMARA Olaeta. Logela, sukaldea, egongela, bainugela. Sartzeko. 44.700.000
GROS Apartamentu oso polita. Logela-egongela-sukaldea, bainugela. 28.000.000
AIETE Duplex oso polita. 2 logela, 2 egongela, sukaldea, bainugela. Balkoiak. 70.500.000
ERDIALDEA.Urbieta. Logela, sukaldea, egongela, bainugela. Balkoia. 43.500.000
INTXAURRONDO.2 logela, sukaldea, bainugela. Bista politak. Berritua. 37.500.000
EGIA Karemngo Andre Maria. Igogailua. 2 logela, sukaldea, bainugela. Berritua. 41.500.000
ANTIGUO Benta Berri. 90m2. Altua. Terraza. Garajea, trastelekua. Polita.
ANTIGUO Matia. 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Balkoia. Igogailua. 47.990.000
HERRERA 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Kanpora. Berritua. 36.200.000
LARRATXO Altua. Bistak. 2 Logela, sukaldea, egongela, bainugela. Igogailua. 37.500.000
ALTZA 2 Logela, egongela, sukaldea, bainugela. Trastelekua. Igogailua. 24.500.000
ALTZA 108m2. 4 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela. 30m2-ko terraza. 46.500.000
USURBIL 100m2. 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Tximeneta. Jardina. Parkina. 43.500.000
LEZO Eraikuntza berria. 2 eta 3 logelakoak. Terraza. Garajea. 280.000 € tik gora.

www.etxebila.net
Felipe IV etorb. 4 - DONOSTIA

INMOKOSTA
INMOBILIARIA
SALDU

GETARIA. Erdigunean. Zeharo eraberritua. 2 gela, sukalde-saloia, bainugela, trastelekua, balkoia. Dena kanpora begira eta eguzkitsua. **204.345 euro (34 milioi)**.

ZARAUTZ. ZIGORDIA kalea. 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela eta balkoia. **276.470 euro (46 milioi)**.

ZARAUTZ. VISTA ALEGRE. 3 gela, sukaldea, bainugela, saloia. **211.490 euro (48.5 milioi)**.

ZARAUTZ. IXPILLA. 2 gela, saloi-jantokia, sukalde hornitua, bainugela. Trastelekua. Txukun-txukuna. Aitzakiarik gabea.

ZARAUTZ. ARITZBATALDE. 2 gela, saloia, sukalde hornitua, 2 bainugela, balkoia. Trastelekua. Txukun-txukuna. Aitzakiarik gabea.

ZARAUTZ. 1.LERROAN. 3 gela, saloi ikusmiraduna, sukalde hornitua, 2 bainugela, balkoia. Garajea. Aurrez aurreko bistak.

ZARAUTZ. ERDIALDEAN.100 m2. 3 edo 4 logela aukeran. Igogailua. **390.660 euro (65 milioi)**

ORIO. ERAIKUNTZA BERRIA. 2 gela, saloia, sukalde hornitua, bainugela, komuna, dena kanpora begira eta eguzkitsua. Garajea eta trastelekua.

ORIO. Familia bakarreko etxe zoragarria. 3 solairu. 130m2 eta atikoa. Loralegia eta terrazak. Txukun-txukuna. Aitzakiarik gabea.

ZESTOA 3 gela, saloia, sukaldea, bainugela, balkoia. Trastelekua. Igogailua. 198.330 euro

GARAJE SALMENTA. MENDILAUTA: GARAJE ITXIA. LEKU BAT.

943-83 55 18
www.inmokosta.com
Orape, 20 - behea • 20800 Zarautz

Bing bilatzailea Yahoo!-ren aurretik dago lehen aldiz

Bilaketen mundu mailako merkatu kuota handiagoa dauka dagoeneko Microsoften Bing-ek Yahoo!-k baino. Lehengo aldia da hori gertatzen dena bai mundu mailan zein Estatu Batuetan. Statcounterrek –sareko trafikoa aztertzen eta datuak eskaintzen espezializatua dagoen zerbitzua– eman ditu datuak, eta, horien arabera, Bing-ek merkatuaren %4,37 dauka eta bere garaian liderra izan zen Yahoo!-k %3,93. Google-ek gailurrean jarraitzen du, bilaketen ia %90 bere eginez. Estatu Batuetan Google-en nagusitza apur bat txikiagoa bada ere, harena da merkatu kuota ia osoa.

Bilbon izango da hurrengo munduko web gailurra maiatzean

Maiatzaren 17an eta 18an egingo dute Bilbao Web Summit delakoa, Anboto enpresak antolatua. Tim Berners-Lee izango da hizlari nagusia. HTML hizkuntzaren, HTTP protokoloaren eta URL-aren sortzaileetako bat da Berners-Lee. Egungo *Web*-aren aitetako bat da, hortaz. Gaur egun web semantikoa garatzen dabil. Informazio gehigarria ekarriko du web semantikoak, informazioari edukia, esanahia eta erlazioa adieraziko lukeena. "Interneten gurasoek" sarearen etorkizunaz hitz egingo dute Bilbon Europako, Estatu Batuetako eta Asiako 150 aditurekin batera.

Facebookek 46.542 milioi euro balio du, inbertitzaileen ustez

General Atlantic etxeak tasatu du sare sozialaren prezioa; hain zuzen, etxe horrek asmoa baitu Facebookeko langile ohiei akzioak erosi eta konpainiaren %0,1en jabe izateko. 500 milioi erabiltzailerekin, urtarrilean Facebookekoek esan zuten inbertitzaileen aldetik 1.500 milioi dolar jaso zituztela, eta horrek tasazio berriaren kopurua asko igo du.

"Homo Sapiensetik Homo Google-era" eta geroago eta tentelago

Internetek garuna aldatuko duela dio Nichola Carr pentsalari ezagunak

JONBEREZIBAR | ARRASATE

Geroago eta tentelago bilakatzen gabiltza Interneten erabilerarekin, Nicholas Carr pentsalariaren ustez. Hutsal bilakatzen gaitu Google-ek, Carren aburuz. Teoria hori garatu berri du *The Shallows, what the internet is doing to our brains* liburuan. Nabigatzean jasotzen dugun informazio eskergak gozarazten digula, bai, baina eransten du, aldi berean, irakurketa arinak hausnartzeko gaitasuna murrizten dela "kontzentratzea kosta egiten zaigulako". "Neurologikoki, pentsatzen dugun hura" garela dio eta gogo-jarduera azalekoak "makinen erara pentsaraztera" garamatzala, "efizientziaren bila". Carrek dio hori bera bere buruan sumatu zuela eta liburua idatzi zuela.

Garunari berdin zaio

"Garunaren plastizitatea (gure pentsatzeko prozesua nola garatzen den aldagarria izatea) aurkikuntza garrantzitsua izan bada ere, garunari berdin zaio argiago ala tentelago bihurtzen gabiltzan". Gauzak horrela, Carrek etorkizuna ezelan ere ez du begi onez ikusten, analisi edota zalantza gaitasunen lerma dakusalako. Liburuen digitalizazioan dihardu azkenaldian Google-ek, "gure arreta diru bilakatzen", Carren arabera. Zenbat eta klik gehiago, orduan eta interes handiagoa du edukiak eta interes hori Google -ek, enpresa den heinean, dirutan gura du. "Nahiago dute irakurleak ahalik eta klik gehien egitea eta sakontzea ekidin". "Liburuak pentsamendu analitikoa, sakona eta autonomoa ekarri zuen", dio, amaitzeko, Carrek, "eta orain Interneten eragina aztertzeko garaia da". "Tamalez, Homo Sapiensetik Homo Google" izatera igaroko garela aurreikusten du pentsalariak.

Finagoa, azkarragoa eta arinagoa den iPada aurkeztu dute, bestelako ezusteko barik

Sistema eragilekoak eta teknikoak dira berrikuntza nabarmenak • Urtebetean bakarrik Apple–i diru gehien eman dion gailua da iPada

J. B. | ARRASATE

Aldaketa iraultzaile barik, baina optimizazio txukunarekin dator gadget-en nagusia, iPada, Jobsen konpainiari diru gehien eman dio tramankulua orain arte. Prezio aldetik, gainera, gama berriak zaharraren prezioei eutsiko die eta iPad zaharra ia 100 euro merkeago lor daiteke izakinak agortu artean. Martxoaren 25ean egongo da salgai gurean. Ezustekorik egon zen, halere, Steve Jobsek egin zituen-eta zeremonia -maisu lanak.

Ezaugarri eta prestazioen aldetik, sorpresa gutxi zen espero izatekoa, eta hala izan zen eguazteneko aurkezpenean. Eta ezustekoa, hain zuzen, Jobs guruak berak eman zuen, bajan egonik ere aurkezpena egin zuen-eta.

Jobs, eguazteneko aurkezpenean.

Sistema eragile berria

Estatu Batuetako merkaturatzearekin batera egongo da eskuragarri datorren barikuan sistema eragile berria: iOS 4.3. Berrikuntza nagusien artean dago wi-fia partekatzeko aukera eta iPadaz gain iPhone 4ean bakarrik erabili ahalko dela (3Ga izan barik, iPhonearen 3G konekxoa erabili ahalko da). Sistema berrituarekin eta kamera aukera bikoitzarekin FaceTime deiak iritsiko dira iPadera eta baita ere Mac ordenagailuen klasiko jostagarria den PhotoBooth ezaguna. Sistema eragile horri esker, gainera, iTunesko edukia kable barik partekatu ahal izango da beste gailuekin.

Prezioak

Aurreko gaman bezala, 16, 32 eta 64 GBko modeloak salduko dituzte, 3Grekin zein barik, eta iPad zaharraren prezioa izango dute berriek. Horrez gain, Apple-ek aurreko iPadaren prezioak merkatu egin ditu eta 379 $ - 273 euro (3G gabeko 16 GBkoa) eta 699 $ - 504 euro (3Gdun 64 GBko bertsioa) artean salduko ditu zaharrak, izakinak amaitu arte.

EZAUGARRI TEKNIKOAK

- Nukleo bikoitzeko A5 prozesatzailea 1 GHz-eko abiadurarekin (bi bider azkarragoa).
- 10 orduko bateria iraupena.
- 8,8 mm-ko lodiera, aurreko bertsioa baino %33 finagoa.
- 0,6 gramoko pisua.
- Kamera bi. Atzekoak 720 pixeleko HD bideoa grabatzen du.
- 16 eta 64 GB arteko edukiera.
- Bi kolore aukera: beltza eta zuria.
- Lehen iPadaren prezio bera.
- Martxoaren 25ean salgai (AEBetan martxoaren 11n).
- HDMI irteera ere izango du konektore berezi baten bidez (beste gailuren bateko pantaila erabili ahal izateko).

Batasuna, argitaletxeen ustezko hitzarmenak aztertzen

J.B | ARRASATE

Susmopean daude Europako argitaletxe nagusietako zenbait eta Batasunak martitzenean ekin zion ikerketari. Prezioak adosteko isilpean eginiko balizko hitzarmen batek azaleratu ditu errezeloak eta dagoeneko hiru etxe frantziarrek jaso dute Batasuneko autoritateen bisita: Albin Michel, Flammarion eta Hachettek, hain zuzen. Albin Micheleko zuzendari Francis Esmenardek dio guztiaren atzean Amazon dagoela; liburuak nahi dituen prezioan eskaintzeko aukeraren bila dabilela, alegia.

Frantziako legea, eragozpen

Esmenardek esan du "aurkituko duten gauza bakarra" izango dela "agintariekin eginiko hitzarmenak liburu elektronikoaren prezio bakarraren gainekoak", ze, hain zuzen, Frantziako legearen arabera, editorial bakoitzak eskubidea baitu tarifak nahierara ezartzeko. Neurri hori ez ei da banatzaile digital handien oso atsegineko eta horregatik dio Esmenardek "operazioa Amazonetik telegidatua" dagoela; "Luxenburgon kokatu dira Frantziako zergei izkin egiteko eta liburuak nahi duten prezioan saldu ahal izateko".

'On line' otoitz egiteko doako webgunea abiatuko dute bihar jesulagunek

J.B. | ARRASATE

Bihartik aurrera, hausterre -egunez, katolikoek otoitzerako gune berria izango dute sarean: *Rezandovoy.com*. Espainiako jesulagunek abiatu dute eta egunero-egunero otoitz egiteko aholku eta proposamenak emango dituzte apaizek. Gaztelaniazko komunitate kristauari dago zuzendua, doan izango da; kide ingelesek ere antzeko proiektu bat daukate abian. Egunero eliza-egutegian oinarritutako sarrera txiki bat egingo dute, Bibliako pasarte bat irakurri eta otoizlariari zenbait galdera egingo dizkiote, hausnarketarako. Otoitzerako musika diskoetxeek doan eman diete, kolaborazio moduan eta kanonik ez ordaintzeko.

TELE-BEGI

AMAIA PAVON
'twitter.com/amaiapavon'

Poteoan Finlandiara

Amamaren kexu hitzak izan dira beti hauek: "Ez dakit euskaldunok zer egingo genukeen tabernarik gabe". Bai, poteoa, txikiteoa, kalimotxoa... taberna dugu gustuko euskaldunok, gure sozializazio eremu naturala, antza denez. Gazteek ere, asteroko ohitura mantenduz, lepo betetzen dituzte tabernak larunbat gauez.

Larunbat gauez, gaztepoteoaren *prime time*-ean estreinatu dute ETB1 katean *Finlandia* saioa, *Wazemank* -eko taldearen umorezko ekoizpena. Beti bezala, umore freskoa eskaini digute Alkain eta lagunak ordubete irauten duen esketx sortan. *Friends* telesail estatubatuarraren eszenatokia gogorarazi digu *Finlandia*-k. Eszenatokian elkartuko da lagun-taldea, pertsonaia desberdinen imitazioak eta elkarrizketak egiteko.

Gazteak gaztelaniazko edukiei begira dauden kexu gara, eta gazteak, aldi berean, euskarazko saiorik ez omen dagoela beraientzat. Egoera horren aurrean erabaki zentzuzkoagoa hartzerik bazegoen, larunbat gaueko poteotik Finlandiara joango diren gazteak gutxi batzuk izango dira-eta. Amamak arrazoi.

ASTEA GOIENAN

GOIENA TELEBISTA

ASTELEHENA, 7

Aratusteak ikusgai

19:45

Aratusteek asteburuan eman dutena jasoko dugu; mozorroak, kale giroa eta umore ona ez dira faltako saioan.

13:15 Marrazki bizidunak
13:35 Kantari
14:15 Berbetan
14:45 Berriak
15:10 Nere herrie
16:00 Ikusmira
16:25 Gipuzkoa kultura
16:45 Berriak
17:15 Marrazki bizidunak
17:45 Ur eta lur
18:15 Marrazki bizidunak
18:45 Berriak
19:15 Kantari
19:45 Goiena Magazinea
20:45 Harmailatik
21:30 Goiena Magazinea
22:30 Harmailatik
23:15 Gipuzkoa kultura
23:45 Goiena Magazinea

MARTITZENA, 8

Elkarrizketa 'Magazinea'-n

19:45

Patxi Mutiloa Eusko Jaurlaritzako Kiroletako zuzendaria elkarrizketatuko dute Arritxu Barrusok eta Eneko Azkaratek.

13:15 Marrazki bizidunak
13:45 Kantari
14:15 Onein
14:45 Berriak
15:15 Harmailatik
16:00 Kulturzulo
16:15 Sokamuturra
16:45 Berriak
17:15 Marrazki bizidunak
17:45 Harmailatik
18:25 Marrazki bizidunak
18:45 Berriak
19:15 Kantari
19:45 Goiena Magazinea
20:45 Erremeixuak
21:20 Goiena Magazinea
22:30 Sakonduz
23:00 Goiena Magazinea

EGUAZTENA, 9

Gaurkotasuneko kontuak berbagai

20:45

Monika Belastegiren gidaritzapean *Tertulia* saioa izango dugu. Gonbidatuekin gaurkotasuneko gaiak jorratuko ditugu.

13:15 Marrazki bizidunak
13:35 Kantari
14:00 Harmailatik
14:45 Berriak
15:15 Onein
15:45 Bi tartean
16:30 Leku txiki bat
16:45 Berriak
17:10 Marrazki bizidunak
17:30 Sokamuturra
18:00 Berbetan
18:30 Marrazki bizidunak
18:45 Berriak
19:15 Kantari
19:45 Goiena Magazinea
20:45 Tertulia
21:45 Goiena Magazinea
22:45 Tertulia
23:45 Nere herria

EGUENA, 10

'Iparraldea bertan'

22:15

Iparraldea bertan zikloa hasi da Donostian eta Attuli Alexis Etxekoparri buruzko pastoralaren gainekoak jasoko ditugu.

13:15 Marrazki bizidunak
13:45 Kantari
14:15 Onein
14:45 Berriak
15:10 Sakonduz
15:40 Bi tartean
16:25 Ikusmira
16:45 Berriak
17:15 Marrazki bizidunak
17:45 Ipupomamua
18:15 Marrazki bizidunak
18:45 Berriak
19:15 Kantari
19:45 Goiena Magazinea
20:45 Sakonduz
21:15 Goiena Magazinea
22:15 Gipuzkoa kultura
22:45 Erremeixuak
23:45 Goiena Magazinea

EGUBAKOITZA, 11

Agurne Barrusorekin

22:15

Agurne Barruso Bergarako alkatearen elkarrizketa ikusi ahalko dugu; Sortu alderdiaren gainean hitz egingo du.

13:15 Marrazki bizidunak
13:45 Kantari
14:15 Onein
14:45 Berriak
15:15 Ur eta lur
15:45 Kulturzulo
16:00 Leku txiki bat
16:15 Erremeixuak
16:45 Berriak
17:15 Marrazki bizidunak
17:45 Gipuzkoa kultura
18:15 Ipupomamua
18:45 Berriak
19:15 Kantari
19:45 Goiena Magazinea
20:45 Gipuzkoa kultura
21:15 Goiena Magazinea
22:15 Sakonduz
23:45 Goiena Magazinea

ARRASATE IRRATIA

Korrikako kontuak izango ditugu hizpide Maite Ilarduiarekin

Hilabete barru hasiko da Trebiñun euskararen aldeko lasterketa erraldoia; Arrasatetik hilaren 14an pasatuko da. Debagoieneko Korrikako arduradun Maite Ilarduiak horri buruzko xehetasun gehiago emango dizkigu 107.7an: Korrika Kulturala, kilometroen salmenta nola doan...

Telesforo Monzon politikari eta euskaltzaleari buruz

Duela 30 urte hil zen Telesforo Monzon politikari eta euskaltzale bergararra, eta hari buruzkoak jasoko ditugu aste honetan Arrasate Irratiko *Igo autobusera!* irratsaioan. Haren bizitza izango dugu hizpide, besteak beste, eta solasaldian arituko gara Monzoni buruz.

Bidali zuen zorion agurrak Arrasate Irratira

Igo autobusera! saioko azken geltokian gure entzuleendako tartetxo bat izaten dugu. Beraz, zorion agurren bat bidali nahi baduzue edo musika eskakizunak egin nahi badituzue, deitu 943 25 05 05 telefonora edo idatzi *irratia@goiena.com* helbidera. Zuen zorion agurren eta abesti proposamenen zain gaude.

TELE-ALBISTEAK

Aratusteetako mozorro, kolore eta alaitasuna 'Magazinea'-n

Asteburuan kalean han eta hemen jasotakoak erakutsiko ditugu gaur, astelehena

AMAIA TXINTXURRETA | ARRASATE

Asteburuko ajearekin egongo dira oraindik asko; mozorro egunen biharamuna gainetik ezin kenduta.

Gu geu ere halaxe ibili gara zapatuan eta domekan; zapatu eguerdian Arrasaten, arratsaldean Eskoriatzan eta domekan, berriz, Aretxabaletan. Herri horietako mozorro eta karrozen bizitasuna eta kalean ibili diren protagonisten freskotasuna eta alaitasuna ekarriko ditugu, bada, *Magazinea* saioko platora gaur, astelehena.

Aretxabaletako karrozak

Atzo, domeka, Aretxabaletako kaleak karrozaz eta mozorroz bete ziren. Koadrilek lanean horrenbeste denbora pasa eta gero, denen aurrera atera zituzten euren karroza dotoreak, eta, aurten ere, harritzeko modukoak egin dituzte. Lan bikaina egin dute, beraz, beste behin, aretxabaletarrek.

Protagonistekin eurekin hitz egin genuen eta umorerik, behintzat, ez zitzaien falta; jaso genuen kale giro bikaina ere erakutsiko dizuegu.

Glober Troter ezagunak, Arrasateko kaleetan, zapatuko desfilean. | JOSETXO ARANTZABAL

Aretxabaleta, Arrasate eta Eskoriatzako mozorroak ikusgai

Arrasateko pregoia

Zapatu eguerdian Biteri plazako pregoiarekin hasi zituzten inauteriak. Plaza jendez lepo izan zen eta ongietorri aparta eman zieten Aratusteei. Ondoren, jai giroa nagusitu zen, musika lagun.

Eskoriatzako mozorroak

Eskoriatza ere kolorez jantzi zen zapatuan eta geuk ere ez genuen hutsik egin; hantxe izan ginen kuxkuxeatzen. Hori guztia eta gehiago, gaur, 19:45ean, *Goiena magazinea* saioan.

ZORION AGURRAK

OÑATI
Josu Anduaga Fernandez
Martxoaren 11n, 2 urte. Zorionak familiako guztien partetik. Ondo-ondo pasatu eguna eta patxo handi bat.

OÑATI
Kattin Malbadi Ugarte
Martxoaren 11n, 5 urte. Zorionak, printzesa! Eta urte askotarako! Ondo-ondo pasatu zure egunian eta jaso patxo handi bat etxeko danon izenian.

ARETXABALETA
Sandra Giletto
Martxoaren 11n, 20 urte. Jada 20 urte beteko dituzu. Hala ere, beti izango zara gure etxeko potxolita! Zorionak eta ondo pasatu eguna!

ARETXABALETA
Peru Iturricastillo Elkoro
Martxoaren 11n, 2 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo-ondo pasatu eta muxu handi bat Maddi, aitatxo eta amatxoren partetik.

BERGARA
Maitane Urkiola Martinez
Martxoaren 11n, 11 urte. Zorionak, potxola! Muxu handi bat etxekoen, eta bereziki, Alazneren partetik.

ARRASATE
Miren Gastañares Luko
Martxoaren 9an, urtebetetzea. Zorionak eta muxu handi bat, amama! Noiz jango dugu zure bizkotxoa? Markel, Eli eta etxekoen partetik.

ARRASATE
Uxue Kortabarria Maskariano
Martxoaren 8an, urtebete. Zorionak, marimatraka! Gure etxeko txikiak urtetxoa bete du! Mozorrotuta ospatuko dugu zure urtebetetzea: Edurnezuri eta zazpi ipotxen ipuinean bezala (eta noski, zu gure ipotxa!) Marrubizko muxu bat: Naroa, aitatxo eta amatxo.

OÑATI
Eneritz Osinaga Osinaga
Martxoaren 8an, 8 urte. Zorionak, potxola. Ondo pasatu. Besarkada handi bat etxekuen partetik.

BERGARA
Aitor Garitano
Martxoaren 8an, 11 urte. Zorionak etxekoen partetik.

BERGARA
Elisabet Rodriguez Irizar
Martxoaren 8an, 10 urte. Zorionak eta muxu handi bat etxekoen partetik.

BERGARA
Ainara Gomez Familiar
Martxoaren 7an, 8 urte. Zorionak, Ainara! Aita, ama, Andoni, aiton-amonak, izeba Esther eta tio Rafaren partetik. Ondo-ondo pasatu eguna eta opari asko jaso.

ARRASATE
Nagore Barandiaran Garai
Martxoaren 7an, 3 urte. Zorionak, bihotza! Hartzaren besarkada eta patxo handi bat etxeko danon partetik.

BERGARA
Oihana Elortza
Martxoaren 7an, urtebetetzea. Gaur zure eguna! Ikusi daizun geu be akordetan garela! Zorionak eta patxo handia lankideen partetik.

OÑATI
Amaia Diaz
Martxoaren 6an, urtebetetzea. Zorionak, Amaia! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetzean eta patxo potolo-potolo asko familikoen, eta batez ere, Lide txikiaren partetik.

OÑATI
M. Francisca Arrue eta M. Iratxe Maiztegi
Zorionak, bikote! Zapatuan, martxoaren 5ean, betetzen dizuzte urteak bixak. Amandriak 88 eta bilobak 3. Ondo pasatu eta urte askotarako, danon partetik!

ARRASATE
Danel eta June Ugarte Olabarrieta
Danelek 5 urte, martxoaren 5ean eta Junek 3 urte, martxoaren 12an. Zorionak, bikote, familixakuen partetik! Ondo pasatu eguna eta jarraitxu holan!

OÑATI
Natale Kortabarria Txintxurreta
Martxoaren 4an, urtebete. Zorionak, potxola! Oso ondo pasatu eta patxo pila bat etxekoen eta bereziki ENAITZen partetik.

ESKORIATZA
Felix Lasagabaster Aranburuzabala
Martxoaren 4an, 4 urte. Zorionak, Felix! John eta Lurren partetik! Zu zara txofer politena! Pi pi pi...

OÑATI
Gemma Muñoz
Otsailaren 28an, 36 urte. Zorionak, amatxo! Ondo-ondo pasatu eguna eta muxu handi bat familixa danan partetik.



OÑATI
Ane Zarketa
Otsailaren 28an, 24 urte. Zorionak, Ane! Ondo pasatu eguna eta asko disfrutatu zure 24 urtiak! Zapatuan danok ospatuku bihar dan mouan! Patxo asko kuadrillako danan partetik, futbolarixa! Zorionak, Hur! Ximun, Naroa, Garazi, Libe, Ion, Noa eta familixa danan partetik.

BERGARA
Josu Ceceaga Larrañaga
Martxoaren 3an, 13 urte. Zorionak, Josu! Ondo pasatu zure eunian eta erregalo asko jaso! 13 muxu handi! Etxekuen partetik.

ARRASATE
Jon López
Martxoaren 3an, 30 urte. Zorionak, musikari! Eta urte askotarako. Muxu handi bat etxeko guztien partetik.

ARETXABALETA
Iker Isasmendi Zubizarreta
Martxoaren 3an, 34 urte. Zorionak, Iker, Jasone eta etxeko guztien partetik. Egun on-ona pasatu! Muxu bat.



ARAMAIO
Xabier Del Teso Astondoa
Martxoaren 1ean, urtebete. Zorionak! Amama Marije, Zuhaitz eta beste familiakoen partetik..



BERGARA
Iker Moncayola Garcia
Otsailaren 29an, 3 urte. Zorionak familiaren partetik eta oso ondo pasatu!

BERGARA
Beñat Askargorta Aranzabal
Otsailaren 26an, 4 urte. Zorionak, Beñat! Ze ondo pasatu ginuan zure urtebetetze egunian, ezta? Betiko xalaua izaten jarraitxu. Etxeko txikitxuari, muxu handi bat zure anaiaren partetik! Jokin.



ESKORIATZA
Lide Crespo
Otsailaren 23an, 11 urte. Zorionak, Lide, berandu samar bada ere. Merendolan bai ondo, ezta? Patxo handi bat etxekuon partetik.

Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak.

Internet
Sar zaitez *goiena.net* atariko Zorion agurren tartean. Aukeratu zein herritan gehitu nahi duzun eta eskatzen diren datuak bete.

Posta elektronikoa
Mezu bat bidali *zorionagurrak@goiena.com* helbidera, adieraziz: izen abizenak, herria eta nahi duzun testua.

Ordezkaritzak
Etor zaitez GOIENAko ordezkaritza batera.

JAIOTAKOAK

Aiur Etxebarriarteun Lazkano

Arrasate 3,850 kilo. Martxoaren 25a. Gurasoak: Olatz eta Igor. Argazkian, umea sehaskan.

Xuban Apraiz Arabiourrutia

Arrasate 3,200 kilo. Martxoaren 2a. Gurasoak: Nagore eta Beñat. Argazkian, umea aitarekin.

Maren Cachafeiro Davila

Bergara 3,200 kilo. Otsailaren 28a. Gurasoak: Ines eta Roberto. Argazkian, umea amarekin.

Galder Lakontxa Villar

Oñati 3,690 kilo. Martxoaren 2a. Gurasoak: Susana eta Josu. Argazkian, umea sehaskan.

Alison Vaca Maldonado

Bergara 4,250 kilo. Otsailaren 28a. Gurasoak: Heidy eta Rodolfo. Argazkian, umea sehaskan.

Laura Gonzalez Perez

Bergara 3,180 kilo. Martxoaren 1a. Gurasoak: Laura eta Sergio. Argazkian, umea gurasoekin.

Chao Zheng He

Oñati 3,600 kilo. Martxoaren 3a. Gurasoak: Lianghong eta Tafu. Argazkian, umea amarekin.

BABESLEA

IKUSI MAKUSI
Umeen paradisua
Lazarraga 4 OÑATI 943 08 23 32

DENBORA-PASA

HITZ GEZIDUNAK



* Ekuadorre-ko hiriburua / Angolako hiriburua		Onetsia / Sarrera	Gobernatua / Kupelak, upelak
Galdera / Hil aurreko unea			
Orotariko / Hurrupa	Babes / Garaiak, aldiak		
		... gabe, atertu gabe / Soinuaren alturea	
Dena / Ogi-apurra		Txistuka / Toka, duzu	
			Tona / Hizki grekoa
Mend. Saharako hirib. / Kukusoa		Rutenioa / Sufrea	

LUMA

BILA-BILA 7

Bila itzazu zazpi ezberdintasun bi irudien artean.

SUDOKUA

	4		2	6				
		7	5	1	4		3	8
				8			6	9
	2			9				
	3	8			2	5	1	
					6	9	2	4
2			9		8			
3						6	5	
7	1							

HIZKI SALDA

Topa itzazu bost jantzi.

A	R	H	U	Z	O	L	X	K
P	K	O	R	I	X	L	O	P
R	H	I	G	T	X	J	C	P
A	L	K	O	N	D	A	R	A
K	A	S	N	Z	S	K	R	G
A	E	G	A	U	I	A	A	T
A	H	J	K	O	L	N	O	P
E	T	G	I	U	T	E	B	N
L	E	P	O	K	O	A	A	A

HIEROGLIFIKOA

Nola dago zerua?



SOLUZIOAK

A	O	S	U	K	A	K	R	A
U	R	■	N	U	I	A	A	■
T	■	A	O	N	D	O	T	O
A	K	U	T	■	O	R	O	■
I	A	T	■	O	G	A	R	T
E	P	R	E	T	A	■	O	■
N	U	T	A	I	■	T	I	■
A	D	N	A	U	L	■	■	■
M	■	O	■	Q	■	■	■	■

2	9	8	3	5	6	4	1	7
7	5	6	1	2	4	9	8	3
1	3	4	7	8	9	5	6	2
4	2	9	6	3	8	7	5	1
6	1	5	9	4	2	8	3	9
9	4	3	8	7	5	1	2	6
5	7	1	8	3	6	9	4	8
8	6	9	4	2	1	3	7	5
3	8	2	5	9	7	6	9	4

A	A	A	Q	K	O	P	E	L
N	E	B	G	I	U	T	E	
A	P	N	O	L	K	O	H	A
T	A	A	Ñ	U	A	G	E	A
G	K	R	K	A	Z	N	S	A
A	R	A	D	N	O	K	L	A
R	H	I	G	T	X	J	C	P
P	K	O	L	X	I	R	O	P
K	X	L	O	Z	U	H	R	A



Hieroglifikoa:
Oskarbi.

AI, ENE!

Maitasuna bukatzen denerako

Krisi garaian negozio ildo berriak izan daitezke konponbidea: batek baino gehiagok erosiko luke tarta hau dibortzioa ospatzeko.
www.sarda.es

AHOBERO

"Alcobendasen eusquerak ordua galdetzeko ere ez du balio".

JON JUARISTI | IDAZLEA

Ez zaio arrazorik falta Euskararen Aholku Batzordeko kideari, baina saia dadila herri berean alemaniera erabiltzen; seguru emaitza bera lortuko duela. Bere esanetan, txintxatzeko omen dago erakunde horretan... Ezin ukatu bide ona hartu duenik...
abc.es

EGURALDIA

Max. 14º
Min. 1º

Eguraldi eguzkitsua espero da. Hego-ekialdeko haizeak giroa epel mantenduko du.
euskalmet.net

ASTELEHENEKOA
goiena
2011-03-07
HARPIDETZA: ARETXABALETA 20550, E05 BASABE POLIGONOA | TEL.: 943 08 10 50 | HARPIDETZA@GOIENA.COM

HAMARREKOA

Joseina Etxeberria 43 urte ditu eta horietatik 21 Gaztea irratiari lotuta eman ditu Ramones taldearen jarraitzaile fina den ataundarrak. Bere esanetan, argi geratzen da musika duela pasio | **TXOMIN MADINA**

"Ez nintzateke inoiz ere disko festak egitera bueltatuko"

1. Zelan daroazu milaka lagunen iratzargailu izatea?
Egia da askok irrati-iratzargailu bezala erabiltzen gaituztela, baina gure asmoa ez da hori; gure asmoa da esnatzeko orduan edo goizeko lehen ordu gogor horietan konpainia egitea.

2. Zeureak ze ordutan jotzen du?
05:00-05:30 inguru horretan, programaren arabera. Hasiera baten pentsatzen nuen ohituko nintzela, baina konturatu naiz ezetz; nahiko gaizki daramat.

3. Irrati formulan, zer egiten du aurkezleak abestitik abestira?
Bat aurkeztu orduko, hurrengoa prestatu behar duzu: nola hasten den ikusi, zenbat denbora duzun hitzegiteko... Publizitatea sartu behar da, baita errealizazioa landu ere: efektuak, banatzaileak... Aberaste horrek denbora asko darama eta uste dut irratigintzan garrantzia gutxi ematen zaiola.

4. Nola izan originala abesti bat 20. aldiz aurkeztean?
Datu minimo batzuk beti eman behar dituzu, baina horretaz gain, mila gauza etortzen zaizkizu burura: askotan arazo gehiago izaten da esan behar duguna kontrolatzen zer esan bilatzen baino.

5. Aukeratu bat: trikitia, merengea edo teknoa?
Ez da *peloteoa*, baina trikitia. Orain, teknoa eta elektronika ere oso neureak ditut.



LEXURI DOYAGE

6. Ezagutuko al dugu talderik The Ramones gainditukoduenik?
Itxaropena ezingo dugu galdu! Badaude abestiak Ramonesenak baino gehiago gustatzen zaizkidanak. Gainera, ze gozada den irrati formulan, kantu edo talde bat deskubritu eta horren aurkezpena egiteko zain egotea! Irratigintzan ez dago parekorik.

7. Eta zein izan da hartu duzun azken sorpresa?
Alexis Jordanen *Happiness* kantua, REMen azken lana, Linkin Parkena... Uste dut bai dantzarekin, bai pop munduarekin, 80. hamarkadan bizi izan genuenaren oso antzerako momentu bat bizitzen ari garela; oraingo kantu asko, momentu oneko oroitzapenen kantuak izango dira.

8. Disko festekin, Euskal Herri osoa ezagutuko zenuen. Non dira festazaleenak?
Ez ditut ahaztuko Donostian egindakoak, ezta Oialumekoak, Laudio edo Arrasatekoak ere.

9. Itzuliko zinateke disko festetara?
Inoiz ere ez! Tarteka gauza pribatuak eta partikularrak egin arren, publiko irekiarendako, ez.

10. Musika deskonektatzeko erabiltzen dute askok; zuk, nola deskonektatzen duzu musikatik?
Ez dut deskonektatzen; lanerako musika batzuk ditut, neuk disfrutatzeko beste batzuk. Azken horiek entzuten ditut etxean.

LEHENDAKARIA BANINTZ

"Askatasun gehiago emango nuke"

"Iratzargailuak debekatuko nituzke, norberak erabaki dezala ze ordutegirekin lan egin... Ez, egia esan, azken urteotan debekuak eta horrelako kontuak besterik ez datozkit Gobernutik eta boteretik; beraz, debekuak baino gehiago, askatasun gehiago emango nuke."

BIHARAMUNA

ELENA LAKA

Munduaren erdigunea

Irakurri nion zutabegile bati masturbatzea osasungarria dela, baina ez zela gomendagarri taberna batean masturbatzea, haziak hankartetik salto eta besteentzako gogaikarria izan zitekeelako. Irakurri nion idazle bati, ume batzuk txiza egiten hasi zirela, hankak zabaldu, zakila atera eta parrastada egin zutela. Hirugarrenari entzun nion EAJk PSOEkoak barrabiletatik helduta zeuzkala Madriden. Laugarrenari, abertzale euskaldunak bere jakin-minari pijama janzten ziola.

Baina abertzale euskaldunen ia erdiak bere jakin-minari zerbait janztekotan kamisoia ipiniko lioke. PSOEko ordezkari askok ez dauka barrabilik nondik heldu, obatzekotan, titi parea. Umeen erdia baino gehiago txiza egiteko hankak ireki aurretik jarri edo makurtu egiten da, eta parrastada ezpain arteko zulotik ateratzen zaio. Munduko populazioaren erdiari, masturbatzerakoan ez dio haziak pol-pol jauzi egiten, baizik eta orgasmoarekin likido baten jarioa irristatzen zaio izterretatik behera.

Sarritan gizonek munduaren erdigunea balira bezala jarduten dute. Periferiatzat gaituzte. Bihar, Martxoaren 8a. Etzitik aurrera, erdigunea guztiona.